# Euskara, immigrazioa eta hizkuntza eskubideak

## Lan jardunaldiaren inguruko gogoetak

Bilbo, 2007ko azaroak 29

Xabier Aierdi eta Belen Uranga (Ed.)



ikuspegi
Immigrazioaren Euskal Behatokia
Observatorio Vasco de Inmigración

unesco etxea
amarauna

Munduko Hizkuntza Ondarearen
UNESCO Katedra
Cátedra UNESCO
de Patrimonio Lingüístico Mundial
UNESCO Chair
on World Language Heritage

UPV-EHU

# EUSKARA, IMMIGRAZIOA ETA HIZKUNTZA ESKUBIDEAK

Lan Jardunaldiaren inguruko gogoetak

Bilbo, 2007ko azaroak 29

**Babesleak:**

EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO
KULTURA SAILA
DEPARTAMENTO DE CULTURA

*Hizkuntza Politikarako Sailburuordetza*
*Viceconsejería de Política Lingüística*

EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO
ETXEBIZITZA ETA GIZARTE
GAIETAKO SAILA
DEPARTAMENTO DE VIVIENDA
Y ASUNTOS SOCIALES

*Immigrazio Zuzendaritza*
*Dirección de inmigración*

**Xabier Aierdi, Belen Uranga** (Editoreak)
**Xabier Monasterio** (Errelatorea)
**Roberto Gutierrez** (Maketazioa)

ISBN: 978-84-9860-087-2
Lege Gordailua: BI-1553-08
Bilbo, 2008

**Lan Jardunaldia Bilbon, Barceló Nervión Hotelean egin zen, 2007ko azaroaren 29an**

**IKUSPEGI**: Immigrazioaren Euskal Behatokia
Telf. (34) 946 018 275
www.ikuspegi.org
info@ikuspegi.org

**AMARAUNA - UNESCO Etxea**
Telf. (34) 944 276 432
www.amarauna-languages.com
www.unescoeh.org
amarauna@amarauna-languages.com

# Aurkibidea


**Atarikoa** 5

**Laburpenak** 7

Hizkuntza aniztasuna kudeatzeko ideiak
Eduardo J. Ruiz Vieytez (Deustuko Unibertsitatea) 7

Etorkinen hizkuntza eskubideak
Agustin Unzurrunzaga (SOS Arrazakeria) 9

Ikasle etorkinak eta euskara: galderak eta zalantzak
Alberto Agirreazaldegi (Eusko Jaurlaritzako Hezkuntza Saila) 11

Hizkuntzen kudeaketa eskolan
Amelia Barquín (Mondragon Unibertsitatea) eta Uri Ruiz Bikandi (UPV - EHU) 13

Euskara, immigrazioa eta hizkuntza-eskubideak
Mario Zapata (soziolinguistika eta immigrazio gaietan aditua) 15

Kolektiboen eta nazioen hizkuntza eskubideak
Julen Zabalo eta Iker Iraola (UPV - EHU) 17

Immigrazioa eta eskubide linguistikoak
Xabier Zabaltza (UPV - EHU) 19

Begiratu bat orbitatik
David Anaut (idazlea) 21

Material gordin bat hizkuntzen ukipenerako
Jon Sarasua (HUHEZI. Mondragon Unibertsitatea) 23

Partaideen iritzi eta iruzkinak 25

**Eranskina: hitzaldi osoak** 29

Ideas para gestionar la diversidad lingüística
Eduardo J. Ruiz Vieytez (Deustuko Unibertsitatea) 31

¿Qué hacemos con la pluralidad lingüística realmente existente?
Agustín Unzurrunzaga (SOS Arrazakeria) 36

Ikasle etorkinak eta euskara: galderak eta zalantzak
Alberto Agirreazaldegi (Eusko Jaurlaritzako Hezkuntza Saila) 40

Hizkuntzen kudeaketa eskolan
Amelia Barquín (Mondragon Unibertsitatea) eta Uri Ruiz Bikandi (UPV - EHU) ........ 43

Euskara, immigrazioa eta hizkuntza-eskubideak
Mario Zapata, Soziolinguistika eta immigrazio gaietan aditua ........ 49

Kolektiboen eta nazioen hizkuntza eskubideak
Julen Zabalo eta Iker Iraola (UPV - EHU) ........ 55

Immigrazioa eta eskubide linguistikoak
Xabier Zabaltza (UPV - EHU) ........ 59

Begiratu bat, orbitatik
David Anaut, idazlea ........ 63

Material gordin bat hizkuntzen ukipenerako. Hondoari begiratu bat
Jon Sarasua (HUHEZI. Mondragon Unibertsitatea) ........ 66

# Atarikoa

Ez da gertakari berria giza migrazioena. Mundua mundu denetik, alde eta aldi guztietako herriek eta jendeek lurralde batetik bestera aldatzeko beharra izan dute inoiz, hamaika arrazoi direla bide. Kontua da, oraingo gizarte gero eta globalago honek eskaintzen dituen garraiobide eta aurrerabideei esker, jendeak betidanik egin izan dituen lekualdaketa horiek askozaz maizago gertatzen direla gaur egun eta horrek egoera berriak sorrarazi dituela gizartearen esparru guztietan. Hizkuntzen esparruan ere bai, besteak beste. Jakina, Euskal Herria ez dago salbuetsita hizkuntzen ugaltze horretatik, eta azken urteotan gure lurraldean ere, han-hemen, hainbat hizkuntza komunitate agertzen eta kokatzen ari dira.

Gaiaren garrantziari erreparaturik, *IKUSPEGI Immigrazioaren Euskal Behatokia eta AMARAUNA-UNESCO Etxea* erakundeek gaur egun Euskal Autonomia Erkidegoan immigrazioaren ondorioz hitz egiten diren hizkuntzei buruzko ikerlan bat abiarazia dute. Ekimenaren lehen helburua hizkuntza horiek zenbat eta zeintzuk diren jakitea izan da, egungo aniztasunaren lekukotasuna emateko asmoz. Eta hurbileko aniztasuna egiazkoa da, gure lurraldean ehun hizkuntza baino gehixeago mintzatzen baitira dagoeneko. Geroztik, ikerlanean jasotako testigantzak euskaraz eta gaztelaniaz argitaratuko den liburu batean bilduko dira, jatorrizko herrialdeei buruzko zenbait datu soziolinguistikoz horniturik.

Ikerlanaren emaitzak 2008ko maiatzean biltzar batean emango dira ezagutzera, baina, hartara baino lehen, bi erakunde antolatzaileek egoki iritzi diote gurean hizkuntzaren inguruko gaietan zuzenean nahiz zeharka lan egiten duten hainbat lagunen iritziak biltzeari, denon artean hizkuntzen arloan agertu berri zaizkigun erronkez gogoeta egiten eta aberastasun hori behar bezala kudeatzeko moldeak bilatzen hasteko. Horra hor, hitz gutxitan esanik, lan jardunaldi honen zergatia eta ingurumariak.

IKUSPEGIk eta AMARAUNA-UNESCO Etxeak antolatuta, Bilbon, Barceló Nervión Hotelean egin zen “Euskara, Immigrazioa eta Hizkuntza Eskubideak” lan jardunaldia. Bertan, bi erakunde hauek gonbidatuta, Euskal Herri mailan gai horietan diharduten 45 pertsona bildu ziren, horien artean unibertsitateko adituak, administrazioetako euskara eta immigrazio teknikariak, irakasleak, idazleak eta orohar, hizkuntz aniztasunaren kudeaketaren alorrean diharduten pertsonak.

Lan prozedurari gagozkiola, esan behar dugu zenbait adituri “Hizkuntzak eta immigrazioa” gaiaren inguruko atal bana jorratzeko eskatu zitzaiela, behin partaide guztien aurrean aurkeztutakoan, parte hartzaile guztien artean hura eztabaidatu eta iruzkinak egiteko.

Horixe da, hain zuzen ere, lan jardunaldiaren isla izan nahi duen txosten gisako honetan jasotzen ahaleginduko garena: lehenbizi, hizlarietako bakoitzak bere berbaldian esandakoaren muina eta, horren ondotik, jardunaldian partaide izan ziren lagunek gai bakoitzaren harira eginiko iruzkin sorta. Azkenik, eranskin modura hitzaldi guztiak eskaintzen dira.

Bide batez, bere testuak eta ideiak aurkeztu zituzten adituei gure esker ona eman nahi diegu, baita lan jardunaldian parte hartu zuten pertsonei ere, horien interesa eta laguntza gabe txosten hau eta bertan garatutako eztabaidak ezinezkoak izango liratekeelako.

**Xabier Monasterio**

Bilbon, 2007ko azaroaren 30a





# Hizkuntza aniztasuna kudeatzeko ideiak

**Eduardo J. Ruiz Vieytez (Deustuko Unibertsitatea)**

Eztabaidarako lehen gaia Eduardo J. Ruiz Vieytez irakaslearen eskutik heldu zen. Gai zabal bezain interesgarria jorratu zuen berak: herri erakundeek hizkuntza aniztasuna egokiro kudeatzeko ideiak. Bi ataletan banatu zuen Eduardok bere aurkezpena: alde batetik, hizkuntza kudeaketaren funtsezko oinarri eta hatsarreak finkatu zituen eta, bestetik, haiek gauzatzeko neurri eta jarduera sorta oparoa eskaini zuen.

Oinarrizko irizpideek zein izan beharko luketen azaldu aurretxotik, oso gogoeta mamitsua egin zuen hizkuntza aniztasun berri hau kudeatu beharko lukeen euskal gizarteak gai honetan agertzen duen jarreraz eta, egia esan, ez zuen irudi positiborik eman. Eduardoren ustez, Euskal Autonomia Erkidegoan bi hizkuntza ofizial izanagatik ere, euskal herritarren nahia aski urrun dago oraindik ustezko elebitasun horretatik. Horren ondorioz, eleaniztasuna nekez gauza liteke elebitasuna ozta-ozta gauzatzen den gizarte batean.

Nolanahi ere, horrelako jarrerak aldatze aldera, hiru ardatz hauek indartu beharra azpimarratu zuen Eduardok:

**Aniztasuna**

– Egungo elebitasun ofizialetik abiaturik, legearen esparrutik hizkuntza eta kultura aniztasunaren aldeko apustu sendoa egin behar dute herri erakundeek, Kanadan eta beste zenbait herrialdetan egin dutenaren antzera.
– Eleaniztasunaren aldeko politika egiteak ez du esan nahi bertoko hizkuntza gutxitua lehenetsi behar ez denik.
– Oinarri gisa, herri erakundeek, hizkuntza aniztasuna murriztu beharrean, hura gogotik bultzatu eta sustatzeko ahaleginak egin behar dituzte, horixe baita asimilazioa deuseztatzeko erarik hoberena.
– Era berean, gizarte batean barne kohesioa erabatekoa izan dadin, bertan hizkuntza ofizial bakarra –edo, gehienez ere, bi hizkuntza ofizial– egon daitezkeelako iritziak kalte izugarria egiten dio eleaniztasunari eta, horrenbestez, lehenbailehen erauzi behar da herritarren eta agintarien gogotik.

Eleaniztasunaren aldeko politika egiteak ez du esan nahi bertoko hizkuntza gutxitua lehenetsi behar ez denik.

**Lege esparrua**

– Zuzenbidearen esparrutik, hizkuntza aniztasuna demokratikoki kudeatzeko estrategiak eta politikak burutu behar dira. Indarrean dagoen legeria larregi aldatu gabe ere, zuzenbidearen aldetik aurre pausu handiak eman litezke, hizkuntza eskubideen interpretazio zabalagoa eginez eta berauen aldeko nazioarteko itunak eginez.
– Aldi berean, Euskal Autonomia Erkidegoan eta Nafarroan dagoen ofizialtasun maila bermatuz, zirrikituren bat zabal liteke gure gizartean mintzatzen diren beste zenbait hizkuntzak ere nolabaiteko ofizialtasun maila izan dezaten.
– Oinarrizko eskubide zibilen interpretazio zabala aski izan liteke, hein handi batean, hizkuntza aniztasunaren aldeko aldaketa sakonak egiteko. Giza taldeei berez dagozkien eskubideez gain, gizabanakoari dagozkion eskubide zibiletan hizkuntzen tratamenduak eduki behar duen garrantzia azaleratu beharra dago.
– Gure gizartean bi hizkuntza ofizial soilik bereiztea okerreko aukera politikoa da, planteamendu horrek ez duelako inola ere bermatzen egungo aniztasuna demokratikoki kudeatuko dugunik, ez eta hizkuntza ofizial gutxituaren etorkizuna ziurtatuko dugunik ere. Ofizialtasuna ezin da izan zabaltasunez eta irudimenez lan egitea eragotziko digun molde zurruna.

**Iraupena**

– Hizkuntzen arloan, epe laburrerako estrategiak erabili beharrean, epe luzerako jardunbideak landu behar dira, helbururik behinena gaur egun dugun aniztasunak denboran irautea baita.
– Ildo beretik, ezinbestekoa da hizkuntza aniztasunaren kudeaketa eguneroko eztabaida politikotik bereiztea. Nolabait esan, hizkuntza aniztasunak bere baitan biltzen dituen balioak blindatu egin behar dira, eguneroko jardun politikoan alderdikeriaz erabil ez daitezen.



## Hizkuntza aniztasuna kudeatzeko ideiak

Behin hiru ardatzok zehaztutakoan, Eduardo Ruiz Vieytezek hizkuntza aniztasuna sustatzen eta praktikan jartzen lagunduko luketen 50 neurri edo jarduera zehatz proposatu zituen, Eskualdeetako eta Eremu Urriko Hizkuntzen Europako Gutunean bereizten diren arloetan banatuak eskaini zituenak: Hezkuntza, Justizia, Herri Administrazioa, Hedabideak, Kultura, Ekonomia eta Gizarte Gaiak. Luze joko luke, noski, hemen denak aipatzeak, eta, labur beharrez, arlo bakoitzeko baten bat baino ez dugu nabarmenduko, adibide gisa.

**Hezkuntza**

– Hezkuntza curriculumean munduko hizkuntza aniztasunari buruzko nozioak txertatzea, ikasleek haren berri izan dezaten. Halaber, euskal gizartean gehien hitz egiten diren kanpoko hizkuntzen gutxienezko hiztegia irakastea, aldi berean, gureaz bestelako alfabetoak ahal den neurrian landuz.
– Eskariak eta baliabideak aintzat hartuz, zenbait gunetan hizkuntza ez-ofizialen batean ikasteko aukera ematea.

Hizkuntza aniztasuna sustatzen eta praktikan jartzen lagunduko luketen 50 neurri zehatz proposatu ziren.

**Justizia**

– Erregistro zibilen eta oinarrizko argibideen esparruan hizkuntza ez-ofizial nagusiak jendaurrean erabiltzea.
– Hizkuntza ez-ofizialetan idatzita dauden agiriak ez baztertzea eta haiek itzultzeko baliabideak jartzea.

**Herri administrazioa**

– Administrazio arloko zeregin ohikoenak egiteko, telefono bidezko zerbitzuak eskaintzea ahalik eta hizkuntza gehienetan.
– Beste hizkuntzetako izen berezien idazkera ahalik eta gehien errespetatzea.
– Jendaurreko administrazio lanpostuetan langile eleaniztunak izatea.

**Hedabideak**

– Beren jarduna –osorik edo zatika– hizkuntza ez-ofizialetan egiten duten hedabideak sortzeko eta zabaltzeko erraztasunak ematea.
– Administrazioaren jabegokoak diren hedabideetan beste hizkuntzen erabilera bultzatzea.

**Kultura**

– Hizkuntza ez-ofizialen kultura adierazpideak sustatzea.
– Euskal kulturaren ekoizpenak hizkuntza ez-ofizial erabilienetara itzultzea.

**Ekonomia eta gizartea**

– Enpresetan eta gizarte erakundeetan eleaniztasuna bultzatzeko planak diseinatzea eta burutzea.
– Beste lurralde batzuetako hizkuntza komunitateetako pertsonek ekonomia, gizarte nahiz kultura arloko elkarteen aholkularitza eta zuzendaritza organoetan parte hartzea.





# Etorkinen hizkuntza eskubideak

**Agustin Unzurrunzaga (SOS Arrazakeria)**

Immigrazioari buruzko datuak emanez ekin zion bere aurkezpenari SOS Arrazakeria elkartearen kide den Agustin Unzurrunzagak. Berak xeheki emandako datuetatik, hemen bi hauek gogoraraziko ditugu soilik: Estatuan badira 4.482.566 etorkin (biztanleria osoaren %10, gutxi gorabehera), eta Euskal Autonomia Erkidegoan etorkinak 98.108 dira (biztanleria osoaren %4,6.). Bistan denez, euskal gizartean datuak dezente txikiagoak dira, nahiz eta azken bi urteotan hazkunde tasa %17,4koa eta 14,7koa izan, hurrenez hurren.

Etorkinen jatorrizko herrialdeei dagokienez, Euskal Autonomia Erkidegoan erroldatuta dauden etorkin gehienak 20 herrialdetakoak dira, Horietako hamar Amerikakoak dira (Kolonbia, Ekuador, Bolivia, Brasil, Argentina, Kuba, Venezuela, Paraguai, Dominikar Errepublika eta Peru); bost Europakoak (Errumania, Frantzia, Portugal, Erresuma Batua eta Alemania); hiru Afrikakoak (Maroko, Aljeria eta Senegal); bat Asiakoa (Txina); eta beste bat Batasunaz landako Europakoa (Ukraina).

Hizkuntza aniztasunari gagozkiola, jatorriaren inguruko mapa horretatik bederatzi hizkuntza funtzional ateratzen dira: gaztelania, portugesa, errumaniera, arabiera, txinera, ingelesa, frantsesa, alemana eta ukrainera. Agustinek argi zehaztu zuenez, etorkin gehienak beren jatorrizko herrialdeetan ofizialak diren hizkuntza nagusitu horietako batean eskolatuak izan dira. Zentzu horretan darabil berak “hizkuntza funtzional” kontzeptua.

Horren ostean, indarrean dauden zuzenbide arautegietan (Espainiako Konstituzioa, Atzerritarren Legea, Autonomia Estatutua, Eusko Jaurlaritzaren Immigrazioari buruzko Plana, eta abar) etorkinen hizkuntza eskubideak zenbateraino babesten diren aipatzeari ekin zion Agustinek. Eta babesa hutsaren hurrena dela ondorioztatu behar da, Administrazioaren aurrean beren jatorrizko hizkuntzaz hiru kasu hauetan baino ezin baitira baliatu: atxilotzen, epaitzen edo espetxeratzen dituztenean. Gainerako kasu guztietan atzerritarrak Estatuko hizkuntza ofizialak ikastera behartuta daude, eta hizkuntza horiek ikasten dituzten neurrian soilik *integratzen* dira, lan, gizarte eta kultura arloei dagokienez.

Zuzenbide Penaletik kanpo, atzerritarrei beren jatorrizko hizkuntzak maila pribatuan –beren familia giro, elkarte eta erlijio erritoetan– erabiltzeko eskubidea baino ez zaie aitortzen. Esan gabe doa eskubide hori zinez murritza dela eta etorkinen hizkuntza eskubideak Zuzenbidearen gainerako esparruetara zabaldu beharra legokeela.

> Atzerritarrei beren jatorrizko hizkuntzak maila pribatuan erabiltzeko eskubidea baino ez zaie aitortzen… Zuzenbidearen gaineko esparruetara zabaldu beharra legoke.

Hezkuntza sistema eta hizkuntza aniztasuna izan zen Agustin Unzurrunzagak jorratu zuen hurrengo azpi gaia. Hezkuntza arloko zenbait adituk –Ignasi Vilak eta Francesc Carbonellek, besteak beste– emandako iritzietan funtsatu zuen bere azalpena. Honako puntu hauek nabarmenduko ditugu:

- Euskal Herrian eta Katalunian erabiltzen diren murgiltze ereduak ez dira egokiak aniztasunak berez dakartzan egoera guztiak konpontzeko. Alde batetik, gaztelaniaz ez dakiten haur etorkinek nekez egin dezakete aurrera eredu horietan eta, bestetik, ezinezkoa litzateke murgiltze ereduak eskolan gaur egun diren hizkuntza guztietan antolatzea.
- Ez dago irakasle elebidunik, eskolaren ohiko hizkuntzan eta haurraren jatorrizko hizkuntzan irakats dezakeenik.
- Hizkuntza kopurua hain handia izaki, ikastetxeak eta ikasgelak haien arabera antolatuz gero, ikasleen arteko bereizkerian jausteko arriskua izan liteke.
- Ikasle etorkinek hitz egiten dituzten hizkuntzetariko asko agrafoak dira.
- Ez dirudi oraingoz, bederen, hizkuntza komunitate berriek aldarrikapen handirik egiten dutenik, beren hizkuntzak eskolan txerta daitezen.
- Ohiko ordutegiaz kanpoko eskolek arrakasta urria izan dute eta maiz aski bazterkeriarako bide ere gertatu dira.
- Jatorrizko hizkuntza-kulturen irakaskuntzaren asmoak ez du zertan izan hizkuntza eta kultura ondarea gordetzea, ikaslearen auto estimua, motibazioa eta emaitzak hobetzeko baliabidea baizik.

Geroago, hizkuntza aniztasunaren gaineko gogoeta bat egin zuen Agustinek, galdera modura: Estatuak eta Euskal Autonomia Elkargoak hizkuntza aniztasuna aitortu eta halako edo bestelako eskubideak arautegi batean bildu behar al ditu? Ala, aitzitik, eztabaida abstraktuegiei itzuri egin eta hizkuntza aniztasunak unean-unean sortzen





Amin Maalouf: norberaren hizkuntza eta munduko hizkuntza eduki behar ditugu eta bion arteko espazio zabala beste hainbat hizkuntzak bete dezakete.

dituen arazoei irtenbide praktikoa eman behar al zaie? Agustin bera bigarren aukeraren aldekoa da, nahiz eta badakien aukera horrek ere arazo eta oztopo ugari dituela. Bere ustez, Estatuaren eta Autonomia Erkidegoen ("Estatu txikien", berak esan zuenez) immigrazio politiketan asmo dirigista berbera sumatzen da.

Europara begiratuz, leku guztietan antzeko arazoak eta antzeko erantzunak daudela dio berak eta, horretara, ez du inon eredu argirik ikusten. Izan ere, ez baita guztiz egia Frantziako eredua erabat asimilazionista denik, ezta Herbehereetakoa pluralista eta Alemaniakoa bereizketaren aldekoa direnik ere.

Bukatzeko, Europan hizkuntzaren aniztasunaren inguruan dauden muturreko bi joeren aipamena egin zuen:

- Hizkuntza eskubideak babestearen aldeko joera, lurralde batean mintzatzen diren hizkuntza guztien berdintasuna aldarrikatzen duena.
- Joera ultraliberala, hizkuntza eskubide pribatua dela esaten duena. Honen arabera, Estatuak eta gehiengoek ez dute zertan inposatu hizkuntza baten nagusitasuna.

Honen harian, bi autoreren aipuak ere ekarri zituen gogora hizlariak, Todorov eta Amin Maaloufenak, hain zuzen.

Todorovek dio jendeak ongi bereizten dituela identitate administratiboa eta kulturala eta azken hau ez dela inondik ere uste dugun bezain hauskorra. Beraren ustez, Europak lanerako hizkuntza bakarra hartu beharko luke, eta hizkuntza hori ez da besterik "nazioarteko ingelesa" baino, hots, europarrek atzerrira joaten direnean hitz egiten dutena edo Europako funtzionarioek elkar ulertzeko erabiltzen dutena.

Amin Maaloufen iritzian, guztiok "norberaren hizkuntza" eta "mundurako hizkuntza" eduki behar ditugu eta bion arteko espazio zabala beste hainbat hizkuntzak bete dezakete. Todorovek bezala, berak ere ingelesa hautatzen du nazioarteko hizkuntzatzat.





# Ikasle etorkinak eta euskara: galderak eta zalantzak

**Alberto Agirreazaldegi (Eusko Jaurlaritzako Hezkuntza Saila)**

Gero eta gehiago dira gure hezkuntza sisteman sartzen ari diren jatorri atzerritarreko ikasleak. XXI. mendeko euskal gizarteko protagonistak gaur egun gure ikastetxeetan ikasten duten haur eta gazteak dira. Ukaezina da beraientzat aberasgarria dela beste kultura eta jatorri batzuetako pertsonekin batera ikastea eta bizitzea. Printzipio horretatik abiaturik, Euskal Autonomia Erkidegoan ikastetxe guztiek hartu behar dute beren gain ikasle etorkinen harrera eta integrazioa. Hitz laburrez esanda, gure ikasleak aniztasunean hezi behar ditugu, beraien kultura eta hizkuntzekiko begirunean bermaturik.

**Hezkuntza sistema eta euskara ikasteko eskubidea eta motibazioa**

Euskal gizartean integratu nahi dutenentzat hemengo bi hizkuntzak ikastea, eskubide izateaz gainera, beharrezko ere bada, baina, zoritxarrez, etorkinen seme-alaba askori ez zaie eskubide hori bermatzen. Eskolara ere iritsi den hizkuntza aniztasuna ikusirik, hizkuntza ereduen beste planteamendu bat behar da, oraingoak ez baitu ziurtatzen ikasle etorkinek euskara ikasiko dutenik. Horregatik, euskara ikasteko eskaintzak guztientzat irekia egon behar du, eta, bereziki, bi hizkuntzak eskolan soilik ikasi ahal izango dituztenentzat.

Euskara ikastearen garrantzia ongi adierazi behar zaio kanpotik heldutako familiari. Zenbait lekutan kanpotarrek ez dute ulertuko zergatik ikasi behar duten entzuten ez duten hizkuntza. Hori dela eta, gizarte honetan integratzen laguntzeko euskara jakiteak duen garrantzia azaldu behar zaie.

Zenbait lekutan kanpotarrek ez dute ulertuko zergatik ikasi behar duten entzuten ez duten hizkuntza. Gizarte honetan integratzen laguntzeko euskara jakiteak duen garrantzia azaldu behar zaie.

**Euskal Autonomia Erkidegoan orain arte eman diren urratsak eta hartu diren neurriak**

Hezkuntza Sailak *Ikasle Etorkinak Artatzeko Programa* jarri zuen abian 2003-04 ikasturtean, eta aurten *Kultura Artekotasunerako eta Ikasle Etorri Berrien Inklusiorako Programak* ordezkatu du aurrekoa. Ikasle etorri berriei integratzen laguntzeaz gain, eskola komunitate osoan kultura arteko hezkuntza sustatzea du helburu programa berriak.

*Hizkuntza Indartzeko Programa* martxan jarri zen aspaldian eta indarrean dirau oraindik. Helburu bikoitza du programak: alde batetik, euskara ez dakiten ikasle etorkinei berariazko laguntza eskaintzea, hizkuntza eta komunikazio trebetasunak lehenbailehen eskura ditzaten, eta, bestetik, ikasle horiei hezkuntza sisteman sartzen laguntzea.

Izan ere, erronka handia baita jatorri hain ezberdinetako ikasleak euskalduntzea; baliabideak behar dituen erronka handia. Horregatik, ikastetxe askotan irakasle espezializatuak aritzen dira lan horretan, HIPI direlakoak. Gaur egun ia 300 ikastetxe publikotan ikasle etorri berriek euskara ikas dezaten errefortzuak eskaintzen dira, eta itunpeko sarean 150 ikastetxe inguru dira, programa honi esker diru laguntzak jasotzen dituztenak.

Ikasle etorkinen ia erdiak A ereduan eskolatuta egon dira orain arte, nahiz eta azken aspaldion ehunekoa jaitsi egin den. Hala ere, azken lau urteotako bilakaerak frogatzen du A ereduan izena emandako ikasle etorri berrien ehunekoa 14 puntu jaitsi dela eta D ereduan izena emandako ikasle etorkinen ehunekoak 10 puntuko igoera izan duela.

Horrelako datuak eman ostean, euskalduntze prozesua dela eta, irakasleek eta eragileek izandako kontraesan, aurreiritzi eta zalantzak galdera modura zerrendatu zituen Alberto Agirreazaldegik. Hona hemen haietako batzuk:

*Aurreiritziak*

- Haurrek azkar eta erraz ikasten dute bigarren hizkuntza. Hau ez dago frogatua; gertatzen dena da haurrek komunikatzera behartzen dituzten pizgarri gehiago dituztela eta komunikazioa ezinbestekoa duten egoerak ohikoagoak direla haurrengan.
- Hizkuntza bat ikasteko, zenbat eta gazteago hobe. Zenbait egileren ustez, bigarren hizkuntzaren ikaskuntza lehenbailehen hastea komeni da, baina eskola eremuan.





- Ikasleak zenbat eta denbora luzeagoa egin bigarren hizkuntzan, orduan eta bizkorrago ikasiko du.
- Hizkuntzaren presentzian egote hutsak ez dakar berez hizkuntza hori ikasterik.
- Haur guztiek berdin ikasten dute bigarren hizkuntza. Eskolako esperientzian argi ikusi ahal izan da ez dagoela ikasle eredu bakarra.
- Ikasle etorri berrien egoera antzerakoa da. Ikasle guztiak ez dira berdinak, eta are gutxiago beraien familia eta gizarte testuinguruak.

Irakasleak jatorri atzerriko ikaslearen ama hizkuntza ezagutzen ez badu, nola lor daiteke hizkuntza horien presentzia ikasgelan eta eskolan?

*Zalantzak*

- Zein hizkuntzatatik abiatu behar da, euskaratik ala gaztelaniatik? Nork erabakiko du zein den irakas-hizkuntza?
- Ama hizkuntza mantentzeko aukera eskaini behar al zaie? Noiz? Nola? Irakasleak ezagutzen ez badu, nola lor daiteke hizkuntza horien presentzia ikasgelan eta eskolan?
- Zenbat urtetan izan behar dute hizkuntza indartzeko laguntza? Orain arte bi urtez eskaini izan da, baina ez dirudi nahikoa denik. Luzatzeak bidezkoa dirudi, baina helburuak eta ebaluaziorako irizpideak argitu behar dira.
- Zein momentutan hasi behar dute gaztelania ikasten, irakas-hizkuntza euskara baldin bada? Eta alderantziz baldin bada?
- Nola geratuko da ereduen kontua? Ikastetxe bakoitzak bere errealitatearen arabera egokituko al du irakaskuntza? Euskal Autonomia Erkidegoko bi hizkuntza ofizialak eta atzerriko hizkuntza bat ikastea derrigorrezkoa izango da. Etorkinek etxetik dakiten hizkuntza (arabiera, txinera, …) atzerriko hizkuntzatzat hartuko al da?





# Hizkuntzen kudeaketa eskolan

**Amelia Barquín (Mondragon Unibertsitatea) eta Uri Ruiz Bikandi (UPV - EHU)**

Pedagogia arloan ibilbide luzea duten Amelia Barquínek eta Uri Ruiz Bikandik helduleku ugari daukan gai garrantzitsu bati heldu zioten beren komunikazioan: immigrazioa eta hizkuntzen kudeaketa eskolan. Ondo antolatutako azalpen batean, gaia zedarritu ondoren, oraingo eskolak hizkuntza arloan agertzen duen errealitatearen berri eman zuten, lehenbizi, eta, gero, hizkuntza aniztasuna ikastetxeetan egokiro kudeatzeko irizpide ugari proposatu zuten. Galdera batez abiatu ziren: zer da hizkuntza integrazioa?

**Hizkuntza integrazioa**

Posible al da integrazioa harrera gizartearen hizkuntza jakiten ez denean edo modu eskasean erabiltzen denean? Erantzunak erraza dirudi: ez. Baina zer gertatzen da hizkuntzak bi direnean eta ez bat? Halakoxea baita Euskal Herriko egoera.

Harrera gizartearen hizkuntza egoera azaldu zuten gero, labur-labur: Euskal Herriak hiru hizkuntza ditu; euskarak estatus ezberdinak ditu, lurralde administratiboaren arabera; gaur egun ez dago euskaldun elebakarrik; bere erabilera eremuak oso ezberdinak dira: zenbait tokitan hizkuntza nagusia da eta beste askotan ia-ia ez da erabiltzen; hala ere, ahalegin sozial eta politiko handia egiten ari da euskara normalizatzeko; prozesu horren ondorioz, gazteen %75ek badaki euskaraz.

Euskal Herrira iritsi diren pertsonen hizkuntza egoera aipatu zuten gero. Hego Euskal Herrira iristen diren etorkinen ia %50 Hego Amerikatik datoz eta, hortaz, gure bi hizkuntzetako bat badakite, gaztelania, noski. Gainerakoek, oro har, ez dakite ez bata eta ez bestea.

**Errealitatearen oztopoak**

Errealitateak argi erakusten digu, salbuespenak salbuespen, etorkin helduek ez dutela euskara ikasten, eta horretan faktore hauek zerikusi handia dute, zalantzarik gabe:

a) Euskara normalizatu gabeko hizkuntza izateak egoeran kontrajarrian jartzen gaitu. Leku askotan etorkinak berehala jabetzen dira euskara ez dela kalean erabiltzen. Eta bertokoek erabiltzen ez badute, zaila da etorkinek ikasteko beharra sentitzea. Ikasi ere, jendeak hizkuntzak zerbaitetarako ikasten baititu; beharraren arabera saiatzen gara beti hizkuntzak ikasten. Eta, jakina, gaztelaniaz ez dakitenentzat gaztelania da aukerarik berezkoena. Honetaz ari garela, galdetu ere egin liteke zenbateraino eska diezaiekegun etorkinei bertoko herritar askok egiten ez duena.

Zergatik ikasten dute euskara hemengo herritar elebakarrek? Batez ere, lan arrazoiengatik eta arrazoi ideologikoengatik. Etorkinek, ordea, ez daukate horrelako motibaziorik.

Alde batetik, beraiek sarrien egin ohi dituzten lanetan (etxeak garbitzea, umeak eta zaharrak zaintzea, eraikuntza lanak, …) euskara ez da beharrezkoa eta, bestetik, “beraiek” izatetik “gu” izatera pasatzen ez diren bitartean, euskararen etorkizuna ez da etorkinen ardurakoa izango.

“Beraiek” izatetik “gu” izatera pasatzen ez diren bitartean, euskararen etorkizuna ez da etorkinen ardurakoa izango.

Euskara zaletasunez ikastea oso urrun dago etorkinen lehentasunetatik. Haien bizitza ez da samurra izaten eta aurrera egiten lagunduko dieten beste premia batzuk dauzkate (agiriak lortzea, lana, etxebizitza, …).

**Esperantzarako oinarrizko kontzeptuak**

Honaino, bada, errealitatearen deskribapena. Gauzak aldatuko baditugu, hiru hitz gako hauen inguruan ardaztu beharko genuke aldaketa:

1) *Errespetua.* Etorkinei bai eska diezaiekegu aurrera eramaten ari garen prozesuarekiko begirunea. Ezin dugu ahaztu euskal gizartearen zati handi batek erabat sinesten duela hizkuntzaren iraupena ardatz duen proiektu batean.

2) *Sinpatia.* Guztiz desiragarria litzateke etorkinak euskararekiko “sinpatikoak” izatea, Atxagaren hitzetan esatearren. Alegia, ikasten badute, hainbat hobeto, baina hala ez bada, jarrera positiboa agertzea, gutxienez. Helburu hori lortzea, ordea, ez da etorkinen zeregina soilik; guri dagokigu etorkinak euskarara erakarri, interesatu eta liluraraztea.





3) *Ordaina.* Zer irabazten du euskara ikasten duenak? Carme Junyent hizkuntzalariak ideia erakargarri hau azaldua du: hizkuntza txikiak ikasteak identitatea ematen du. Bere hitzetan: “Bai euskarak eta bai katalanak badaukate hiztun gutxi daukaten hizkuntzen abantaila bat: haiek hitz egiteak taldean sartzea ahalbidetzen du”. Hori ez da ingelesarekin gertatzen, noski.

**Etorkinen seme-alabak eta euskara**

Nagusientzat aiputan hartu ditugun arrazoiek ez dute umeentzat balio, gurasoak ez bezala, umeak jada ez baitira etorkinak. Hemen hazten eta hezten ari dira eta hemen garatzen ari dira beren identitatea. Eskolak, esan beharrik ez, horretan lagundu behar die.

Eskola inklusiboan ez dago etorkinik edo atzerritarrik, ez dago “ume desberdinik”. Ikasle bakoitzak bere ezaugarriak ditu, eta eskolak diren bezalaxe hartzen ditu. Bestalde, eskola inklusiboak etorkinen seme-alabei identitate aniztuna garatzeko aukera eskaini behar die, beren jatorria eta kultura aintzat hartuz, balioetsiz eta landuz.

Euskarak zeregin handia bete dezake eskolan, bi baldintza horiei doakienez: gurasoak edonongoak direlarik ere, haurrak “bertokoak” baldin badira, argi dago, gainerako haurrek bezala, hemengo bi hizkuntza ofizialak ikasteko eskubidea dutela eta eskubide hori eskolak bermatu behar diela. Bestela esanda, euskara haien ondare kulturala ere bada.

Euskara ikasi ezean, bi ondorio negatibo hauek gertatuko lirateke: bateko, haur horiek ez lituzkete besteek dituzten aukera berberak izango eta, besteko, ez genuke gizartearen barne kohesioa bultzatuko.

Nola eskolatu, adibidez, Gasteizera edo Bilbora hamahiru urterekin Poloniatik edo Senegaletik etorri eta lehenbailehen lanean hasi nahi duen gaztea?

**Ikasleen ezaugarrietara egokitzea**

Ikasle berrien %60 Hego Amerikatik etorritakoa da eta hemengo ikasle gaztelaniadunen antzeko egoera linguistiko batean dago. Baina familia etorkinen ikasleen %40k ez daki eskolako hizkuntzetariko bat bera ere eta biak ikasi behar ditu. Ikasle hauek, jakina, desabantaila egoera batetik abiatzen dira ikasten. Honi erantsi egin behar zaio ikasle etorri berri asko ez direla eskolan lehenbiziko urteetatik abiatzen, egoera idealean dauden ikasleek egiten duten legez.

**Eskolako berantiarrak gazteleraz?**

Eskolara berandu hasten den ikasleari, idazteko eta irakurtzeko trebetasunekin batera, oinarrizko ezaguera sozial, natural eta matematikoak irakatsi behar dizkio eskolak bertako hizkuntzetan. Hona galdera, ordea: zein hizkuntzatan irakatsi behar dizkio trebetasun horiek, bietan berdin egiterik ez dagoenean? Nola eskolatu, adibidez, Gasteizera edo Bilbora hamahiru urterekin Poloniatik edo Senegaletik etorri eta lehenbailehen lanean hasi nahi duen gaztea?

Ameliaren eta Uriren iritzian, ez dago dudarik adin horretan maila baxua duten ikasleek inguruan gehien egiten den hizkuntzan ikasi beharko luketela eta hori gure artean, gehienetan, gaztelania izaten dela. Ikasleek gutxi entzuten eta erabiltzen duten hizkuntzan ikastea porroterako bidea izan daiteke. Biek diotenez, euskara ezin da horma eta galga gisa erabili; horrelako kasuetan gaztelaniak izan beharko luke eskolatzeko hizkuntza, baina, era berean, euskararen oinarria jaso beharko lukete ikasle berantiarrek.

Inor gaztelaniaz eskolatzea gure artean, neurri handi batean, tabua izan dela iritzita, puntu honen amaieran honako galdera hau ere planteatzen dute bi egileek: aukerarik egongo al da euskal eskolan gaztelaniaz eskolatzeko? Nola eman soluziobidea planteatu dugun egoerari, etorkinentzat aparteko zentrorik egin gabe?

**Umeen etxeko hizkuntzak**

Psikopedagogian gauza jakina da umeak bere lehen hizkuntza, berau edozein delarik ere, garatzen jarraitu beharra duela. Hori gogoan izanda, beharrezkoa da irakasleak ulertzea eta onartzea, eskolako zereginak aurrera ateratzeko, ikasleek askotan lehen hizkuntzaz egin behar izaten dutela elkarren artean; horrela jokatuta, zama intelektuala arindu egiten da, ama hizkuntzak orduan bitarteko kognitibo bezala jokatzen baitu.

Bukaeran, eskolan hizkuntzen kudeaketa hobetzeko proposamen sorta oparoa aurkeztu zuten Ameliak eta Urik. Proposamen zehatz hauek irakasleen hasierako prestakuntzari eta prestakuntza iraunkorrari, irakasleen arteko komunikazioari, hizkuntza proiektuak egokitu beharrari, irakasteko material berriak sortzeari eta ikasle etorkinen familientzako eta elkarteentzako informazioa hobetu beharrari dagozkienak dira, besteak beste.





# Euskara, immigrazioa eta hizkuntza-eskubideak

**Mario Zapata (soziolinguistika eta immigrazio gaietan aditua)**

Mario Zapatak hiru maila hauetan jorratu zuen bere komunikazioa: hizkuntza eskubideak, immigrazioari buruzko politikak eta egungo egoera.

**Hizkuntza eskubideak**

1948an Giza Eskubideen Aldarrikapen Unibertsala egin zenez geroztik, berauek izan duten bilakaeran gertatu diren interpretazio ezberdinak gogoratu ostean, hizkuntza eskubideak multzo horretan zenbateraino hartu diren kontuan aztertu zuen Mariok. Iragan mendeko 70eko hamarraldian *Linguistic Human Rights* kontzeptua agertu zen. Zenbait aditu orduan kontzeptu hori erabiltzen hasi zen, hizkuntza eskubideei giza eskubideen duintasun maila berbera eman nahian. Hala eta guztiz ere, hizkuntza eskubideak gaur egun ez daude behar bezala definituak eta, okerrago dena, ez daude zuzenbidearen aldetik behar bezala bilduak.

Nolanahi ere, hizkuntza eskubideen gainean nolabaiteko definizioak egin izan dira, honelatsu laburbil litezkeenak: oinarrizko hizkuntza eskubideak unibertsalak, besterenganaezinak eta ezin urratuzkoak dira. Alegia, edonon edonori aitortu beharrekoak dira, eta inongo boterek ezin ditu murriztu. Errealitatea, zorigaitzez, oso urrun dago definizio horretatik. Hizkuntza eskubide arruntak ere bereizten dira, eremu geografiko jakin batean hizkuntza bateko hiztunei aitortu beharrekoak, alegia.

Giza eskubideak beteko badira, nahitaezkoa da hizkuntza eskubideak bermatzea. Kontuan hartu beharra dago, hauek bermatu ezean, beste zenbait giza eskubide ere urratzen direla: babes judizialerako eta hezkuntzarako eskubideak, esaterako.

Bestalde, hizkuntza eskubide arrunten subjektua zein den argitu beharko genuke. Horretarako, zuzenbide eremutik kanpo sortu diren kontzeptu sozio-politikoak ditugu: hizkuntza komunitatea, talde etnolinguistikoa, eta abar.

Egundaino nazioartean garatu diren hitzarmen eta itunak hizkuntzen arteko desberdintasunak edo mailaketak nabarmentzen saiatu dira: hizkuntza ofizialak, lurraldekoak, gutxiengoen hizkuntzak, eta abar. Hizkuntza komunitate kontzeptuak, aldiz, hori gainditu eta muga politiko, administratibo eta ekonomiko guztietatik at dagoen subjektua definitzen du.

Baina lurralde batean bestelako hizkuntza-kolektiboak ere izaten dira, euren hizkuntza bertan berezkoa izan ez arren. Halakoxeak dira immigrazioaren ondorioak sorturiko gutxiengo exolinguistikoak.

Hizkuntza eskubideen atalari galdera batez eman zion amaiera Mariok: zer gertatzen berezko talde etnokulturalari hizkuntza eskubiderik onartzen ez zaionean, edo eskubideak bermatzen ez direnean, Euskal Herrian gertatzen den moduan?

**Immigrazioari buruzko politikak**

Maila praktikoan kultura integrazioaz mintzo garenean, bi ardatz hauek izaten ditugu gogoan:

1) Etorkinek helduera gizartearen identitate kulturala eurenganatzea.
2) Helduera gizarte den horrek beraien identitate kulturala onartzea.

Euskal gizartean aurreko eskema korapilatsuagoa da, identitatearen inguruan dagoen gatazka dela medio: berezko talde etnokulturala eta estatuen artean dagoen identitate gatazka, identitate kultural baten egoera gutxiagotua, aurreko immigrazio prozesuen eragina, eta abar.

Bi ardatz: 1) Etorkinek helduera gizartearen identitate kulturala bereganatzea, 2) Helduera gizarte den horrek beraien identitate kulturala onartzea.

Euskara mintzagai izanik, gogora bedi euskararen eremu historikoaren zati handi batean hizkuntzak oraindik ez duela inolako ofizialtasunik. Eta beste eremuan, errekonozimendua izanik ere, hauek ez daudela beti bermaturik, egoera diglosikoa nagusi dela.

Ikuspuntu linguistiko hertsi batetik, herritar gehienentzat gizartearen konbergentzia hizkuntza botereak nagusi bilakarazi dituen hizkuntzak dira –gaztelania eta frantsesa, alegia–, eta horiexek izan behar dute etorkinen konbergentzia hizkuntzak ere.

Hala ere, gurean bezala egoera gutxiagotua dagoen talde etnokulturalaren kasuan hizkuntzak duen funtzio sin-





bolikoa ezagutzatik hara doa. Hizkuntzarekiko atxikimendua ez da mugatzen definitzen ohi den hizkuntza-komunitatearen definizio hertsian.

Horren arabera, herritar gehienek euskara ezagutu ez arren, gehiengoak horrekiko atxikimenduak adierazten du, hizkuntzak konbergentzia eta kohesio sozialaren funtzioa duelarik. Ildo horretatik, etorkinei ongi azaldu behar zaie euskarak integrazioari begira –beren seme-alaben etorkizunari begira, bereziki – betetzen ahal duen funtzio garrantzitsua.

Ez luke zertan arazorik egon behar etorkinen hizkuntzen errekonozimendua egiteko.

Integrazioaren bigarren ardatzari dagokionez, ez luke zertan arazorik egon etorkinen hizkuntzen errekonozimendua egiteko. Are gutxiago, kontuan hartzen baldin badugu gutxiagotua dagoen talde etnokultural batek, berez, sentiberatasun handiagoa agertu ohi duela horrelako egoerekiko eta horixe dela, hain zuzen, euskaldunon kasua. Arazorik ez luke egon behar, betiere gutxiagotutako kultura kaltetua suertatzen ez den bitartean.

**Egoeraren azterketa**

Behin oinarri teorikoak finkatutakoan, euskara eta etorkinen integrazioa zertan den euskalgintzaren ikuspegitik aztertzeari ekin zion Mario Zapata soziolinguistak, horretarako AMIA motako azterketa batez baliaturik. Ezinezkoa dugu puntu guztiak hona aldatzea, baina, hala ere, atal bakoitzetik hiruzpalau puntu hautatuko ditugu, egoera gaingiroki aurkezteko xedeaz.

**Indarrak**

- Euskalgintzak dituen osaera anizkuna eta eragin soziala.
- Euskalgintzak herri ekimenetan dituen tradizioa eta dinamismoa.
- Abian dauden hainbat ekimen: helduen euskalduntzea.
- Gure diasporak beti agertu izan duen kultura fideltasunaz euskalgintzak duen balorazioa.

**Ahuleziak**

- Euskalgintzako eragileen aldetik hausnarketa estrategikorik ez izatea.
- Gaiaren inguruko informazio eta prestakuntzarik eza.
- Egiturazko ezintasuna Euskal Herri osoan eragiteko.
- Immigrazioaren inguruan lan egiten duten taldeekin, oro har, harreman sendorik eta iraunkorrik ez izatea.

**Aukerak**

- Etorkin gehienen gogoa gure gizartean integratuak daudela sentitzeko.
- Etorkinek beren elkarteak izatea (harremanak eta erreferentzialtasuna).
- Administrazio maila batzuetan euskara bultzatzeko dagoen jarrera ona.
- Jatorri batzuetako etorkinen eleaniztasuna (eleaniztasunaren kultura).
- Eragile erreferentzialak izan daitezkeen etorkinak (bere burua euskaldundu duten etorkinak).

**Mehatxuak**

- Euskarak duen ofizialtasun aitorpen gabeziak eta eskubideen berme eza.
- Euskarak pairatzen duen egoera gutxituaren ondorioz, estatuen identitateek duten indarra. Egoera diglosikoa.
- Euskararen inguruan erabateko kohesio sozialik ez izatea. Sektore batzuetatik bultzatzen den euskararen estigmatizazio negatiboa (euskara=arazoak, arriskua).
- Immigrazioaren inguruan hedatzen diren aurreiritzi negatiboak.
- Egoera prekarioan dauden etorkin askoren arazoak (legalak, ekonomikoak, sozialak,…).





# Kolektiboen eta nazioen hizkuntza eskubideak

**Julen Zabalo eta Iker Iraola (UPV - EHU)**

Julen Zabalok eta Iker Iraolak beren komunikazioan politikaren alderditik begiratu zioten immigrazioa eta hizkuntza eskubideen gaiari. Hizkuntza aniztasunaren aurrean estatu erdirakoiek, estatu autonomikoek eta estatu polietnikoek zelan jokatzen duten aztertu eta gero, euskal eta espainiar nazionalismoek hizkuntza eskubideen afera nola hartzen duten azaltzeari ekin zioten.
Hasieran adierazi zutenez, honelako eztabaidak planteatzen direnean, gaztelania eta frantsesa ez dira eztabaidagai izaten. Izan ere, biek estatu banaren bermea dute, eta estatuen hizkuntza zalantzan jartzerik ez dagoela pentsatu ohi da. “Arazoa” estaturik ez duten hizkuntzekin gertatu ohi da, eta hor euskara eta etorkinen hizkuntzak sartzen dira.
Hiru estatu motak –erdirakoiak, autonomikoak eta polietnikoak– bereizi eta beraien ezaugarriak eman ondoren, hauxe esan zuten, ondorio modura: estatuek planteamendu argia egiten dute honetaz. Lurraldeko biztanleen arteko komunikazioa errazteko eta beraien artean izan litezkeen bereizkeriak saihesteko asmoz, lotura lana egingo duen hizkuntza bat behar-beharrezkoa dela diote. Horrela begiratuta, estatuko hizkuntza denek ikastea eta erabiltzea zerbait positibotzat jotzen da, biztanleak berdindu egiten ditu eta.
Baina egia ere bada, noski, inposaketa gisa ere uler daitekeela hizkuntza hori ikasi beharra.
Euskal Herrira etorrita, estatuetako hizkuntzen kasuan ez bezala, ofizialtasunak gurean ez du esan nahi biztanle guztiek ezinbestean euskara jakin behar dutenik, eta hori eztabaida eta gatazka askoren sorburu da. Alderantzizko kasuan, estatuen kasuan alegia, biztanleren bati estatuko hizkuntza irakasten ez zaionean, diskriminazioaz hitz egiten da berehala; gurean, berriz, zenbaitetan euskara ikasi beharra diskriminaziotzat jotzen da.
Etorkinen hizkuntzez esan behar da maila pribatuko aitorpena ematen zaiela, baina horrek ez dakar inondik ere eskubiderik berekin. Eskubideen aitormenik ezak, belaunaldiak igaro ahala, etorkinen hizkuntzen galera ekarri ohi du. Lehen belaunaldiko jendeak ondo atxikitzen du bere jatorrizko hizkuntza; bigarren belaunaldiak, aldiz, gaitasun urriagoa du bere hizkuntzan eta ondo menderatzen du etorrera herriko hizkuntza; eta hirugarren belaunaldikoek sarri askotan galdua izaten dute aitona-amonen hizkuntza.
Edonola ere, lurralde batean denbora luzea daraman eta bere jatorrizko hizkuntza gorde duen talde batek ez ote luke bere hizkuntzarentzat estatus ofizialik eskatzeko eskubiderik izan behar? Galdera honi Laponceren aipu batez erantzun zioten Julenek eta Ikerrek.

Lurralde batean denbora luzea daraman eta bere jatorrizko hizkuntza gorde duen talde batek ez ote luke bere hizkuntzarentzat estatus ofizialik eskatzeko eskubiderik izan behar?

Laponcek pertsona eta lurralde mailako hizkuntza eskubideak bereizten ditu. Pertsona mailako soluzioa gizabanakoari berari aitortzen zaizkion eskubideetan oinarritzen da.
Baldintza batzuk beteta, pertsona ororen hizkuntza babestu beharra dago, hiztun eta hizkuntza horiek edonon kokatuak daudela ere. Lurralde mailako irtenbidean, aldiz, mugak ezartzen dira lurralde batean eta lurralde bakoitzari hizkuntza baten nagusitasuna onartzen zaio, gainerakoen kalterako. Kasu batean zein bestean, hizkuntza eskubideak lehia politikoan sartzen dira.
Jarraian, Euskal Herrian diharduten nazionalismo desberdinek gai honetaz dituzten jarrerak azaltzen hasi ziren. Euskal nazionalismoaren ikuspegitik, euskarak eremu publikoko hizkuntza izan beharko luke; hortaz, komunitate desberdinen arteko zubia litzateke, nazio hizkuntzaren eginkizuna betez. Bestela esanda, euskal nazionalismoaren ustean, “estatuaren hizkuntza” euskarak izan behar du. Hau guztia, beti ere, euskal nazionalismoaren planteamendu teorikoari so eginez.
Etorkinak direla eta, alderdi abertzale guztien diskurtsoan haien identitatea aitortzen da, baina, zehaztapenetan sakondu ahala, definizio maila desberdinak antzematen dira. EAJrentzat, esaterako, etorkinen lege eta gizarte egoera kontuan hartuz, hizkuntzarena ez da premiazko afera. Batasuna alderdia da arlo honetan zehaztapen handiena erakusten duena; beraien ustez, etorkinen identitate etnolinguistikoa maila publikoan ere aitortu beharko litzateke. Nolanahi ere, asmoak asmo, arazo larri bat azaltzen zaie alderdi abertzaleei: euskara gaur egun ez da eremu publikoko hizkuntza nagusia eta, beraz, ezin du osoki bete nazio hizkuntzaren eginkizuna.





Bestalde, alderdi abertzaleak jakitun dira beren jarraitzaileek immigrazioa euskararentzat kaltegarri gerta daitekeela uste dutela. Hala eta guztiz ere, arazo honen larritasuna erlatibizaturik geratzen da, euskararentzat larriagoa den beste arazo batek estaltzen duelako: ez dira etorkinak euskara ez dakiten bakarrak.

Egoera konplexu honetan, etorkinen hizkuntzak aitortzearen alde egiten euskal nazionalismoak. Baina ideia horretan sakonduz gero, aitortzeak erabilera publikoa esan nahi du, eta hortik garrantzi handiko galdera bat sortzen da: zein hizkuntzari kenduko liokete etorkinen hizkuntzek tartea: gaztelaniari, frantsesari ala euskarari?

> Zein hizkuntzari kenduko liokete etorkinen hizkuntzek tartea: gaztelaniari, frantsesari ala euskarari?

Etorkizunean horrelako egoera batera helduko bagina eta etorkinek beren hizkuntza eskubideak aldarrikatuko balituzte, euskal nazionalismoak, euskararen eremuak babestera joko luke, eta horrek hizkuntza gatazkak sorraraz litzake.

Espainiar nazionalismoari dagokionez, badirudi PP alderdiak ez duela gai hau ezertarako ere kontuan hartzen. Hizkuntzaz zein kulturaz eginiko aipamen guztietan, gaztelania jakiteko beharra azpimarratzen du, etorkinen hizkuntzei buruz ezertxo ere esan gabe. PSE alderdiak, aldiz, zenbait erreferentzia egiten du etorkinen kulturaz, baina berauen hizkuntzek eta kulturek maila publikoan onarpenik izan beharko ote luketen argitu gabe. Ezker Batua alderdiak bere idatzietan nolabaiteko aitorpena dakar etorkinen kulturez eta hizkuntzez, eta integrazioaz hitz egiterakoan, integrazio horrek noranzko bikoa izan beharko lukeela dio.

Alderaketa txiki honekin bukatzeko, Julenek eta Ikerrek adierazi zuten, bereizketarik egitekotan, ezker-eskuin ardatzean egin litezkeela bereizketarik nabarienak, ezkerreko alderdiek askoz joera zabalagoa agertzen baitute hizkuntza eskubideak aitortzeko orduan. Eskuineko alderdietan, ordea, jarrera hertsiagoak sumatzen dira.

Ondorio gisa eta hasierako galderara itzuliz, Julenek eta Ikerrek ondokoa planteatu zuten: etorkinen hizkuntza eskubideak onartu behar dira (bai eskubideen ikuspegitik eta baita integrazioaren aldetik ere), baina horretarako bi baldintza zehaztu beharko lirateke. Batetik, etorkinen beraien eskaera izatea, eta bestetik, etorkin kopuru nahikoa izatea. Zehazteko zailak diren bi baldintza, beraz.

Aurrekoarekin batera, harrera herriaren ikuspegitik, irtenbide aproposena etorkinak euskaraz eta gaztelaniaz nahiz frantsesez heztea litzateke, horrela etorkinen auzia nazionalismoen arteko lehiatik atereaz eta etorkinekiko balizko errezeloak ekidinez.





# Immigrazioa eta eskubide linguistikoak

**Xabier Zabaltza (UPV - EHU)**[1]

"Bizi naizen auzotik atera gabe, mundu osoa ikusten ahal dut: txinatar jatetxe bat, eslaviar produktuen denda bat, Saharaz hegoaldeko familia baten telefono mintzaleku bat, turkiar elikagai postu bat, … Ez du zerikusirik haurtzaroan ezagutu nuenarekin. Egun batzuetan maizago entzuten ditut etorkin horien hizkuntzak, euskara baino. Nafarroako herri askotan gehiago dira arabieraz edo errumanieraz mintzatzen direnak, euskaraz mintzatzen direnak baino. Gustatu edo ez, errealitate berri hau saihestezina da eta nazioak eta estatuak gainditzen ditu".

Honelaxe hasten da Xabier Zabaltzak lan jardunaldi honetarako prestaturiko komunikazioa. Autoreak bilkurara etortzerik izan ez zuenez, jardunaldiaren antolatzaileek bertan egin zuten Xabierren lanaren sintesia, honi darraizkion lerroetan egiten saiatu garena, hain zuzen.

Xabierren aburuz, XIX. mendeko eta XX. mendearen lehen erdialdeko dogma batzuk ("independentzia ", "subiranotasuna ", "elebakartasuna", …) zaharkiturik daude, eta XXI. mendean apaltasunez aitortu behar dugu oraindik ez dugula haien ordezkorik asmatu.

Globalizazioarekin eta Europaren eraikuntzarekin batera, immigrazioa da hirugarren gakoa mundu berrian. Baina nola begiratu behar diogu immigrazio uhin berriari? Xabierren irudiko, beldurrak, katastrofismoak eta ezikusiarena egiteak ez dakarte onik begirada horretan.

Agian, historialariei galdetu beharko genieke, atzera begira dauden profetak direnez gero, eta historialari horiek segur aski gogoraraziko ligukete euskaldunoi gure arbasoak ere emigranteak izan zirela eta ez zirela sobera kezkatu helmugako herrietako bizilagunen hizkuntza eskubideez.

Ez dago errezeta magikorik immigrazioaren aurrean. Alde batetik, etorkinak behar ditugu, gure ongizateari eusteko, baina, bestetik, etorkin asko oso urrun daude gure pentsamoldeetatik; eta horrek gatazkak sorraraz ditzake batzuen eta besteen artean, modu baketsuan bideratu behar diren gatazkak, jakina. Legezko zein legez kanpoko immigrazioen inguruan sortzen diren problemek Lehen Mundu osoa astintzen dute. Ez eskuinak eta ez ezkerrak, ez nazionalismo estatudunek eta ez nazionalismo estatu gabeek, ez dute panazearik.

Nafarroako herri askotan gehiago dira arabieraz edo errumanieraz mintzatzen direnak, euskaraz mintzatzen direnak baino. Gustatu edo ez, errealitate berri hau saihestezina da eta nazioak eta estatuak gainditzen ditu.

Galdera da nola uztartu ahal ditugun euskararen iraupena eta erdal herrietatik datozen pertsonen eskubideak; nola uztartu ahal ditugun ikuspegi aurrerakoi batetik, *apartheidik* eta *ghettorik* egin gabe. Xabierrek uste du Letonia eta Estoniako ereduak guztiz baztertzekoak direla, Bi estatu horietan herritarrei herritartasuna ukatu egiten zaie, letonieraz edo estonieraz dakitela frogatu arte. Euskal Herrian eredu suizida litzateke hori, alde batetik, euskaldunak gutxiengoa direlako toki askotan eta, bestetik, ezin zaielako eskatu kanpotik datozenei hemen jaioak direnei eskatzen ez zaiena.

Gainera, ezin da iragarpen zehatzik egin immigrazioak hizkuntzen bilakaeran izango duen eraginaz. Amerikako lehen biztanleen mintzaira asko desagertu ziren europar kolonizazioaren ondorioz, baina gaur egun Paraguaiko herritar gehienek guaranieraz egiten dute eta hiztun horietako asko zuriak dira.

Dena den, estatuek immigrazioa arautu egin behar dute, arautu ezean, oihaneko legea izango baita nagusi herrialde hartzaileetan, lehenik eta behin, etorkinentzat berentzat. Immigrazioa kontrolatzeak ez du esan nahi, ezta gutxiago ere, etorkinei oinarrizko eskubide guztiak aitortu behar ez zaizkienik (osasungintza, hezkuntza, etxebizitza, …). Xabierren iritzian, hizkuntza eskubideak, ordea, ez dira oinarrizko eskubideak, eta gure hizkuntza eskubideak eta etorkinen oinarrizko eskubideak inoiz bateragarriak ez balira, haien oinarrizko eskubideak lehenetsi beharko lirateke. Alabaina, lehia gure eta haien hizkuntza eskubideen artekoa balitz, gureek izan beharko lukete lehentasuna.

1. Xabier Zabaltzak ezin izan zuen lan jardunaldian parte hartu, baina bere testua bertan irakurri eta eztabaidatu zen, beste egileen lanekin egin zen modura.



Bestalde, orain arteko diglosia tipikoa –gaztelania eta frantsesa goian eta euskara bakarrik behean – agortuta dago. Orain maila berriak agertu dira: etorkinen hizkuntzak –ehun baino gehiago Euskal Herrian– euskararen azpitik eta ingeles guztiahalduna gaztelaniaren eta frantsesaren gainetik. Honezkero, Frantziako Iraultzaren garaiko "hizkuntza bat, lurralde bat, lege bat" leloak ez du inolako zentzurik.

Edonola ere, Xabier baikor azaltzen da etorkizunaz. Berak dioenez, euskarak ehunka urtez erakutsi digu bizitzeko gaitasuna duela, inolako onarpen administratiborik gabe eta maiz bi estatu eta bi estatu horietako eliteak (Euskal Herrikoak barne) kontra izanik ere. Etorkinek entzuten dutena ikasiko dute. Kalean euskara entzuten bada, euskara ikasiko dute. Erdara entzuten badute, erdara ikasiko dute.

Euskarak aurrera egiteko lehen baldintza ametsak eta errealitatea bereizten jakitea da. Erdara baizik hitz egiten ez den tokietan etorkinek euskaraz hitz egingo dutela pentsatzea ametsa da, adibidez. Bestalde, Irlandako kasua kontra eredua da euskararentzat. Gure muga eta eragozpenez konturatu behar dugu behingoz.

Immigrazioa geldiezina da. Gustatu zein gustatu ez, hemendik lasterrera etorkinak gero eta gehiago izango dira. Nazionalismo politikoak XIX. mendean sortu ziren eta ez dute egoera honetarako balio. Oraindik agertzeke dagoen paradigma baten beharra daukagu. Gizabanakoen eta giza taldeen aukera nazional eta linguistikoak errespetatuko dituen paradigma baten beharra.

Nazionalismo politikoak gaindituak badira, estatu nazionalismoak ere bai, noski. Aski da Europatik irtetea berehala konturatzeko gaur egun ez dagoela alde handirik Espainiaren eta Italiaren artean edo Frantziaren eta Alemaniaren artean.

Azken finean, hizkuntza gorabehera, Lehen Munduko herrien artean ez dago alde handirik. Autoreak, behintzat, ez du ikusten. Alde nagusia Lehen Munduaren eta Hirugarren Munduaren artekoa da, "hizkuntza eskubideak"- eta aldarrikatzen ditugunon eta eskubide horiek amestu ere egiten ez dituztenen artekoa, alegia.

Oraindik agertzeke dagoen paradigma baten beharra daukagu. Gizabanakoen eta giza taldeen aukera nazional eta linguistikoak errespetatuko dituen paradigma baten beharra.





# Begiratu bat orbitatik

**David Anaut (idazlea)**

Benetan begiratu orijinala hautatu zuen David Anautek “Euskara, immigrazioa eta hizkuntza eskubideak” gaiari so egiteko, orbitatik begiratzea erabaki baitzuen. Hona zeri deitzen dion berak orbitatik begiratzea.

**Begiratu bat orbitatik**
Gai honetaz gogoetan hasten delarik, batzuetan orbitatik begiratzen duelako irudipena izaten duela dio Davidek, hau da, gaiaren inguruan jira-biraka dabilela, baina sekula ere erdigunera iritsi gabe. “Etorkin” hitza euskalgintzako bileretan askotan entzundako hitza da, beti zerbait egin nahian, baina zer egin behar den zehazki jakin gabe.

**Ekuazio berria**
Langaiak eta aztergaiak sailkatzerakoan, honelako ekuazioak erabiltzen dira euskalgintzan: “hezkuntza eta euskara”, “hedabideak eta euskara”, “lan mundua eta euskara”, … Azken aspaldion “etorkinak eta euskara” ekuazioa ere erabiltzen dute, noski, baina, aurrekoetan ez bezala, honetan ez dute ekuazioaren bi elementuetako bat behar bezala ezagutzen. “Etorkin” elementua arrotz gertatzen zaio jende askotxori oraindik; ezin diote ez aurpegirik, ez izen-abizenik, ez bizipenik jarri.
Honek zenbait galdera iradokitzen dizkio Davidi: Nolako hurbiltasuna eta lotura dugu etorkinekin? Jar al gaitezke haien lekuan? Ba al dakigu zerk batzen eta banatzen gaituen? Gai honi begiratzeko, eta are gehiago lantzeko, ezinbestekoa dirudi ezagutza hori izateak. Egia da euskalgintzako kideek euskara eta immigrazioaren arteko harremanak aztertzeko hitzaldiak, jardunaldiak eta mintegiak antolatu dituztela, eta bai hainbat txosten eta artikulu irakurri ere. Ahalegin horren ondorioz, immigrazioari buruzko zenbait kontzeptu teoriko ezagutzeko aukera izan dute, baina urrunago joan gabe. Egoera hau azaltze aldera, Leitza aldean erabili ohi den esaera zahar bat aipatu du Davidek: “Letraduak badaki, probatuak hobeki”, alegia, txostenak irakurri dituzte, hitzaldiak antolatu ere bai eta gutxienezko ezaguera teorikoa ere badute, baina ez dakite etorkina izatea zer den.

**Immigrazioa: etorkinak, 110 mundu?**
Daviden irudiko, “etorkin” hitza erabiltzen dugunean, ez dugu subjektu bakar bat izendatzen, asko baizik. Hitz egin al dezakegu gazteei buruz? Eta emakumeei buruz? Izen beraren azpian gorde al daitezke hainbeste identitate?
Dirudienez, 110 hizkuntza entzun omen daitezke gaur egun Euskal Herrian. Esan ohi da hizkuntza bakoitzak mundua ikusteko era bat islatzen duela bere baitan. Hala bada, “etorkinak” deitzen dugun kolektibo horretan, gutxienez, 110 mundu ikuskera ditugu. Davidek uste du etorkinekiko daukagun joera berdintzailea izaten dela sarritan eta joera hori erabat saihestu beharko genukeela.

> “Etorkinak” deitzen dugun kolektibo horretan, gutxienez, 110 mundu ikuskera ditugu. Etorkinekiko daukagun joera berdintzailea izaten da sarritan eta joera hori erabat saihestu beharko genuke.

**Euskara: berreskurapenaren 0 kilometroa**
Ekuazioaren bigarren elementua euskara dugu. Gaia ezin da ongi aztertu, euskara ahaztuta eta bere testuingurua bazterrera utzita. Hauxe da, laburki emanik, euskararen testuingurua:

- Euskal Herrian bertako hizkuntza minorizatu bat dago: euskara.
- Euskara berreskuratzeko prozesu bat abian dago, bere argilun guztiekin bada ere.
- Berreskurapen prozesua abian bada ere, etorkizuna bermatua ez duen hizkuntza da euskara.

Hizkuntza politika oso batek –euskara ikasteko eta erabiltzeko aukerak eta arrazoiak emango lituzkeen politika batek– euskaldunduko gaitu denok, etorkinak eta etorkinak ez garenok. Izan ere, etorkinei, bertakoei bezala, hizkuntza eskubideak eskaintzeaz gainera, euskara ikasi eta erabiltzeko arrazoiak eskaini behar zaizkie. Eta hizkuntza politikaz ari garenean, ez gara dinamika normatibo eta egiturazko politika hutsaz ari, alderdi emozionalak eta afektiboak ere aintzat hartzen dituen prozesu zabal batez baizik.



**Hizkuntza eskubiderik ba ote?**

Eta hirugarren elementua: hizkuntza eskubideak. Huasnarketarako hiru puntu eman zituen Davidek:

- Ba ote dago hizkuntza eskubiderik? Badira honen inguruan zalantza handiak dituztenak. Autorea, hala ere, baiezkoan dago.
- Euskaldun jendeak, oro har, ez ditu bere hizkuntza eskubideak ezagutzen. Eta etorkinek? Ez dakigu ba ote dakiten zer diren, baina David ziur dago badakitela, ondo jakin ere, hizkuntza eskubiderik ez izatea zer den.
- Hizkuntza eskubideak bai. Eta hizkuntza betebeharrak? Euskara jakitea, esaterako. Hori ere planteatu behar al da? Daviden ustez, bai, baina hizkuntza eskubideen kasuan bezalaxe, ez soilik bertakoentzat edo ez soilik etorkinentzat, denontzat baizik.

Hizkuntza aniztasun horren kudeaketarako planteamendu baten beharra dago, ordea, batere arautu gabe utziz gero, jakina baita zer gertatuko den: hizkuntza nagusiak nagusiago eta gainerakoak gero eta murritzago. Zer filosofiaren gainean eraiki behar da, baina, planteamendu hori? Hizkuntza Eskubideen Aldarrikapen Unibertsalak (Bartzelona, 1996) jarraibide batzuk eskaintzen ditu. Aldarrikapen horretan, kasurako, *hizkuntza komunitatea* eta *hizkuntza taldea* bereizten dira. Hona zer diren:

- **Hizkuntza komunitatea:** "Edozein gizarte, historian zehar lur eremu zehatz batean –eremua errekonozitua izan ala ez– finkatua, bere burua herritzat duena eta hizkuntza komun bat garatu duena kideen arteko komunikazio naturalaren eta kultura kohesioaren bidetzat".
- **Hizkuntza taldea:** "Edozein giza talde, hizkuntza bera duena eta beste hizkuntza komunitate baten eremuan kokatua dagoena, azken honen adinako historikotasunik gabe; halakoak baitira etorkinak, errefuxiatuak, deportatuak eta diasporetako kideak".

Hizkuntza aniztasun horren kudeaketarako planteamendu baten beharra dago. Batere arautu gabe utziz gero, hizkuntza nagusiak nagusiago eta gainerakoak gero eta murritzago izango lirateke.

Aldarrikapenaren arabera, hizkuntza eskubideen maximuma hizkuntza komunitateak dauka bere lurraldean. Euskaldunok, bistan denez, hizkuntza komunitatea osatzen dugu Euskal Herrian. Hizkuntza taldeek ere eskubideak dituzte, baina beraiena lurraldeko berezko hizkuntza ez denez, ez lituzkete bertako hiztunen eskubide berberak izango. Nolanahi ere, aldarrikapenaren arabera, hizkuntza taldeek nazioartean aitortzen zaien baino goragoko maila izango lukete.

Bere komunikazioa bukatu aitzin, Davidek argi utzi nahi izan zuen, legeak eta arauak ezinbestekoak badira ere, benetako lana oraingoz etorkinengana hurbiltzea eta haiekin ikuspegiak eta bizipenak partekatzea dela. Hizkuntza gaitasun unibertsala den alderditik, bai etorkinek eta bai guk bai baititugu konexiorako eta kohesiorako bideak.





# Material gordin bat hizkuntzen ukipenerako

**Jon Sarasua (HUHEZI. Mondragon Unibertsitatea)**[1]

**Hondoari begiratu bat**

Modernitatea josi ezinik ibili da beti, ustez berak ekoiztu dituen baloreak josi ezinik.

Teoriak ipar jartzen hasita, askatasuna eta berdintasuna jarri zituen goiburu modernitateak, haurridetasunari emanez biok lotzearen ardura. Beste tasun batzuk labaindu egin zitzaizkion. Horien artean, nortasunarena. Nortasunaren gramatikarik ez dute ekoiztu ideologia modernoek, eta progresistak hala dabiltza oraindik, eskema zaharretatik gauza berriak ulertzeko malabarismo ideologikoak egiten.

Halako antz moduko bat hartzen die Jonek eleaniztasunaren inguruko planteamenduei. Berdintasunaren kontzeptu modernoan oraindik atxikirik, hor ari dira nortasunaren eta aniztasunaren emergentzia ideologikoki kudeatu nahirik.

Planteamendu akademiko eta ideologikoen putzua hondo gabekoa da, askorako ematen du, eta beti eduki dezakegu sentsazioa proposamen interesgarriak egiten ari garela, baina galdera da ea benetan sakontzen dugun sakondu behar den lekuraino eta ea etorkizun ikuspegi bizigarririk marrazten dugun.

**Minduraren soa ez da berdina**

Migrazioaren ondorioz gertatzen ari diren hizkuntza egoeren aurrean euskararen komunitateak badu begiratu propio bat izateko arrazoirik.

Hizkuntza indoeuropar handiak hedazaleak izan dira, hedapena izan dute amets, eta hedapena izan dute praktika. Hobeto zehaztuz, hizkuntza, nolabait, pentsamolde eta praktika hedatzaile honen dimentsio bat gehiago izan da, jardun militar, politiko eta gainerakoen baitan.

Hedapena amets izan beharrean, iraupena amets izan duen hizkuntza komunitatea dirudi gureak. Euskararen komunitateak ondare desberdina dauka. Euskararena iraupen, erresistentzia, porrot, nahasketa eta liseriketazko ondarea da eta beste emozionalitate batetik begiratzen ditu hizkuntzak. Ez da kasualitatea, nolabait esan, “ekologia” nozioaren inguruan biltzen diren planteamendu etikoak mamitzea euskalgintzaren munduan, aniztasunerako aportazio gisa gure gunea ekosistema moduan aurkezteko intuizioa eduki dutenak.

Aniztasunaren aldarria da euskararen eragileena. UNESCOren adierazpenaren muinean kokatuta, euskararentzako bizi deia hizkuntza guztientzako bizi deia da. Hau, teorian, “guay” da guztiontzat.

Diferentzia da euskaldunon kasuan esperientzia existentzial kolektiboak berak hori horrela bizitzetik gertu jartzen gaituela.

Hedapena amets izan beharrean, iraupena amets izan duen hizkuntza komunitatea dirudi gureak.

**Etika eta emozionalitatea**

Bizi lehian dabilenaren emozionalitate multzoa eta hegemonia duenaren emozionalitate multzoa ere ez da berdina. Eta horretan, euskararen komunitateak harrera modu desberdinak garatu ditzake etorkinen aurrean. Eta alarma modu desberdinak ere piztu ditzake. Harrera eta alarma modu desberdinak adibide banarekin azaldu zituen Jonek.

Harrera modu desberdinaren adibidea: duela urte batzuk euskararen inguruko ekitaldi batean ume beltz bat euskaraz kantatzen aritu zen eta horrek malkoak sorrarazi zituen ikusle batzuengan. Jonek dioenez, frantziar edo espainiar bat ez lirateke hunkituko etorkin batek euren hizkuntzan kantatzeagatik.

Alarma moduaren adibidea: Joni berari gertatua. Taberna batean “bi garagardo” eskatuta, zerbitzariak “no entiendo” esan eta haserre antzean geratu zen, euskaraz eskatu ziotelako Aretxabaletan. Jonek dio neska hark indigena aurpegia zuela eta bere arbasoei espainiera inposatu zietela. Orain hemen “baztertua” dago ekonomikoki, baina kulturalki gaztelaniaz eskatu beharra inposatzeko gai da. Beraz, “sumisio linguistikoa” Jonena izan zen.

1. Jon Sarasuak ezin izan zuen lan jardunaldian parte hartu, baina bere testua bertan irakurri eta eztabaidatu zen, beste egileen lanekin egin zen modura.



## Material gordin bat hizkuntzen ukipenerako

**Nondik sortu**

Hegemonia erabatekoa ziurtatua duten hizkuntza komunitate erraldoietan, tolerablea da eleaniztasuna, multikulturalismoa eta horrelako teorizazioak produzitzen uztea talde akademikoei. Horretarako daude akademikoak, argitaratzeko, kongresuak egiteko eta gizarteaz gauzak esateko. Nahiko inofensiboa da teorizazioa. Gero eragile politiko, ekonomiko eta mediatikoek beren erara erabiliko dute produkzio hori. Eta gauza interesgarriak badaude, baina euskaldunontzat ezer gutxi, Jonen iritzian, hizkuntzen bizi espazioen eta bizi dinamiken gramatika bat ez dagoelako.

Zer espazio dagozkio euskarari bere jatorri lurraldean, bere lurralde bital txiki eta mugatu bakarrean?

**Gauden egoeratik**

Jonek uste du ez zaiola itzuri behar euskararen diagnostikoa egiteari. Honela ikusten du berak: gutxi dira gure artean hizkuntzaren eta nortasunaren bizi posibilitateak errigorez formulatzen ari diren egileak. Eta ikuspegi desberdinak daude. Badira diotenak berandu dela, handiegia dela hizkuntza komunitatearen egituraren arrakalamendua, sakonegia egindako kaltea. Badira ikuspegi eraikitzaileagoarekin formulatzen dutenak ere. Ez dago, ordea, errigore soziolinguistiko minimoa erakusten duten egileen artean ikuspegi bakar bat ere, egungo ereduarekin hizkuntzaren garapen osora begira etorkizun ikuspegi bizigarri batera goazela erakusten duenik.

**Galdera deserosoak**

Bere komunikazioaren azken atalean, han-hemen emanak, zer pentsatua ematen duten eta gaiaren alde politikoki ez hain polita erakusten duten galdera sorta hauek egiten ditu Jonek:

- Zer espazio dagozkio euskarari bere jatorri lurraldean, bere lurralde bital txiki eta mugatu bakarrean? Zer espazio dagozkie bi albo erdara handiei? Zertan eragiten dute migrazio prozesu berriek egoera desorekatu eta larri honetan? Zer espazio dagokie etorkinen jatorri hizkuntza askotarikoei?
- Hizkuntza bati badagokio lurralde esparru batean, beste hizkuntza batzuekin ukipenean egonik, funtzio hegemonikoak izatea? Funtzio hegemonikoak lurralde esparru batean ziurtatzen dituen funtziook garatzeko aukerarik gabe, hizkuntza batek bere konstante bitalak erreproduzitu ditzake?
- Gauza hauek eztabaidatzen ari garenok zer dakigu hizkuntzen heriotzaz eta errekuperazioen historiaz? Elebitasun sozial orekatua existitzen da? Existitu ezin bada, zein da euskal hizkuntza politikaren paradigmaren zorua? Munduan inoiz egon da eleaniztasun egoera ez-hegemonikorik?
- Galdera hauei erantzun gabe hitz egin daiteke kulturartekotasunaz Euskal Herrian?





# Partaideen iritzi eta iruzkinak

Atal honetan, lan jardunaldian aurkeztu ziren bederatzi komunikazioak entzunda, partaideek gai horien aurrean azaldutako iritzi eta iruzkin adierazgarrienetako batzuk bilduko ditugu. Gaiak zinez interesgarriak eta mamitsuak izan ziren eta berehala piztu zuten partaideen interesa. Uste izatekoa denez, egun bakarreko jardunean nekez jorra daitezke gai hauek guztiak behar bezainbesteko sakontasunez, baina, halaz guztiz, partaideen iruzkinek gogoeta eta lanerako bide ugari zabaldu zuten. Hona hemen, bada, haietako batzuk:

**Kulturaniztasuna ala kulturartekotasuna?**
Eztabaida polita sortu zen, terminologia dela eta. Zenbaiten ustez, zeharo sinonimo eta baliokidetzat hartu behar dira bi termino hauek, eta, erabili ere, halaxe erabiltzen ditugu bata zein bestea. Beste zenbaitek, ordea, zelanbaiteko maltzurkeria sumatzen du *kulturartekotasuna* hitzaren azpian –hots, kulturen *artekotasuna* ez dela egiazkoa eta bai, ordea, bakar baten nagusitasuna gainerako guztiekiko–, eta, horregatik, *kulturaniztasuna* hobesten du.

**Hizkuntzen ofizialtasuna**
Askoren iritzian, *ofizialtasun* kontzeptua tranpa hutsa da, hizkuntzei dagokienez. Aski dugu historiari begiratu arin bat ematea estatuek bertako gehiengo politiko, sozial edota ekonomikoaren hizkuntzaren nagusitasuna bortxaz ezartezko eta bermatzeko aitzakia besterik ez dela konturatzeko. Ofizialtasuna gainditu beharreko kontzeptua da, hizkuntza aniztasunari kalte egiten dionez gero. Honek ez du esan nahi hizkuntzetarako arautegirik egon behar ez denik, baina ofizialtasuna guztiz zaharkituta geratu da eta, hortaz, bide eta arau berriak asmatu behar ditugu.

**Euskalgintza eta hizkuntza aniztasuna**
Partaide batek adierazi zuen euskaldunoi bihotzak kulturaniztasuna babesteko eta sustatzeko esaten digula, gure hizkuntza-kulturen biziraupena defentsa horretan datzala jakinda. Egoera berri batean murgilduak gaude, baina zeharo galduta gabiltza, zer egin behar dugun edo zer egin dezakegun ez dakigula. Bakoitza bere aldetik ari da ahal duentxoa egiten, baina ez dago inolako plangintza orokorrik.

> Euskaldunoi bihotzak kulturaniztasuna babesteko eta sustatzeko esaten digu, gure hizkuntza-kulturen biziraupena defentsa horretan datzala jakinda.

**Gune elebakarrak**
Ofizialtasunak gorabehera, hizkuntza txikiek, beharbada, espazio libre eta osoak bilatu behar dituzte, hiztunek bertan beren beharrizanak garatu ahal izateko. Horrek ez du esan nahi, ezta gutxiago ere, hizkuntzak ghetto moduko batzuetara zokoratu behar direnik, gune elebakar erreferentzial horietan hiztunek funtzio guztiak beren hizkuntzan gauzatzeko aukera izango dutela baizik, beste hizkuntzekin gatazkan sartu gabe. Zenbait euskara elkartek horrelako ekimenak jarri dituzte abian hiri eta herri batzuetan eta oso emaitza onak lortu dituzte hiztunen autoestimaren aldetik eta hizkuntzaren normalizazioa eta komunitate zentzuaren aldetik.

**Gezurrezko berdintasuna**
Askotan aipatzen da hizkuntzen arteko berdintasuna. Maila guztietan sustatu behar omen da hizkuntzen berdintasuna: administrazioan, hezkuntzan, hedabideetan,… Horixe omen da gomendagarriena eta demokratikoena. Baina gauza jakina da egundaino ez dela inon ere benetako berdintasunik gauzatu hizkuntzen artean, ez dela inon ere benetako elebitasunik gauzatu. Inon ez dago bi hizkuntzatan bateratsu dabilen komunitaterik. Hizkuntza bakoitzak bere eremuak bereganatzen ditu eta bere funtzioak garatzen ditu eremu horietan. Ez dezagun gezurrezko berdintasunik proposa; ez diezazkiegun etorkin berriei euskararen gaitzak lepora, lehengo etorkinei euskararen atzerapena leporatu genien bezala. Euskara da Euskal Herriko berezko hizkuntza –*hizkuntza nazionala* esaten diote batzuek–, eta euskaldunoi dagokigu bera zaintzea, aniztasunaren barruan eta izenean.





**Hizkuntza “funtzionalak”**
Agustin Unzurrunzagak bere komunikazioan *hizkuntza funtzionalen* zerrenda bat eman zuen, etorkinen jatorrizko herrialdeetan nagusi eta ofizial diren eta, hortaz, eurak eskolatuak izan diren hizkuntzak izendatu guran. Hona datozelarik, etorkinak hizkuntza horietaz baliatzen dira maizenik hemengo jendearekiko harremanetan. Zenbait lagunek komentatu zuten deitura arriskutsua dela hori, era horretan jokatuta, hizkuntza nagusitu horiei, berez daukatenaz gain, beste estatus ofizial moduko bat ematen diegulako hemendik eta, bidenabar, etorkinen berezko hizkuntzei muzin egiten diegulako. Agustinek argi utzi zuen, hala ere, berak ez diola inolako atxikimendurik izen horri eta egiaz gertatzen dena nola edo hala izendatu beharraren ondorioa baino ez dela “funtzional” izenondoa.

**Udal ordenantzak**
Lagun batek galdetu zuen ea hizkuntza aniztasunaren aldeko praktikak onesten dituen ordenantzarik kaleratu ote den udalen batean. Baiezkoan, erreferente modura erabil liteke gainerako udaletan. UEMAko ordezkariak erantzun zion beren erakundearen estatutuetan berariaz aipatzen dela jende etorri berria integratzeko programak egin behar direla. Kontua da ordenantzena bide antzua dela, Estatuak den-denak errekurritzen dituelako. Dena den, arazoa saihestu nahi bada, ordenantzak barik, agian barne arautegiak egin litezke.

Zein ikastetxe? Zein eredu? Zein ikasgela? Zelan landuko ditugu eskolan haien berezitasunak? Zelan irakatsiko dizkiegu hemengo berezitasunak?

**Errolden beharra**
Arazo larria da etorkinei buruzko erroldena eta are larriagoa beraien hizkuntzei buruzko errolda fidagarririk eza. Bere jatorrizko hizkuntzaz galdetzen zaielarik, etorkin askok ez dute egia aitortzen, beren hizkuntza “behe mailakoa” delakoan. Nolabait esan, bere etniak, kulturak eta hizkuntzak nozitzen duten gutxiespena dela eta, etorkinak bere burua ukatzen du eta gezurrezko datuak ematen ditu erroldetan. Gauzak horrela, oso zaila da gertatzen da hizkuntza komunitate bakoitzak gurean zenbat hiztun duen jakitea. Alde horretatik, IKUSPEGIk eta UNESCO Etxeak etorkinen hizkuntzez egin berri duten katalogazio lana aurrerapauso handia izan da. Beharbada, galdeketak egiteko moduak aldatu eta findu egin behar dira, baina, hala ere, erroldak egiten jarraitu beharra dago, bestela ez baitugu sekula jakingo zein den errealitatea.

**Haur etorkinen kontzentrazioa zenbait ikastetxetan**
Egungo egunean gizartean susmoa dago haur etorkinen familiak ikastetxe mota batzuetara bideratzen direla berariaz, honek dakartzan arazo guztiekin (haur etorkinen larregizko kontzentrazioa, A ereduaren getizazio prozesua, …). Eusko Jaurlaritzako Hezkuntza Sailaren arduradun den Alberto Agirreazaldegik gogoratu egin zuen, Hezkuntza Sailburuaren esanetan, aurrerantzean ez dela %30etik gorako kontzentraziorik onartuko Erkidegoko ikastetxeetan. Nolanahi ere, zenbait partaideren iritziz, kontrolerako neurri zehatzagoak hartu beharko lirateke eskolatze batzordeen bitartez.

**Eta eskolatu ondoren zer?**
Goiko puntuari guztiz loturik, partaide batek argi utzi nahi izan zuen, bere ustez, gehiegi azpimarratzen dugula haur etorkinak non eskolatu behar ditugun. Zein ikastetxe? Zein eredu? Zein ikasgela? Beti gabiltza galdera horien inguruan, gauza berari behin eta berriro ekinez. Baina hori ez da garrantzikoena, eskolatu ondoren, haiekin zer egingo dugun baino. Beste galdera batzuk egin behar ditugu, zelan landuko ditugu eskolan haien berezitasunak?, zelan irakatsiko dizkiegu hemengo berezitasunak?, eta horrelako galdera mordoxka bat.

**Ikasle berantiarrak gaztelaniaz?**
Amelia Barquínek eta Uri Ruiz Bikandik beren komunikazioaren atal batean etorkin berantiarrek –eskolan 12 edo 13 urterekin abiatzen direnek, alegia– beren eskolaldi laburrean euskara eta gaztelania ikasteko dituzten zailtasunak aipatu zituzten. Haien ustez, denbora epe horretan nekez lortuko dute bi hizkuntzak ikastea, eta gehienen helburua lanean ahalbait lasterren hastea izaten denez, hobe genuke, beraz, lan egiteko eta gizartean moldatzeko gehien beharko duten hizkuntza irakastea, gaztelania, alegia. Egoera halakoa izanik, eskualde bakoitzean gaztelaniaz ibiliko litzatekeen institutu bat sortzea proposatu zuten. Proposamenaren aurkako iritzi asko azaldu ziren partaideen artean. Eta argudioak ugari izan ziren. Hona, labur-labur, haietako batzuk: gaztelania irakasle guztiek dakite eta, behar denean, guztiek erabiltzen dute –baita Azpeitian ere, irakasle partaide batek esan zuenez–; gaztelaniak, berez, ez du konponduko etorkinen eskola porrotaren arazoa, arazo horretan faktore asko daudelako, hizkuntzaz bestalde; euskarak, asko kostata, esparru polita eskuratu du irakaskuntzan eta hau atzerapauso nabaria izango litzateke.

**Nork ordainduko?**
Partaide batek hizkuntza aniztasunaren ekonomia ekarri zuen hizpidera. Izan ere, hizkuntza aniztasunaren kudeaketak hezkuntza sisteman kostu handiak izango lituzke (pertsonal berezia, irakasmaterialak, itzulpenak, …). Beraren ustez, ondo dago ideietan sakontzea eta proposamenak egitea, baina inoiz gauzatuko badira, oso kontuan hartu behar da haien kostua. Zenbat diru inbertitzeko prest gaude hizkuntza aniztasunean?

**Etorkinentzako harrera protokoloa**
Partaide guztiak bat etorri ziren askoz gauza gehiago egin daitekeela euskalgintzako sektorea etorkinengana hurbiltzeko, baina egia ere bada, Mario Zapatak ohartarazi zuenez, gauza batzuk eginda daudela dagoeneko, eta ondo eginda, gainera. Elorrion etorkinentzat prestatu duten harrera protokoloa aipatu zuen berak. Protokolo horretan era gozo eta atsegin batean euskararen berri ematen zaie etorkinei, euskaraz aurki dezaketen mundua deskribatzen zaie eta euskara ikasteko gonbidapena egiten zaie, euren kulturak eta hizkuntzak ezagutzeko nahia azaltzeaz batera.

Askoz gauza gehiago egin daiteke euskalgintzako sektorea etorkinengana hurbiltzeko.

**Planteamendu orokor eta partekatuen beharra**
Lan jardunaldian zehar ezkortasunerako eta baikortasunerako datuak agertu ziren. Hori bai, askoz gehiago baikortasunerakoak, ezkortasunerakoak baino. Jardunaldia bera, hizlari guztiek azaldutako gaiak, partaideek azaldutako iritziak eta iruzkinak eta elkarrengana bildu izana abiapuntu ezin hobeak dira aurretik dugun lanari ilusioz eta kemenez ekiteko. Partaide batzuek esan zutenez, agian protagonismo handiegia eman genion denon artean hezkuntzari eta beste arlo batzuk apur bat albora utzi genituen. Eta hezkuntzak arazoaren zati bat baino ezin izango luke konpondu; berea, noski. Beste batzuek esan zutenez, etorkinen beren partaidetza eskasa izan zen (agian oraindik “orbitatik” begira gaudelako, David Anautek ironiaz esan zigunez). Agian gai trinkoegiak izan ziren egun bakarrean irensteko eta honelako jardunaldi eta topaketa gehiago egin behar dugu, norbaitek iradoki zuenez. Eta agian xehetasunak eta ñabardurak alde batera utzi eta planteamendu orokor partekatuak egiten hasi behar dugu elkarrekin, beste norbaitek proposatu zuenez. Nolanahi den ere, ibiltzen hasiak gara, eta hori gauza handia da.

# ERANSKINA

Hitzaldi osoak





# Ideas para gestionar la diversidad lingüística

**Eduardo J. Ruiz Vieytez (Deustuko Unibertsitatea)**

**0 - INTRODUCCION**

Para abordar la cuestión de la diversidad lingüística en la sociedad vasca, trataré en primer lugar de establecer unos principios válidos que sirvan para guiar la actuación pública en esta materia. En segundo lugar, intentaré concretar estos principios en actuaciones concretas y factibles que permitan avanzar en su realización. La perspectiva a la hora de articular estas actuaciones quiere ser realista, a pesar de que algunas de las propuestas conlleven un considerable esfuerzo. Sin embargo se entiende que la realización de los principios anunciados en la primera parte no se consigue con las actuaciones de la segunda parte del documento, sino en una manera muy parcial. Los principios exigen una actitud muy decidida y deben impregnar del modo más profundo posible toda la actuación pública en cualquier campo.

**I - A NIVEL DE PRINCIPIOS**

Antes de plantearnos unos principios rectores de la actuación pública ante la creciente diversidad lingüística de la sociedad vasca, debemos reconocer que este ejercicio lo realizamos en el marco de una sociedad que, siendo lingüísticamente dual (al menos) está aún lejos de interiorizar suficientemente una cultura de bilingüismo. A pesar de que le marco normativo es casi igualitario, la actitud social es muy distante de dicha igualdad. Sin que una cultura de equilibrio en cuanto a la dignidad lingüística de las lenguas autóctonas exista, es poco probable conseguir resultados sustanciales respecto de otras lenguas que van a ser consideradas generalmente como lenguas exógenas o inmigradas.
Esto no obstante, podríamos establecer tres grandes principios o ideas-fuerza para acometer activamente esta realidad:

1) PRINCIPIO DE DIVERSIDAD

1.1.- Multiculturalismo: se plantea hacer una opción política expresa por el multiculturalismo como propuesta normativa, al estilo de Canadá o Australia. Puede sustituirse el término por el neologismo “interculturalismo”, siempre y cuando no se desvirtúe aquél en favor de un asimilacionismo encubierto o de un modelo de melting pot. En el caso que aquí nos ocupa, se traduciría en una opción a favor del multilingüismo. Más políticamente realista sería proclamar una suerte de multiculturalismo en un marco de bilingüismo, al estilo canadiense. Sin embargo, debe advertirse que este modelo así planteado no deja de ser contradictorio y exime la lengua de la opción por la pluralidad. La decisión a favor del multilingüismo no excluye necesariamente una opción preferencial por la lengua autóctona desfavorecida o por el mantenimiento de una suerte de oficialidad moderada de ambas. En cualquier caso, el posicionamiento político de las instituciones tendría al menos un valor simbólico innegable.
1.2.- Debe perseguirse ampliar, facilitar, fomentar la pluralidad y la diversidad lingüísticas, y nunca lo contrario. Se trata de combatir la asimilación como principio y como estrategia (FCNM). Ello no es incompatible con buscar la cohesión social o la integración, sino que precisamente ambas se realizan a través del respeto y promoción de la pluralidad y no de la uniformización.
1.3.- Es también importante que se aborde la cuestión de la creciente pluralidappd (lingüística, religiosa, cultural) desde la perspectiva política de la Diversidad y no desde la de la inmigración. De acuerdo a nuestro Plan de Inmigración, el principio de ciudadanía inclusiva basada en la residencia fáctica, así como la idea de ciudadanía plural, provoca que el fenómeno de la diversidad deba ser tratado como tal y no exclusivamente como resultado de la inmigración más o menos reciente. La perspectiva debe cambiar radicalmente, e incluso la ubicación institucional de estas políticas. Debemos evolucionar de la manera más rápida posible del ámbito de las políticas de gestión de la inmigración (que deben seguir existiendo) al de las políticas de gestión democrática de la diversidad, que deben cubrir numerosos campos sectoriales de actuación pública. Se trata de llevar a la práctica la idea de la democracia multicultural.

Sin que una cultura de equilibrio en cuanto a la dignidad lingüística exista, es poco probable conseguir resultados sustanciales respecto de otras lenguas que van a ser consideradas generalmente como lenguas exógenas o inmigradas.





1.4.- Antiuniformidad: desterrar del imaginario social e institucional la idea de que toda sociedad debe tener una lengua (o dos lenguas) común(es) para ser una sociedad cohesionada. En ningún caso es necesario que exista una única lengua en cada país del mundo para asegurar su cohesión. Al contrario, existen tanto sociedades perfectamente cohesionadas que son lingüísticamente plurales, como sociedades monolingües que distan mucho de ser pacíficas y cohesionadas. Las relaciones ciudadanas entre grupos lingüísticos son crecientes, pero también son crecientes los instrumentos de comunicación y las posibilidades de comunicación y transmisión cultural en la distancia. Ningún ciudadano o grupo social es capaz de relacionarse con el conjunto del país a lo largo de su vida. Debe educarse a la ciudadanía en la convicción de que la pluralidad lingüística no es merma de la cohesión, no representa ningún peligro y que existen medios para facilitar la comunicación entre grupos lingüísticos dentro de una misma sociedad. El bienestar espiritual y el acomodo de todas las personas a través de su identidad (y no a pesar de ella) es un elemento más importante que el hecho de conseguir uniformización lingüística, cultural, religiosa o identitaria.

Una interpretación abierta y multicultural de los derechos civiles básicos resulta en gran parte suficiente para acometer profundas reformas de aspectos en los que incide el pluralismo lingüístico.

2) PRINCIPIO DE LEGALIDAD

2.1.- Por principio de legalidad entendemos aquí la necesidad de adoptar estrategias y políticas de gestión democrática de la diversidad, dentro de un determinado ordenamiento jurídico, cuya alteración en este campo resulta difícil. Esto no obstante, el mismo ordenamiento ofrece instrumentos interesantes que permitiría desarrollar un buen número de actuaciones concretas a favor de una gestión democrática de la diversidad lingüística. En particular, determinados tratados internacionales y la reinterpretación de derechos resulta fundamental para avanzar sin necesidad de reformar sustancialmente la normativa vigente.
2.2.- Al mismo tiempo, respetando el principio de oficialidad de dos lenguas actualmente en vigor, se proponer modular esta oficialidad y abrir aspectos de la misma a otras lenguas existentes en nuestra sociedad. Se trata de asegurar el cumplimiento de la legalidad (por ejemplo, en cuanto a conocimiento de las dos lenguas oficiales de la CAPV y Navarra) ofreciendo oportunidades de participación e integración, no imponiendo ni forzando la uniformidad o la asimilación.
2.3.- Una interpretación abierta y multicultural de los derechos civiles básicos resulta en gran parte suficiente para acometer profundas reformas de aspectos en los que incide el pluralismo lingüístico. No se trata de inventar nuevos derechos lingüísticos o de reconocer tales derechos a nuevos colectivos, sino de descubrir los elementos lingüísticos de los derechos civiles ya reconocidos a todas las personas y de aplicarlos en consonancia con la pluralidad lingüística existente y no solo a través de las dos lenguas oficiales. Es clave en este sentido la aplicación a cada derecho de un parámetro de no discriminación en lo que toque a contenidos de carácter lingüístico.
2.4.- Cerrar la visión lingüística a la existencia de dos lenguas oficiales, es una opción política errónea, tanto para gestionar democráticamente la diversidad actual como para afrontar el futuro de la lengua oficial menor favorecida. Es necesario hacer pedagogía dentro y fuera de las instituciones para que el sistema de oficialidad no siga siendo un molde rígido que impide actuar de manera más abierta, imaginativa y cohesionadora.

3) PRINCIPIO DE PERMANENCIA

3.1.- Se trata de adoptar estrategias y actuaciones que puedan tener permanencia en el tiempo y que generen resultados en el largo plazo. No deben establecerse políticas cortoplacistas en este ámbito. Por todo lado, las medidas públicas inmediatas en materia de lenguas tienen una eficacia muy baja.
3.2.- En la misma línea se propone separar la gestión de la diversidad del debate político cotidiano. Aunque la propuesta es difícil de realizarse en determinadas materias más sensibles, debería intentarse un marco común de trabajo en torno a los valore citados más arriba, que quedara "blindado" del debate político partidario.

**II - A NIVEL DE POLÍTICAS PRACTICAS**

Para organizar las propuestas de actuaciones concretas que incluiré en este documento, seguiré la pauta establecida en la Carta Europea de las Lenguas Regionales o Minoritarias, en cuanto a los sectores de actuación que la misma incluye en su Parte III. Aunque dicho documento jurídico resulte de difícil aplicación en lo que aquí nos importa, la estructura que hace de las posibles medidas por sectores puede resultarnos extremadamente útil. Así, estableceré en primer





lugar lo que llamaré “actuaciones transversales”, que en realidad son instrumentales, para luego seguir el orden que establecen los artículos 8 a 14 de dicho documento internacional.

1) ACTUACIONES TRANSVERSALES

1.- Tratar de prestigiar todas las lenguas que se hablan en la comunidad, principalmente aquellas menos extendidas, el euskera y las lenguas no oficiales de los países de origen de los inmigrantes, a través de campañas de concienzación en los medios de comunicación, y del currículo educativo.
2.- Aplicar a todas las lenguas que se hablan en Euskadi y que tiene un número suficiente de hablantes, cuantas medidas resulten posibles dentro de la aplicación a las mismas de los dos instrumentos más relevantes del Consejo de Europa en la materia: la Carta Europea de las Lenguas Regionales o Minoritarias y el Convenio Marco para la Protección de las Minorías Nacionales.
3.- Realizar censos lingüísticos con carácter constante de los ciudadanos residentes en Euskadi, con los que se pueda determinar la fuerza numérica de cada lengua en nuestra sociedad y la evolución de las mismas con una determinada cadencia.
4.- Realizar estudios y análisis sorbe las dinámicas lingüísticas de toda la población en relación con el aprendizaje de las lenguas oficiales y con el desarrollo o perdida de las lenguas no oficiales. Estudiar en particular la adaptación y movilidad lingüística de las personas inmigrantes y de sus descendientes, así como las posibilidades de intercomprensión entre ellos y el resto de ciudadanos en determinadas lenguas.

2) EDUCACIÓN

15.- Promover la incorporación de los alumnos no vascoparlantes en modelos lingüísticos que faciliten la adquisición progresiva del euskera, sin inmersión total.
16.- Incluir en el currículo educativo espacios en los que pueda alterarse la lengua de impartición, en función de la demanda existente y de los recursos disponibles, Trabajar para incorporar progresivamente lenguas no oficiales en dichos espacios a través de la implicación de personas de las propias comunidades lingüísticas. Reforzar a los alumnos que conocen o reciben en su familia otras lenguas no oficiales, de los aspectos gramaticales y ortográficos básicos de sus lenguas en dichos espacios.
17.- Agrupar con base en la cercanía geográfica y en función de la demanda existente a los alumnos de otras comunidades lingüísticas, para facilitar los espacios educativos en dichas lenguas. Esto puede hacerse incluso agrupando alumnos de edades o grados diferentes, o que pertenezcan a grupos diferentes. No se trata de crear grupos o aulas específicos en función de la lengua, sino de su articulación en los espacios horarios y de materias reservados para ello, mientras el resto del alumnado sigue otros complementos de enseñanza.
18.- Diseñar e implantar una política tendente a formar pedagógicamente a miembros de las comunidades alógenas para su progresiva incorporación al apartado educativo como docentes o dinamizadores de los espacios educativos en otras lenguas.
19.- Permitir a los padres o tutores la asignación libre de los hijos a los respectivos grupos lingüísticos, a fin de evitar asimilaciones no deseadas ni de violentar la opción de asimilarse lingüísticamente. Los poderes públicos, en su política de prestigiar la pluralidad lingüística aconsejarán tanto la inserción en modelos educativos con acusada presencia del euskera, como en los espacios lingüísticos creados al servicio del respectivo idioma.
20.- Incorporar en el currículo educativo nociones sobre la pluralidad lingüística en el mundo, las diferencias entre familias lingüísticas y entre lenguas, los diferentes códigos culturales y elementos básicos de léxico de las lenguas más presentes en la sociedad vasca. Incorporar igualmente la enseñanza del manejo de los alfabetos más cercanos y prácticos, en particular el cirílico, el griego y, hasta donde sea posible, el árabe, a fin de que los alumnos puedan aprender a leer textos escritos en dichos alfabetos.
21.- Potenciar la elaboración (traducción) de materiales didácticos en las lenguas habladas en la sociedad. Bien directamente o bien fomentando y apoyando económicamente la elaboración de dichos materiales por las editoriales existentes o por nuevos grupos editoriales surgidos al amparo de la política de multilingüismo.
22.- Desarrollar y facilitar actividades extraescolares y complementarias realizadas en lenguas diferentes de las oficiales, en función de su presencia en los centros, e incluso agrupando alumnos de varios centros. Asegurar la presencia de dichas lenguas al menos para actividades puntuales de carácter anual en cada uno de los territorios históricos.
23.- Incentivar económicamente el trabajo educativo con minorías lingüísticas, mediante un complemento salarial.

> Tratar de prestigiar todas las lenguas que se hablan en la comunidad, principalmente aquellas menos extendidas, el euskera y las lenguas no oficiales de los países de origen de los inmigrantes.

24.- Incorporar progresivamente en las EPAs la enseñanza del euskera para la población adulta, e incluso de otras lenguas que presenten demanda suficiente.
25.- Reservar en las escuelas de magisterio puestos, y becas de estudio, para personas que acrediten tener como idioma materno, familiar o habitual una lengua diferente de las oficiales en la Unión Europea anterior a 2004.

Facilitar la presencia de personas pertenecientes a comunidades lingüísticas minoritarias en los órganos consultivos de índole económica, social o cultural.

3) JUSTICIA

26.- Asegurar la disposición de intérpretes para todos los procedimientos en los que sea necesario.
27.- Traducir y publicar los principales textos legales en varias de las lenguas no oficiales más extendidas.
28.- Publicar folletos informativos sobre los procedimientos y trámites judiciales más habituales, y habilitar dicha información en la página web de la administración de justicia en varias de las lenguas no oficiales más extendidas.
29.- Asegurar la atención al público en varias de las lenguas no oficiales más extendidas en los ámbitos de los registros civiles y de información básica, al menos en las capitales de territorios históricos.
30.- No inadmitir documentos o escritos por el hecho de estar redactados en lenguas no oficiales. Facilitar la traducción de los mismos.

4) ADMINISTRACIÓN PUBLICA

31.- Facilitar teléfonos de interpretación en el mayor número posible de lenguas para los trámites administrativos más urgentes o habituales.
32.- Traducir los folletos y carteles informativos sorbe la administración y sus trámites a las lenguas no oficiales más extendidas.
33.- Respetar en lo posible los nombres propios en otras lenguas y sus grafías, acompañándolas, en su caso, de la grafía latina.
34.- Valorar el conocimiento de las lenguas no oficiales más extendidas en cada momento en nuestra comunidad como méritos puntuables en el acceso a las funciones públicas.
35.- Facilitar la cobertura de puestos administrativos de atención al público por personal multilingüe.
36.- En municipios de acusada presencia de miembros de una determinada comunidad lingüística, facilitar el mayor número de servicios posibles en dicha lengua, en su caso, a través de servicios de traducciones.
37.- Diseñar e implantar una política tendente a incorporar progresivamente a las administraciones públicas a personas pertenecientes de comunidades lingüísticas minoritarias.
38.- No inadmitir documentos o escritos por el hecho de estar redactados en lenguas no oficiales. Facilitar la traducción de los mismos.
39.- Crear una unidad administrativa (dirección) para fomentar y planificar la gestión democrática de la diversidad lingüística (cultural) en los diferentes niveles gubernamentales (autonómico y forales).

5) MASS MEDIA

40.- Facilitar mediante la actividad de fomento la creación, mantenimiento y difusión de medios de comunicación que emitan parte de su programación en lenguas no oficiales con un número mínimo de hablantes en la Comunidad.
41.- Incrementar la programación en lenguas no oficiales en los medios de comunicación de titularidad pública, incrementando los canales de emisión, haciendo uso de la televisión digital, utilizando sistema de doblaje simultáneo, etc.
42.- Facilitar a las comunidades lingüísticas minoritarias la recepción de medios de comunicación extranjeros que emitan en las lenguas no oficiales más habladas en la sociedad vasca.
43.- Posibilitar la presencia de personas pertenecientes a comunidades lingüísticas minoritarias en los órganos de control de los medios de comunicación de titularidad pública.

6) ACTIVIDADES CULTURALES

44.- Facilitar y fomentar la producción literaria, artística y editorial en las lenguas no oficiales más extendidas
45.- Facilitar y fomentar la traducción de las obras literarias vascas, así como de cualquier otro producto cultural vasco susceptible de traducción a las lenguas no oficiales más extendidas.

7) VIDA ECONOMICA Y SOCIAL

46.- Fomentar el diseño y ejecución por parte de las empresas y organizaciones sociales de planes de desarrollo del plurilinguismo, en particular la prestación de servicios en otras lenguas.
47.- Valorar la prestación de servicios en un mayor

número de lenguas a la hora de decidir las concesiones administrativas o emisiones de licencias.

48.- Facilitar la presencia de personas pertenecientes a comunidades lingüísticas minoritarias en los órganos consultivos de índole económica, social o cultural.

49.- Asegurar que las empresas facilitan la información a los consumidores, en especial las normas relativas a seguridad, en el mayor número posible de las lenguas que se hablan en la comunidad.

8) INTERCAMBIOS TRANSFRONTERIZOS

50.- Facilitar y fomentar el mantenimiento y consolidación de contactos de índole cultural entre grupos, asociaciones, fundaciones u otras entidades sin ánimo de lucro que representen o defiendan los intereses de personas hablantes de lenguas no oficiales con otras entidades similares en otros países con los que comparten dicha lengua, o incluso con las autoridades publicas de los mismos.



# ¿Qué hacemos con la pluralidad lingüística realmente existente?

**Agustín Unzurrunzaga (SOS Arrazakeria)**

Lo que va a continuación es un resumen de otro texto. No pretendo llegar a ninguna conclusión. Más bien señalar ideas y problemas.

**1. Mi idea es la de hacer una especie de repaso, de poner encima de la mesa, por un lado:**

- Lo que dice al respecto el marco normativo general de inmigración y extranjería, y a qué lógica responde de lo que dice.
- Lo que dice al respecto el II Plan de Inmigración del Gobierno Vasco y a qué lógica responde.

Por otro lado, la de hacer un repaso de las ideas y propuestas que hoy circulan y abordan estas cuestiones, y que, mi juicio, son significativas, dignas de ser tomadas en consideración, o simplemente porque me gustan y me identifico con ellas. Básicamente abordo tres:

- Lo que dicen personas que trabajan en el mundo de la enseñanza. Me he centrado en los trabajos de tres personas: Ignasi Vila, Francesc Carbonell y Uri Ruiz Bikandi.
- Una mención breve a lo que dicen las corrientes ultraliberales
- Una mención breve a lo que dicen los defensores de hacer una lectura extensiva de los Derechos Humanos que incluya los derechos lingüísticos, lo que denominan derechos humanos lingüísticos.

Y un par de añadidos que hacen referencia a la pluralidad lingüística de la Unión Europea y su posible regulación, recogida de dos autores: Amin Maalouf y Tzventan Todorov

Desde el punto de vista de la diversidad lingüística "funcional" tendríamos una docena de lenguas: castellano, árabe, chino, rumano, inglés, búlgaro, alemán, italiano, portugués, francés, ucraniano y polaco.

**2. La composición de la población extranjera**

En el conjunto del Estado, cerca de 4.500.000 personas extranjeras empadronadas a 1 de enero de 2007, prácticamente el 10% de la población. De las 17 comunidades autónomas, en 7 se sobrepasa el 10%.

En la CAPV a uno de enero de 2007 estábamos empadronadas 2.141.116 personas, de las que 98.108 son extranjeras, personas que no tienen la nacionalidad española. Representaban el 4,6% de la población.

A nivel estatal, las veinte nacionalidades más importantes son: Marruecos, Rumania, Ecuador, Reino Unido, Colombia, Bolivia, Alemania, Argentina, Italia, Bulgaria, China, Perú, Portugal, Francia, Brasil, Ucrania, Re. Dominicana, Polonia, Venezuela y Paraguay. Estas veinte nacionalidades representan cerca del 82% de la población extranjera empadronada. De ellas 8 son comunitarias, 9 de Sudamérica, 1 de África, 1 de Asia, 1 de Europa no comunitaria.

Desde el punto de vista de la diversidad lingüística "funcional" (ya se que muchas personas provienen de países plurilingües. Utilizo la expresión "funcional" para referirme a lo que es la lengua oficial del país del que provienen y en la que suelen estar escolarizados), tendríamos una docena de lenguas: castellano, árabe, chino, rumano, inglés, búlgaro, alemán, italiano, portugués, francés, ucraniano y polaco.

En la CAPV el 82% de las personas extranjeras empadronadas provienen de 20 nacionalidades, de las cuales 10 son de Centro y Sudamérica (Colombia, Ecuador, Bolivia, Brasil, Argentina, Cuba, Venezuela, Paraguay, Re. Dominicana, Perú); 5 son comunitarias (Rumania, Portugal, Francia, Inglaterra, Alemania); 3 son africanas (Marruecos, Argelia, Senegal); 1 asiática (china); 1 de la Europa no comunitaria (Ucrania)

Desde el punto de vista de la diversidad lingüística de carácter "funcional", tenemos 9 lenguas: Castellano, Portugués, Rumano, Árabe, Chino, Inglés, Francés, Alemán y Ucraniano.

**3. El marco normativo**

En el ordenamiento jurídico, Constitución, Estatuto de Autonomía, Ley de Extranjería, Reglamento de Extranjería, R.D. 240/2007 que regula la situación de las personas comunitarias, Plan de Inmigración del Gobierno Vasco, nada se dice de la pluralidad lingüística que vaya más allá de la existente y es reconocida en la Constitución y en los Estatutos de Autonomía:

- El castellano es la lengua oficial del Estado. Todos los españoles tienen el deber de conocerla y el derecho a usarla.
- El euskara, lengua propia del Pueblo Vasco, tendrá, como el castellano, carácter de lengua oficial en Euskadi, y todos sus habitantes tienen el derecho a conocer y usar ambas lenguas.



Se reconoce la oficialidad, en sus diferentes ámbitos, a las lenguas españolas: castellano (lengua oficial del conjunto del Estado), euskara, catalán y gallego

En la lista de derechos reconocidos a las personas extranjeras no hay mención alguna a derechos lingüísticos. Los derechos que tienen que ver con las lenguas de cada cual se concretan en el derecho a tener intérprete en tres casos:

- En el caso de ser detenido, en la incoación de los expedientes de expulsión, que se escriben en castellano.
- En los juicios
- En los Centros de Internamiento de extranjeros

Ahora bien, nada impide el uso privado de la lengua de cada cual, ni que se publiquen cosas en esas lenguas, ni su uso en asociaciones y ritos religiosos, ni que se enseñen. Pero nada de esto forma parte de las obligaciones del Estado o de los gobiernos de las Comunidades Autónomas.

Hoy por hoy, en materia lingüística, solo se reconoce el derecho a tener intérprete en los tres casos citados.

**4. Marco normativo, planes de inmigración y derechos lingüísticos**

Esos tres apartados los podríamos resumir en los siguientes rasgos:

- Los extranjeros y extranjeras que se asienten aquí, deben aprender las lenguas oficiales de aquí: el castellano o el castellano y las lenguas autonómicas oficiales, según donde se afinquen.
- El aprendizaje de esas lenguas será de gran importancia para su integración, tanto socio-laboral como cultural.
- La enseñanza, a todos los niveles, se hará en las lenguas oficiales de aquí.
- Las lenguas de la administración son las oficiales de aquí
- Los extranjeros y extranjeras tendrán derecho a intérprete cuando sean detenidos, cuando sean juzgados, cuando sean internados en un Centro de Internamiento
- Las personas extranjeras tienen derecho a utilizar sus lenguas respectivas en el ámbito privado, familiar, asociativo, en los ritos religiosos. Nada impide que publiquen en sus lenguas, utilizando cualquier soporte. Esas lenguas pueden ser enseñadas por medios privados en entidades escolares.
- Los planes autonómicos y municipales pueden ampliar el soporte de la edición multilingüe, implantar diversos sistemas de mediación y ampliar la oferta de intérpretes ampliando los campos en los que pueden actuar. Pueden también incluir planes para enseñar lenguas extranjeras presentes en la sociedad, en la escuela pública.

En esta materia, la concepción de fondo que tiene el Estado y la que tiene el Gobierno de la CAPV es la misma. Responde al esquema de funcionamiento de la gran mayoría (o la totalidad) de los Estados nación, independientemente de la organización interna de los mismos, en los que pueden haber importantes diferencias en materia de reconocimiento de pluralidad interna (el Estado español reconoce un tipo de pluralidad interna, reflejado en el sistema autonómico, y que tiene una determinada plasmación en el terreno lingüístico. Esa pluralidad está limitada, pero las diferencias, con Francia y otros estados de la Unión, por ejemplo, son considerables) y derechos de las personas que hablan diferentes lenguas. Ese esquema general, en el que a los extranjeros y extranjeras no se les reconocen derechos en determinadas materias, es reproducido en su integridad por el Gobierno de la CAPV. Y no solo por un problema de reparto de competencias, o porque la CAPV no tiene competencias en materia de extranjería, sino porque los dos funcionan en esa materia (en realidad, no solo en esa. En otras muchas materias se utiliza las mismas lógicas, tales como el empleo, la selección de mano de obra extranjera, etc, etc) con la misma lógica, la propia de un Estado que excluye a una parte de sus habitantes realmente existentes, por su condición de extranjeros, de la ciudadanía y de un tipo de derechos ligados a esa condición.

¿Tienen que reconocer el Estado y la CAPV una mayor pluralidad lingüística y plasmarla en una norma, reconocer tales o cuales derechos? ¿O hay que huir de una discusión demasiado abstracta y seguir el camino de dar salida a los problemas prácticos que la pluralidad realmente existente y con las formas que se vaya manifestando, nos plantee?

Tiendo a inclinarme por la segunda, a pesar de que no está exenta de problemas.

Danilo Martuchelli suele decir que “todas las sociedades han tenido una gran diversidad religiosa, cultural y social, variedades regionales y de lengua. Desde ese punto de vista, la sociedad moderna no tiene ninguna especificidad respecto a las sociedades precedentes. Es más...yo creo que se puede afirmar que, dados los mecanismos de asimilación cultural que existen hoy en día, medios de comunicación de masas, sistema escolar, etc, es más que probable que las sociedades modernas sean mucho menos diferenciadas culturalmente que lo que fueron las sociedades del pasado”

¿Hay que huir de una discusión demasiado abstracta y seguir el camino de dar salida a los problemas prácticos que la pluralidad realmente existente y con las formas que se vaya manifestando, nos plantee?




De una manera u otra, echando mano de unas u otras tradiciones, todas las sociedades europeas estamos confrontados a unos problemas relativamente parecidos, o entre los que podemos ver parecidos, a la hora de ver como organizamos la pluralidad realmente existente. Y, más allá de los diferentes “modelos”, el asimilacionista a la francesa, el pluralista a la anglosajona, o el diferenciado a la alemana, siguiendo la terminología de Marco Martiniello, de los que muy a menudo echamos mano para explicar y explicarnos algunas cosas, tiendo a considerar, de acuerdo con Martiniello, “que sobre el terreno los planteamientos mixtos son más frecuentes de lo que se podría pensar”; que “es demasiado simplista considerar que Francia adopta un planteamiento totalmente asimilacionista, los Países Bajos otro totalmente pluralista y que Alemania favorece un planteamiento exclusivamente diferenciado”; que “no tiene sentido seguir discutiendo acerca de los méritos y las virtudes de los modelos”; que “en realidad se observa cierta convergencia entre la dinámicas sociales y políticas de los distintos países europeos”; que “Francia es más multiculturalista de lo que se quiere admitir y Gran Bretaña más asimilacionista de lo que pretende”

Para la mayoría de los inmigrantes la opción preferida es el biculturalismo (74%), cuando se manifiesta el deseo de insertarse a la nueva sociedad manteniendo al mismo tiempo la cultura de origen.

En SOS racismo de Gipuzkoa llevamos quince años trabajando con estos temas. La Oficina de Información, que es donde yo trabajo, recibe al año unas 1.500 visitas. Durante 10 años hemos organizado los talleres interculturales para alumnos de entre 12-16 años, por los que han pasado una media de 1.300 alumnos por año, aunque ahora los hemos liquidado por considerar que es una experiencia agotada y que corresponde a la escuela organizar y gestionar su propia diversidad... Señalo lo anterior para remarcar que nuestra aproximación a este u otros temas relacionados con la extranjería, la inmigración, la diversidad, los derechos de las personas, etc, etc. tiene un carácter eminentemente práctico, y escasa o nulamente académico.

Dicho lo anterior, mi impresión es que el esquema global que más arriba he resumido, impulsado por el Estado y por la CAPV, está socialmente aceptado por el conjunto de la población autóctona y por la población extranjera aquí afincada:

- La sociedad receptora, por activa y por pasiva exige y presiona al que viene a que se adapte a sus formas de funcionamiento, a sus usos y costumbres.
- El que viene suele tener una disposición a adaptarse allí donde va, tiene necesidad de comunicarse en múltiples facetas de su vida diaria: en el trabajo, en el barrio donde vive, en la escuela a la que van sus hijos e hijas, en los espacios de ocio.

En una investigación hecha para analizar la adaptación socio cultural y psicológica de los extranjeros residentes en la CAPV, publicada por el Gobierno Vasco en 2004, se decía:

- Los resultados muestran que para la mayoría de los inmigrantes la opción preferida es el biculturalismo (74%), cuando se manifiesta el deseo de insertarse a la nueva sociedad manteniendo al mismo tiempo la cultura de origen. La segunda opción aunque mucho menos elegida es la asimilación (13%) donde se adopta la nueva cultura abandonando la propia. Un 11% de los encuestados ha contestado que prefiere la estrategia de la separación, en la que el contacto con la sociedad receptora es mínimo y se mantienen fuertemente los lazos con la cultura de origen. La última opción, la de la marginalización es minoritaria: solo 2% de los participantes han manifestado poco interés por ambas culturas.
- Estos datos se parecen a los que se encuentran frecuentemente en las investigaciones sobre la aculturación. Por lo general, los inmigrantes a nivel de actitudes presentan un **fuerte deseo de integrarse a la sociedad receptora sin perder sus raíces** (Integración socio-cultural y adaptación psicológica de los inmigrantes extranjeros en el País Vasco, pag 79 80. Cuadernos Sociológicos Vascos nº 15)

¿Cómo tomamos en consideración los dos deseos que expresan la mayoría de los encuestados?

- Integrarse en la sociedad receptora
- No perder sus raíces

¿Qué significan en la práctica esos dos deseos? Seguramente podríamos analizarlo desde diferentes ángulos, pero no queda más remedio que limitarlo.

**5. La escuela**

Y podemos pasar a la escuela. ¿Cómo abordan estas cuestiones los que trabajan en ella? Ya he dicho al principio que recogería las opiniones de Ignasi Vila, Francesc Carbonell y Uri Ruiz Bikandi. Resumiría sus posiciones en:

- Los modelos de inmersión lingüística que se ha aplicado y funciona en Cataluña (catalán-castellano) y en Euskadi (euskara-castellano) no es adecuado para responder a otros grados de pluralidad lingüística. No se pueden abordar



programas de inmersión en todas las lenguas presentes en la escuela
- El número de lenguas es muy grande.
- Conduciría a segregar al alumnado por grupos lingüísticos
- No existe profesorado bilingüe que conozca la lengua del alumno y de la escuela
- Una parte de las lenguas presentes en la escuela son ágrafas.
- No existen reivindicaciones de los diferentes grupos lingüísticos respecto a la enseñanza en su propia lengua.
- La enseñanza de las lenguas y culturas familiares no tiene que hacerse con la intención principal de preservar el patrimonio cultural y lingüístico, sino para mejorar la autoestima, la motivación, la significatividad de la escolarización.
- Dada la variada procedencia del alumnado alófono, en la mayoría de los casos la escuela poco puede hacer para desarrollar la lengua familiar.
- En los lugares donde se concentra alumnado del mismo origen podrían ensayarse sistemas bilingües y trilingües.
- Las clases fuera del horario escolar pueden provocar un efecto segregador complementario.
- Las diferentes tradiciones pedagógicas del profesorado, allí donde se han hecho intentos, contribuyen a que los niños alófonos no quieran asistir a esas clases.
- Convendría estudiar la conveniencia en ciertos casos de introducir profesores del mismo origen lingüístico, ayudante de aula o en el papel de tutor.
- No existe todavía ese profesorado bilingüe o trilingüe con titulación adecuada y criterios pedagógicos compartidos.

**6. Otras propuestas**

Corrientes ultraliberales:
- Ni el Estado ni la mayoría de la ciudadanía tendrían que imponer el uso de una lengua. La lengua es un derecho privado, un terreno en el que el Estado nada tiene que decir.

Derechos humanos lingüísticos:
- Garantizar la coexistencia en igualdad de condiciones de todas las comunidades lingüísticas que viven en un territorio, reconociendo un estatuto paritario a todas las lenguas.

**7. Posiciones de dos autores**

Para acabar este resumen, recojo ideas de dos autores, de Tzventan Todorov y de Amin Maalouf

Todorov considera que la amenaza de la globalización para la diversidad cultural europea, se ha sobreestimado:
- Las personas distinguen entre identidad administrativa e identidad cultural. Las identidades culturales son menos frágiles de lo que se cree.
- Europa tendría que adoptar una lengua de trabajo única. Hoy en día solo hay un idioma capaz de desempeñar este papel: es lo que yo llamo “inglés internacional”. Es el inglés que utilizan los europeos para hacerse comprender cuando visitan casi cualquier país del mundo, el que usan los jóvenes, el que utilizan los funcionarios europeos cuando se pagan los micrófonos.
- Esto no supone una amenaza para las culturas nacionales

Amin Maalouf
- El inglés para comunicarnos con el resto del planeta
- Lengua propia-Lengua mundial. Tercera lengua, la que denomina lengua del corazón
- Entre la lengua propia y la lengua mundial hay un ancho espacio que convendría llenar con varias lenguas.

La enseñanza de las lenguas y culturas familiares no tiene que hacerse con la intención principal de preservar el patrimonio cultural y lingüístico, sino para mejorar la autoestima, la motivación, la significatividad de la escolarización.



# Ikasle etorkinak eta euskara: galderak eta zalantzak

**Alberto Agirreazaldegi (Eusko Jaurlaritzako Hezkuntza Saila)**

## 1. Sarrera

Geroz eta gehiago dira gure hezkuntza-sisteman sartzen ari diren jatorri atzerritarreko ikasleak, batez ere kontuan hartzen badugu murriztu egin dela eskolatutako ikasleen guztizko kopurua. Etorkinen integrazioa ahalik eta erosoena izatea nahi baldin badugu, gizartea eta eskola horretarako prestatu beharrean aurkitzen gara.

> Euskal gizartean integratu nahi dutenentzat, bi hizkuntzak ikastea, eskubide izateaz gainera, beharrezkoa ere bada, gizarteko kide izateko eta hala sentitzeko eta gizartean nahiz lan-munduan, integratzeko aukerak gehitzeko.

XXI. mendeko euskal gizarteko protagonistak gaur egun gure ikastetxeetan ikasten duten haurrak eta gazteak izango dira. Ukaezina da beraientzat aberasgarria dela eskolan hasten direnetik beste jatorri eta kultura batzuetako pertsonekin batera ikastea eta bizitzea. Kultura arteko bizikidetzari esker, bertakoek eta etorri berriek beren gaitasunak garatzen dituzte eta gero eta aldakorragoa eta anitzagoa den gizartean bizitzeko prestatzen dira.

EAEn diru publikoz sostengatutako ikastetxe guztiek hartu behar dute beren gain ikasle etorkinen harrera eta integrazioa, oinarrizko egitekotzat hartuz. Hori da egungo gizarteak herrialde aurreratuei eskatzen diguna eta Euskadiko hezkuntza-komunitateak ezin die hutsik egin. Aukera hau aprobetxatu beharra daukagu gure hezkuntza-sistema hobetzeko.

Gure ikasleak aniztasunean hezi behar ditugu, kultura arteko ikuspegiarekin, ikasle guztien kulturekiko –eta hizkuntzekiko- errespetuan. Gure hizkuntzarentzat arriskutsua izan daitekeela pentsatzetik, orain baino hiztun gehiago izateko aukera polita dela pentsatzera pasatu behar dugu.

## 2. Hezkuntza-sistema eta euskara ikasteko eskubidea eta motibazioa

Ikasle etorkinen ia erdiak A ereduan eskolatuta egon dira orain arte, nahiz eta azkenaldian %koa gutxitzen joan den. Ikasle atzerritarren erdiak baino gutxiagok (%43ak) A ereduan ikasten zuen 2006-2007 ikasturtearen amaieran, baina hizkuntza ereduen araberako banaketa ere ezberdina da lurralde batzuetan eta besteetan: Gipuzkoan %86ak D eta B ereduetan ikasten duten bitartean, Araban %61,5ak A ereduan egiten dute. Hala ere, azken lau ikasturteotako bilakaerak frogatzen du A ereduan izena emandako ikasle etorri berrien ehunekoa 14 puntu jaitsi dela, eta D ereduan, izena emandako ikasle etorkinen ehunekoa igo egin dela (10 puntu).

Ikasle etorkinek daukaten eskubide linguistiko garrantzitsuena eskolako hizkuntza ikastekoa da eta, aurreko datuak kontuan hartuta, etorkinen seme-alaba askori ez zaie bermatzen eskubide hori eta kohesio sozialaren ikuspegitik oso kezkagarria da hau. Desberdintasuna gainditu nahi duen hezkuntzak ez du bide eman behar bi hizkuntza ofizialetako bat ez ezagutzeko aukera. Euskal gizartean integratu nahi dutenentzat, bi hizkuntzak ikastea, eskubide izateaz gainera, beharrezkoa ere bada, gizarteko kide izateko eta hala sentitzeko eta gizartean nahiz lan-munduan, integratzeko aukerak gehitzeko.

Ikasle etorkinek eskola-mota batean edo bestean matrikulatzeak badu zerikusia euskalduntzean. Ereduen eskola-antolaketak orain arte euskalduntzeko balio izan du, baina egungo kultura aniztasuna eta etorri berrien jatorria kontuan hartuta, eskola antolaketa honek ez duelakoan balio nago eta, beraz, eskola-antolaketa berri bat behar dela. Honek ekarri du ereduen birplanteamendua.

Ikasle etorkinek hainbat faktore baldintzatzaile dituzte hezkuntza sisteman erabat sartzeko. Lehena irakaskuntzako irakats-hizkuntza ikastea da. Hizkuntza ezinbesteko tresna da pertsonen arteko harremanetarako, gizartean integratzeko eta ikaskuntza jarraitzeko. Ikasle etorkinen ikaskuntzako hizkuntza-beharrak behar adina ez bideratzeak, gainditzeko zailak diren eskola-atzerapenak eragin ditzake kasu askotan. EAEn bi hizkuntza ofizial daude eta hezkuntza- sistema elebiduna da. Egoera soziolinguistikoa diglosikoa da eta, hizkuntza menderatzailea gaztelania.

Eskolako eremuan hizkuntza berri bat ikasten denean, berdinen arteko komunikazio-egoeretan eta curriculum-edukien ikaskuntzan erabiliz ikasten da. Horregatik, euskara ikasteko eskaintzak guztientzako irekita egon behar du, eta, bereziki, bi hizkuntzak eskolan soilik ikasi ahal izango dituztenentzat.

Hizkuntza eredu bat edo ikastetxe zehatz bat aukeratu edo izendatzeko orduan faktore asko gurutzatzen dira. Ez luke horrela izan behar baina familiak egiten duen lehen hautua erabakigarria gertatzen da askotan hizkuntza ikasteko orduan. Hau horrela izanik, euskara





ikastearen garrantzia ongi adierazi behar zaio familiari. Zenbait lekutan kanpotarrek ez dute ulertuko zergatik ikasi behar duten entzuten ez duten hizkuntza. Gizarte honetan integratzen laguntzeko euskara jakiteak duen garrantzia azaldu behar zaie. Denok dakigu zein eraginkorra den motibazioa hizkuntza bat ikasteko orduan eta ikaslea zein familia motibatzea lortzen baditugu bidea asko erraztuko zaigu denoi.

**3. EAEn orain arte eman diren urratsak eta hartu diren neurriak**

Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa Sailak Ikasle Etorkinak Artatzeko Programa jarri zuen abian 2003-2004 ikasturtean. Programa honek hiru ikasturte bete ditu eta, aurten, Kultura Artekotasunerako eta Ikasle Etorri Berrien Inklusiorako Programak ordezkatu du aurrekoa, eskola inklusiboa erreferente hartuta. Ikasle etorri berriak integratzea ez ezik, Programak eskola komunitate osoan kultura arteko hezkuntza sustatzea du helburu. Izan ere, eskolak kultura arteko ikuskera bere eginez eta ikasle guztiengan kultur aniztasuna errespetatzeko eta balioesteko jarrerak sustatuz, lehenengo urratsa emango dugu elkarrizketa bide berriak sortzeko.

Programak oso kontuan hartzen ditu etorri berriak. Zaila da beste gizarte batean “bizitza berri bat” hastea, eta horrek, zalantzarik gabe, egokitu beharra eskatzen du. Ikastetxeek funtsezko eginkizuntzat hartu behar dute etorri berriak hartu eta gizarteratzea. Gainera, ikasle horiek eskolan beranduago hasten direla-eta, beren hezkuntza beharrei erantzun behar die eskolak, irakaskuntzan erabiltzen diren hizkuntzak, eta bereziki, hizkuntza gutxitua den aldetik, euskara ikasteari berebiziko garrantzia emanez.

Lehenengo programarekin batera, Hizkuntza Indartzeko Programa jarri zen martxan eta egun oraindik indarrean dirau. Eskolan berriki sartutako ikasle etorkinei laguntza ematea helburu duten proiektuak aurkez ditzakete ikastetxeek programa honi esker. Laguntza horien helburua bikoitza da: alde batetik, euskara ez dakiten ikasle etorkinei berariazko laguntza eskaintzea, hizkuntza eta komunikazio trebetasunak lehenbailehen eskura ditzaten; eta, bestetik, ikasle horiek euskal hezkuntza-sisteman sartzen laguntzea, eskola eta gizartean lehenbailehen eta ahalik eta baldintza onenetan integra daitezen. Laguntza hau LHn eta DBHn jartzen da soilik, ez Haur Hezkuntzan. HHko ikasleek gelan lortu dezakete hizkuntzaren jabetza beste ikasleekin batera. LHko ikasleek eta DBHkoek, aldiz, laguntza bereziaren beharra dute beraien etxeko hizkuntza eta eskola hizkuntza desberdinak direlako. Nolanahi ere, laguntza hori, ahal dela, ikastetxean eta gelan bertan ematen zaie, ikastetxeko irakasle guztien artean eta ez da errefortzua emateko dagoen irakaslearen zeregina soilik.

Egoera hau larriagoa izan daiteke 13-14 urterekin datozen ikasleentzat. Orduan berariazko laguntza beharrezkoagoa da, baina, hala ere, ez da HIPIaren gain bakarrik uzi behar zeregin hau.

Bestalde, ikasle etorkinen integrazioa ez da bakarrik eskolaren zeregina. Eskolak bere ahalegina egin behar du eta ahalik eta ondoen gainera, baina ez dugu ahaztu behar eskolan 5-6 ordu bakarrik egoten direla ikasleak. Eskolaz kanpoko jarduerak ere behar-beharrezkoak dira euskara indartzeko eta ahalegin hori baliagarria izan dadin, eskolako jarduerekin lotuta ez da egon behar, ahal den neurrian.

Egun ia 300 ikastetxe publikotan ikasle etorri berriek euskara ikas dezaten errefortzuak eskaintzen dira eta, itunpeko sarean, 150 ikastetxe inguru dira programa honi esker dirulaguntzak jasotzen dituztenak hizkuntza indartzeko ikasle etorri berriei.

**4. Euskalduntze prozesuan izan ditugun kontraesanak eta eragileen nahiz irakasleen artean sortutako zalantzak**

*4.1. Aurreiritziak*

- Haurrek azkar eta erraz ikasten dute bigarren hizkuntza. Hau ez dago frogatua, gertatzen dena da haurrek komunikatzera behartzen dituzten pizgarri gehiago dituztela eta komunikazioa ezinbestekoa duten egoerak ohikoagoak direla haurrengan helduengan baino. Bestalde, haurren eta helduen komunikazio beharrak ez dira berdinak. Denbora asko behar izaten da erabateko gaitasuna lortzeko.
- Hizkuntza bat ikasteko zenbat eta gazteago hobe. Zenbait egileren ustez, bigarren hizkuntzaren irakaskuntza-ikaskuntza lehenbailehen hastea komeni da, baina eskolaren eremuan egindako ikerketek aurreko ideia horien kontrako ondorioak ateratzen dituzte.
- Ikasleak zenbat eta denbora gehiago egon L2aren eraginpean, hainbat eta bizkorrago ikasiko du hizkuntza hori. Hizkuntzaren presentzian egote hutsak ez dakar hizkuntza ikastea.
- Umeek bigarren hizkuntzan mintzatzeko gai diren unean bertan bereganatzen dute hizkuntza. Ez da nahikoa umeek gaztelaniaz eta euskaraz oinarrizko trebetasunak lortzea edo lagunartean moldatzea.

Beranduago hasten diren ikasle etorkinen hezkuntza beharrei erantzun behar die eskolak, irakaskuntzan erabiltzen diren hizkuntzak, eta bereziki, hizkuntza gutxitua den aldetik, euskara ikasteari berebiziko garrantzia emanez.





- Haur guztiek berdin ikasten dute bigarren hizkuntza. Eskolako esperientzian argi ikusi ahal izan da ez dagoela ikasle eredu bat.
- Ikasle etorri berrien egoera antzerakoa da. Ikasle guztiak ez dira berdinak eta are gutxiago hauen egoera soziala eta familiarra.

Bakoitzak bere esperientzia pertsonalak ditu eta familia nahiz gizarte testuinguruak oso desberdinak izaten dira. Hala ere askotan egiten ditugu halako balorazioak: txinatarrak errazago ikasten dute kolonbiarrak baino.

*4.2. Zalantzak*

- Zein hizkuntzatik abiatu behar da? Euskaratik ala gazteleratik? Hizkuntza atzerriko hizkuntzatzat (adibidez ingelesa) hartuta LHko curriculumaren arabera, edo adinari dagozkion eduki akademikoak irakatsiz, edo eredu elebidunetan (B ereduan) egiten den bezala? Nork erabakiko du zein den irakas-hizkuntza? Eskola bakoitzak bere hizkuntza proiektua izan beharko luke bakoitzak bere ikasleria, familien iritziak eta egoera soziolinguistikoa kontuan hartuta.
- Eskolatze-batzordeek epez kanpo datozen ikasle etorri berriak D ereduan eskolatzen ahalegindu beharko lirateke. Ados?
- Ama hizkuntza mantentzeko aukera eskaini behar zaie? Noiz? Nola? Irakasleak ezagutzen ez badu, nola lortzen da hizkuntza horien presentzia gelan eta eskolan?
- Gela arruntean ala aparteko gela batean ikasi behar dute euskara? Hizkuntza indartzeko saioak non eta nola eman behar zaizkie? Nire ustez gela arruntean egon behar dira, hizkuntza indartzeko aparteko saio batzuekin nahastuz.
- Zenbat denboran izan behar dute hizkuntza indartzeko laguntza? Orain bi urte arteraino eskaintzen da baina ez dela nahiko dirudi. Luzatzea bidezkoa dirudi baina helburuak eta ebaluazioak jarri behar dira.
- Ebaluazioa noiz eta nola? Nola jakin daiteke jatorrizko hizkuntzan dakitena? Nola jakin dezakegu hizkuntza menperatzen duten?
- Zein momentutan hasi behar dira gaztelania ikasten irakas-hizkuntza euskara baldin bada? Eta alderantziz?
- Ereduen kontua nola geratuko da? Eskola bakoitzak bere errealitatearen arabera egokituko du irakaskuntza? EAEko bi hizkuntza eta atzerriko hizkuntza bat ikastea derrigorrezkoa izango da. Etorkinek dakiten hizkuntza (arabea, txinoa,…) atzerriko hizkuntzatzat har daiteke?





# Hizkuntzen kudeaketa eskolan

**Amelia Barquín (Mondragon Unibertsitatea) eta Uri Ruiz Bikandi (UPV - EHU)**

Immigrazioari lotutako hizkuntza eskubideez hitz egiteko eskatu digute eta gaira hurbildu bezain laster, bi parametro gurutzatzen zaizkigu hizkuntzekin batera: a) harrera gizartearen interesak eta eskubideak b) etorkinen interesak eta eskubideak.
Baina panorama honetan oinarrizko antinomiak agertzen zaizkigu hasieratik bertatik: alde batetik, euskara gorde eta garatu nahi duen gizarte honetan, erdara ere behar dela; bestetik, gizarte kohesionatua nahi, baina bere barruan bereizkuntzak –etorkinen hizkuntzak horien artean- begirunez kontuan hartu beharra.

## HIZKUNTZA INTEGRAZIOA

**Zer da hizkuntza-integrazioa?** Posible al da integrazioa harrera gizartearen hizkuntza jakiten ez denean edo modu eskasean erabiltzen denean? Erantzunak erraza dirudi: ez. Baina zer gertatzen da hizkuntzak bi direnean eta ez bat? Halakoxea da Euskal Herriko egoera. Esan dezagun bistakoa dena:

1) **Harrera gizartearen egoera**. Euskal Herriak bi hizkuntza ditu (euskara/gaztelania; euskara/frantsesa), eta hizkuntza horiek, status politiko ezberdina dute, lurralde administratiboaren arabera. Euskara gutxitutako hizkuntza da, ez dago euskaldun elebakarrik (egun, bere hiztun guztiek badakite beste hizkuntzaren bat: gaztelania/frantsesa) eta erabilera ezberdina da lekuaren arabera: batzuetan hizkuntza nagusia da eta hainbatetan ez da ia-ia erabiltzen (bi egoera hauen artean dauden tarteko maila guztiekin). Hizkuntza normalizazio prozesuan dago, eta normalizazio prozesu horrek egundoko ahalegin politikoa eta soziala eskatzen du hizkuntzak aurrera jarraitzeko eta bere biziraupena bermatzeko. Egindako ahaleginak emaitza onak izan ditu, hobegarriak badira ere: gazteriaren %75ak badaki euskaraz; euskara ez da, egun, gutxi batzuen hizkuntza.

2) **Ailegatzen direnen egoera**. Datu garrantzitsua da etorkinen jatorria. Izan ere, EAEra eta Nafarroara iritsi diren etorkinen ia %50 Hego Amerikakoak dira, eta Hegoaldeko bi hizkuntzetako bat dakite, gaztelania hain zuzen ere. Besteek, printzipioz, bietako bat ere ez dakite.
Bi egoera hauen aurrean, zer da etorkinen hizkuntza integrazioa? Bi hizkuntza erabili eta bakoitzari lotuta doakion kultura eskura dugunok hauxe esango genuke: etorkinen erabateko integrazioa izateko, Euskal Herriko bi hizkuntzak jakin eta erabili behar dira. Gaur, bietako bat ez dakienak (eta argi dago, kasuan, euskara izango dela gehienetan jakingo ez dena), herri honetako aberastasun kulturalaren zati funtsezko batean ez du sarbiderik. Etorkizunean, tendentzia areagotuko da.

## ERREALITATEAREN OZTOPOAK

Baina hori oso baieztapen abstraktua da; mundu errealera pasatzerakoan zenbait faktore daude, etorkinen eta euskararen arteko harremana kontuan hartzen denean ahaztu behar ez direnak. Izan ere, badago bistako gertaera bat: errealitateak esaten digu etorkin helduak ez direla euskara ikasten ari (salbuespenekin). Eta komeni da arrazoiak aztertzea:

A) **Euskara normalizatu gabe dagoen hizkuntza izateak egoera kontrajarrian jartzen gaitu**. Leku askotan etorkinak jabetuko dira kalean ez dela erabiltzen. Autoktonoek ez badute erabiltzen, zaila da etorkinek ikasteko beharra ikustea. Jendeak hizkuntzak zerbaitetarako ikasten ditu, beharraren arabera saiatzen gara hizkuntzak ikasten. Izan ere, gaztelaniaz dakiten etorkinek Hegoalde guztian hitz egiten den hizkuntza badakite eta euskal herritar gehienek beste dakite (berezitasun dialektalez aparte), euskaraz ez dakiten guztiek beste.
Gaztelaniaz ez dakitenek (marokoarrek eta beste afrikarrek, asiarrek, europarrek…) gaztelania ikasteko beharra sumatuko dute lekurik gehienetan. Leku batzuetan soilik (Ondarroako arrantzaleek, adibidez) sumatuko dute lehenengo euskara ikasteko premia, eta oso arraroa izango da euskara bakarrik ikasteko beharra sentitzea. Gaztelaniaz ez dakiten horientzat, gaztelania da aukerarik berezkoena. Izan ere, bi hizkuntza ikastea esfortzu izugarria da; baita bakarra ikastea ere etorkin heldu askorentzat (edozein autoktonorentzat bezala).

Gaztelaniaz ez dakitenek gaztelania ikasteko beharra sumatuko dute lekurik gehienetan. Leku batzuetan soilik sumatuko dute lehenengo euskara ikasteko premia.





Eremu euskaldunetako zenbait euskal hiztunek haserrea adierazten dute langile etorkinek gaztelaniaz hitz egiten dietenean dendetan, tabernetan, jatetxeetan... Baina zenbateraino eska diezaiekegu etorkinei zerbait, hori bera ikastea autoktono askok beharrezkotzat jotzen ez dutenean: euskara ikastea eta erabiltzea, alegia? Gure herrian hainbat elebakar daude, gaztelania soilik dakitenak, eta, oro har, horiek erabat integratuta sentitzen dira bertako gizartean; ez dute faltan botatzen ezagutzen ez dutena. Elebidunok soilik ikusten dugu haiengan hutsunea.

Gizarteko beste alor askotan bezala, immigrazioak oztopo gehiago sortu beharrean, lehendik zeudenak jartzen ditu agerian, lehendik arazo zena erakusten du.

Gizarteko beste alor askotan bezala, horretan ere, immigrazioak oztopo gehiago sortu beharrean, lehendik zeudenak jartzen ditu agerian, lehendik arazo zena erakusten du.

B) **Zergatik ikasi dute edo ikasten dute euskara autoktono elebakarrek?** Batez ere lan arrazoiengatik eta arrazoi ideologikoengatik. Baina berehala konturatzen gara etorkinek ez dauzkatela arrazoi horiek.

Hainbat autoktono elebakarrek arrazoi praktiko batengatik izan dute euskara ikasteko beharra**: zenbait lan lortzeko aukerak izateko**, batik bat administrazio publikoarekin lotutako lanpostuak (EAEn Nafarroan baino gehiago). Etorkinen kasuan, beraiek izaten dituzten lanpostuetan (etxeak garbitzea, umeak eta zaharrak zaintzea, eraikuntza, kalean gauzak saltzea...) ez dute, oro har, euskaraz jakin beharrik, ez delako euskaraz jakitea eskatzen. Beren lan aukerak eta aspirazioak txikiagoak dira. Beraz, euskara ikasteko arrazoi bat gutxiago daukate.

Bestalde, badakigu hemen hainbat elebakarrek euskara ikasi dutela **arrazoi ideologikoengatik**: euskara ondare kultural garrantzitsutzat jo dute, gure altxor moduan, eta ikasteko eta erabiltzeko ahalegina egin dute. Ezin da espero jarrera hori etorri berri batengandik. Baten batek behar hori senti dezake hemen denbora dezente pasa eta gero, baina ez da orokorra izango. Eta kontuz: euskara “gure” gauza da, “gure” kezka; eta haiek haiek dira: gutako askoren ustez ez dira gutarrak. Baina orduan, zergatik arduratu behar da “beraietako” bat euskararen egoeraz, “gure” arazo bat bada? Inork ez du hizkuntza bat ikasten besteri gustua emateko. “Beraiek” izatetik “gu” izatera pasatzen ez diren bitartean ez zaizkie gure gauzak interesatuko guri interesatzen zaizkigun moduan (aho-korapiloak balio beza). Bada guk gure aldetik dugun jarreraren kontua ere. Kontua da etorritakoa eta bere seme-alabak ez badira hemengoak, ziur aski euskaldun ere ez direla izango.

Zentzu honetan garrantzitsua da gogoratzea bertako sentitzeko adin batzuk beste batzuk baino hobeak direla eta adin batetik aurrera zaila dela norbera jaio eta bizi izan ez den beste inongoa sentitzea. Eta erraza, ordea, umetan, bertan eskolara joanda eta zenbait mekanismoren bidez sozializatuz gero.

Bestalde, kontuan izatekoa da hizkuntza ikasteko, hemen jaiotakoen artean gertatu bezala, haurtzaroa eta gaztaroa direla adin onenak. Adin batetik aurrera zailago egiten da, ez bada, maisu-maistren euskalduntze prozesu gehienetan egin den bezala, dohain eta laguntza handiaz.

C) **Etorkinen bizitza ez da samurra eta aurrera jarraitzeko lehentasunak oso oinarrizko kontuak** dira; euskara zaletasunez ikastea, oso urruti dago etorkinen lehentasunetatik. Nor ausartuko da euskarari buruz galdetzen hemen paperik gabe bizi den pertsona bati, lana eta etxea topatzeko oztopoak besterik ez daukanari...? Zer jarrera sortuko dute gizarte autoktonoaren ezaugarri kulturalek etorkinen artean, autoktonoen etorkinekiko jarrera desegokia baldin bada? Zer eskatu dakieke haiei ertzainek, epailek eta medikuek, zerbitzari publikoek erraztasun asko izanda ere, ez badute egiten edo egiteko inork behartzen ez baditu? Euskararen egoeraz oso kontzientziatuta dauden zenbait partidutako herri ordezkariek ere ez badute egiten? Nor ausartuko da etorkinei hori eskatzen euskal izena harro daramaten enpresetan hizkuntzaren presentzia benetan eskasa denean? Gure gabeziak eta gure “bekatuak” kanpotik etorritakoari ordain arazteko arriskua sumatzen dugu batzutan, eta itsu-bide hori da hain zuzen ere, gure ustez, gizarteak inolaz ere hartu beharko ez lukeena.

## ESPERANTZARAKO KONTZEPTU OINARRIZKOAK

Egoera horixe da eta beraz, ezin dugu espero etorkin helduak euskalduntzea. Baina, hala ere, haratago joan nahiko genuke eta honetarako **hiru hitz-gako** ekarri nahi izango genituzke hona:

- **Errespetua.** Etorkinei bai eskatu diezaiekegu aurrera eramaten ari garen prozesuarekin errespetua. Ezin dugu ahaztu euskal gizartearen zati handi batek (bai kantitatez bai indarrez) erabat sinesten duela hizkuntzaren iraupena ardatz duen proiektu batean.

  Etorkinek prozesu hori ulertzeko informazioa behar dute. Ondo azaldu behar zaie hizkuntzaren normalizazio prozesua, non geunden eta nora heldu nahi dugun. Baina paradoxa bada ere, ez da ahaztu behar politika kolonialen ondorioz, euretako hainbat, hizkuntza gutxitutako

seme-alabak izanik, kontrako bidean, hizkuntza nagusiak ikasi eta etxekoa gainetik kentzen ahalegintzen ibiliko direla, eta ez zaiela erraz egingo gure logika hau ulertzea. Zeregin handia daukagu, bada.

- **Sinpatia.** Desiragarria litzateke etorkinak euskararekiko "sinpatikoak" balira behintzat –Atxagaren hitzetan esateko–. Alegia, ikasiko badute, ezin hobeto; baina hala ez bada, gutxienez jarrera positiboak izan ditzaten. Horixe bera da autoktono erdaldunekin daukagun esperantza. Erraz esanda: jarrera positiboak izan eta seme-alabak euskara ikastera eraman ditzaten (bi gertaerak lotuta daude maiz; lehenengoa bigarrenerako baldintza izan ohi baita).

  Helburu hori errealitate bihurtzea ez da soilik etorkinen zeregina, autoktonoekin ere badaukagu horretan beharlekurik, oraindik ez baitugu elebakar guzti-guztiengandik jarrera baikor hori lortu. Etorri direnak erakarri, interesatu, liluratu beharko ditugu. Eta ahal den neurrian ikaskuntza erraztu beharko diegu, baliabide guztiak jarriz.

  Horretarako informazioa baino gehiago behar da autoktonoen aldetik; sinpatia hori sustatzeko ahalegin handia egin beharra daukagu.
- **Ordaina**. Zer irabazten du euskara ikasten duenak? Zerbait irabazi behar du, bestela ez dago ikasteko arrazoirik. Carme Junyent-ek (Mehatxatutako Hizkuntzen Ikerketa Taldearen arduradunak) ideia erakargarri bat azaltzen zuen duela pare bat urte: hizkuntza txikiak ikasteak identitatea ematen du. Bere hitzetan, "bai euskarak, bai katalanak badaukate hiztun gutxi dauzkaten hizkuntzen abantaila bat: hitz egiteak taldean sartzea ahalbidetzen du. Leku egokian jaio ez dena ez da sekulan ingelesa izango, ingelesez primeran hitz egin arren, nortasunik ematen ez duen hizkuntza delako. Beste hizkuntza batzuek, aldiz, lortu egiten dute hori. Kasu horietan, bertoko hizkuntza bereganatzen dutenek naziotasuna eskuratzen dute paperik ez eduki arren. Integratzeko aukera da eurentzat"[1], Euskaraz egiteak hiztuna euskaldun egiten du, giza talde jakin baten partaide.

ETORKINEN SEME-ALABAK ETA ESKOLA

Esan bezala, hainbat arrazoik azaltzen dute etorkinek euskara ez ikastea. Etorkinen umeen kasuan, berriz, arrazoi horiek ez dute balio. Umeak ez dira etorkinak haien gurasoak bezala; umeak hemen hazten eta hezten ari dira eta haien identitatea eraikitzen ari dira[2]. Eskola da horretarako tresna nagusia **bi premisa** hauek kontuan hartuta:

- Eskola inklusiboan **ez dago etorkinik** edo atzerritarrik, ez dago "desberdinik" Ikasle bakoitzak bere ezaugarriak dauzka eta eskolak hartzen ditu diren bezala, "ikasle estandarraren" irudi hipotetikoarekin konparatu gabe. Familia atzerritarra edukitzea "aniztasun" bat da, hainbaten artean (generoa, klase soziala, gaitasunak, interesak, ikas estiloak…).
- Eskola inklusiboak etorkinen seme-alabei **"identitate anitza" garatzeko aukera** eskaini behar die. Horrek esan nahi du bertako sentitzen lagundu behar diela. Berriz, ez da eskolaren ardura familiaren jatorrizko identitatea eraikiaraztea, baina bai eraikitze horri eskolan lekua egitea eta modu positiboan baloratzea.

Eskola bi hizkuntzak (euskara eta gaztelania) jakin gabe uzten duenak, ez ditu besteek dituzten aukerak izango, ez lan munduan aritzeko eta ez, oro har, gizartean integratzeko.

Euskarak funtzio bat dauka bi premisa horiekin lotuta. Ume guztiak "bertakoak" baldin badira, berdin haien gurasoak eta beraiek ere non jaioak diren, esan gabe doa bertako beste **ume guztiek bezala haiek ere bi hizkuntza ofizialak ikasteko eskubidea** dutela eta eskubide hori eskolak bermatu behar duela.

Beste hitz batzuekin esanda: euskara haiena ere bada; euskara haien ondare kulturala da. Ume horiek euskal hiritarrak eta euskaldunak izango dira, baldintzarik gabe (berdin nondik etorri ziren haien gurasoak, berdin azal iluna daukaten edo auskalo zein erlijio praktikatzen duten).

**Euskara ez ikasteak** bi ondorio nagusi lituzke epe ez oso luzean:

---

1. Carme Junyenti egindako elkarrizketan *Argia* astekarian, 1.980 zb, 2005-2-20.
2. Dolores Julianoren arabera, bestalde, ezin da esan umeak "etorkinak" direnik; berak azaltzen duenez, ez dira umeak jatorrizko lekua utzi eta beste leku batera joatea erabaki dutenak, beren gurasoak baizik; bestalde, txikitan izan dira ekarriak eta ez dira jatorrizko kulturaren eramaileak –edo ez eramaile osoak baizik eta neurri batekoak, gehitu nahi nuke nik (honako hitzaldi honetan azalduta: *Viure i conviure, la realitat de la immigració*, Igualada, 2003-10-1).





Hamar urte baino gehiagorekin datozen zenbait ikaslerentzat hizkuntza aukeratzea ez da huskeria.

A) Eskola bi hizkuntzak (euskara eta gaztelania) jakin gabe uzten duenak, **ez ditu besteek dituzten aukerak izango**, ez lan munduan aritzeko eta ez, oro har, gizartean integratzeko. Orain arteko joerari eusten bazaio, euskararen garrantzia gero eta handiagoa izango da. Esan beharrik ez dago, bestalde, hemen bizi eta euskaraz ez dakienak Euskal Herriko kultura aberastasunaren zati handi bat galduko duela.

B) Etorkinen seme-alabek euskara askoz gutxiago jakitea autoktonoek baino, kopuru erlatiboetan, populazioaren talde horien arteko lokarriak ahulduko ditu, ez bada mesfidantza eta liskar iturri horien artean. Parekotasun ez horrek **ez du gizarte kohesioa bultzatuko**.

Aldi berean, **gaztelera ere ikasteko** eskubidea daukate. Biak dira hizkuntza ofizialak eta ikasleek biak ondo jakitea da eskolaren helburua. Nahiz eta gazteleradunak izan, ikasleek gazteleraren maila formala landu behar dute. Hori lortu ahal izateko familia gazteleraduna ez daukaten umeekin eskolak ahalegin berezia egin beharko du.

IKASLEEN EZAUGARRIETARA EGOKITZEA

Eskubideez ari gara hitz egiten. Baina ez da horren erreza eskubide horiek bermatzea. Hainbat ikasle berrirekin eskolak ezin du jokatu orain arte ikasle autoktonoekin jokatu duen bezala. Zergatik?

- Ikasle berrien %60 Hispanoamerikatik datoz eta euretako asko gazteleraz gain, beste hizkuntza minorizatuen hiztun umilduak dira, sarri. Eurak daude, garrantzizkoak izan daitezkeen alde dialektalak salbu, ikasle autoktono gazteleradunen pareko edo antzerako egoera linguistikoan. Baina familia etorkinetako **ikasleen %40ak ez daki eskolako bi hizkuntzetatik bat ere ez**, ez gaztelera ez euskara, eta biak ikasi beharko dituzte. Horiek, dudarik gabe, beste ikasleekin konparatuta desabantaila egoeratik abiatzen dira, eskolak orain arte kasu gehien-gehienetan ikasleen gaztelera jakintzat eman baitu.
- Etorri berri asko ez **dira eskolan hasten bertakoen egoera "idealean"**, hau da, bi edo hiru urterekin –arinago ez bada-. Adin guztietan -zortzi, hamaika, hamalau urterekin- heltzen dira eta eskolako hizkuntza bat edo biak ikasi behar dituzte. Adin eta eskolatze hain desberdina izaten duten ikasleentzat hezkuntza edukiak eta horiekin batera hizkuntza lantzeko material egokiak behar-beharrezko dira. Baina materialok ezin daitezke edukien arabera sailkatu –hau da, eduki xumeak badira, ume txikien materialak erabili-; ikasleen adin eta egoera anitzei bereziki erantzuten dioten material berriak sortu beharko dira.

Gizarte demokratikoaren eskolak segurtatu behar du heziketaren abantailak denontzat direla, denei ikasteko posibilitate berdinak eskaintzen zaizkiela. Hizkuntza menderatzeak esan nahi du eskola maila gorenera ailegatzeko hizkuntza menderatzea, alegia, **maila akademikoari lotua doakion hizkuntza maila lortzea** (oso diferentea baita solasetarako behar den hizkuntza mailatik)[3]. Hizkuntza maila hori lortzeko urte luzeetako laguntza behar du ikasle berriak[4]

Horrek guztiak hausnarketa sakona eta eskuartze egokia eskatzen du eskola bakoitzean.

ESKOLAKO BERANTIARRAK GAZTELERAZ?

Eskolak oinarrizko prestakuntza ziurtatu behar die ikasleei, behinik behin gizarte honetan bizitzeko ezinbesteko lanabesak. Horrela, eskolara berandu heltzen denari, idazten eta irakurtzeko trebetasunekin batera, oinarrizko ezagutza sozial, natural eta matematikoak erraztu beharko dizkio: oinarrizko ezagutza bertako hizkuntzetan, baina zeinetan, bietan maila berean posible ez denean?

Nola eskolatu, adibidez, Gasteiz edo Bilbora hamahiru urterekin Polonia edota Senegaletik etorri eta lehenbailehen lan egin nahi duen gaztea? Hiru urte eskas ditu eskolak bere zeregina betetzeko, denbora ez nahikoa bi hizkuntzetan behar den ezaguera bermatzeko. Horrelako kasuetan, gure ustez, beharrezkoena gaztelera da eta logikak esaten digu hori dela irakatsi beharreko lehen hizkuntza.

Ikerkuntza sendoaren daturik ez dugun bitartean, honetaz asmatu behar dugu eta beste lekuetako esperien-

3. Ikus. Cummins, J. (2002). *Lenguaje, poder y pedagogía. Niños y niñas bilingües entre dos fuegos*. Madrid. Ministerio de Educación, Cultura y Deporte.
4. Ikus. Vila, I., Siqués, C. eta Roig, T. (2006). *Llengua, escola i immigració: un debat obert*. Barcelona. Graó; eta Navarro, J. L. eta Huguet, A. (2005) *El conocimiento de la lengua castellana en alumnado inmigrante escolarizado en 1º de ESO. Un estudio empírico*. Madrid. MEC.





tziaz baliatu gure errealitatea interpretatzeko[5]. Hamar urte baino gehiagorekin datozen zenbait ikaslerentzat hizkuntza aukeratzea ez da huskeria. Honetan ere, kasu guztiak ez dira berdinak, ikasle horiek dakarten eskolatze maila –jatorrizko maila soziokulturalari lotuta, hori ere- giltza baita. Bere lehen hizkuntza ahoz eta idatziz garatu dutenek, ikasketa maila ona daukatenek, edozein izan delarik hizkuntza, errazagoa daukate ikaskuntza berria –nahiz eta sekulan ez erraza. Horiek laguntza ona eta euskarri sistematiko eta luzeekin hizkuntza minorizatu batez ikastea gaindi lezakete.
Baina adin horietan eskola maila baxua dutenentzat, dudarik ez dugu **inguruan gehien egiten den hizkuntza** izan beharko lukeena ikasteko bidea. Eta horrek, gure artean, gehienetan, gaztelera esan nahi du.
Posible zaie hizkuntza berri batez ikastea, baina kalean beste hizkuntza berri bat entzuten eta ikasten ari diren bitartean gutxi erabiltzen, entzuten eta praktikatzen den hizkuntzaz ikastea oso zaila bihurtzen da. Eskola porrotera eramateko oso arrisku handian jar dezakeela ikaslea esateak ez dirudi demagogikoa.
Malgutasun hau erakusteko gai ez bada gure eskola, gureak egin du: euskara horma eta galga gisa erabiltzen badugu, kaltea besterik ez diogu egiten. Ikasle horien eskolatze hizkuntza gaztelera izan beharko luke horrelako kasuetan, baina euskararen oinarria jaso beharko lukete. Euskara “helburu jakin batzuetarako” ikasteak, euren lan posibilitateei lagunduko lieke. Horretaz, HABE, IRALE eta euskaltegien ezagutza eta lana ere erabil zitekeen.
Baina gazteleraz eskolatzea gure artean tabua da neurri handi batean. Aukerarik egongo al da euskal eskolan gazteleraz eskolatzeko? Nola eman soluziobidea planteatu dugun egoerari etorkinentzako aparteko zentrorik egin gabe?
Gure artean auto-azterketa kulturala areagotuko balitz, autokritika zorrotzago egingo bagenu, agian ez ginateke defentsiban egongo eta etorri berriari ez genioke gure antzinako “bekatuaren” zama leporatuko.

## UMEEN ETXEKO HIZKUNTZAK

Inperatibo psikopedagogiko ezaguna da umeak bere lehen hizkuntza, edozein delarik, garatzen jarraitu behar duela.
Oso garrantzi handikoa da ikasleek eta euren familiek lehen hizkuntzari eustea, haren garapenak eskolako hizkuntzen garapena berma dezakeelako. Era berean, beharrezkoa da irakasleak ulertzea eta onartzea eskolako zereginak aurrera ateratzeko ikasleek askotan lehen hizkuntzaz egin behar izatea euren artean, horrela jokatuz zama intelektuala arindu egiten delako, ama hizkuntza bitarteko kognitibo bezala jokatzen baitu[6].
Ezin zaie irakasleei eskatu ikasleen lehen hizkuntza jakitea, baina eskolak bilatu beharko ditu ikasleen hizkuntzak baloratzeko moduak; haiekiko sentsibilitate handia garatu beharko du eta era askotara adierazi.

## EZTABAIDARAKO ZENBAIT PROPOSAMEN

Azaldu dugun egoeraren aurrean, hauexek dira eztabaidarako egiten ditugun proposamenak:

1) **Irakasleen hasierako prestakuntzan eta prestakuntza iraunkorrean**:

- Irakaskuntza eskubide demokratikoaren oinarrien inguruko hausnarketa. Hau da egingo den guztiaren markoa, egitekoari zentzua eta zergatia emango dizkiona.
- Aniztasun berriaren aurreko sentsibilizazioa. Ikasleen aniztasun berria identifikatzen ikasi eta horren esanahia ezagutu. Halaber, irakasleen ulerkuntza, enpatia eta malgutasuna areagotu, oinarrizko baitira ikasleei lagundu ahal izateko.
- Aniztasuna kulturala kudeatzeko estrategia pedagogikoetan trebatu.
- Beste “aniztasunak” (berantiarra izatea, eskolatu gabea izatea, nekazaritza mundutik etortzea, eskolako hizkuntzak ez jakitea, epez kanpo matrikulatzea…) kudeatzeko estrategia pedagogikoetan trebatu.
- Hizkuntzalaritza orokorraren inguruko prestakuntza, gazteleratik euskarara dagoenetatik aparte, ikasleen jatorrizko hizkuntza anitzek eskaini dakizkiekeen oztopoen zergatia ulertu ahal izateko.
- Ikasleen hizkuntzen idazketa sistemak eta euren oinarriak ezagutu.

Ezin zaie irakasleei eskatu ikasleen lehen hizkuntza jakitea, baina eskolak bilatu beharko ditu ikasleen hizkuntzak baloratzeko moduak.

5. Ikus, adibidez, Swain, M. & Lapkin, S. (2005). The evolving socio-political context of immersion education in Canada: Some ~~implications for pro~~gram development. *International Journal of Applied Linguistics, 15*(2), 169-186.
6. Aurreko oharrean gomendatutako artikuluan aipatzen dira alderdi horretaz eginiko ikerketak.





- Bigarren (edo gainontzekoen) hizkuntzen didaktikan trebatu.
- Ikasleen hizkuntzekiko begirunea adierazten ikasi.

Unibertsitateari dagokio irakasleen oinarrizko formazio planak egitea. Lanean dabiltzan irakasleen formazioa Hezkuntza Sailak kudeatu beharko luke. Prestakuntzaren diseinuak egokia izan behar du eta eskola guztietan eskaini eta jaso beharko litzateke.

> Elkarren arteko ulerkuntza errazteko, kanpotik etorritako komunitateen ordezkariekin ezagutzak, iritziak, dudak eta iradokizunak trukatu.

2) Eskolen **hizkuntza proiektuak egokitu** behar dira egoera berriak kontuan hartuta. Hizkuntza proiektua eraldatzeak esan nahi du hausnarketa egin eta erabaki batzuk hartu behar direla: euskara noiz eta nola ikas/irakatsi, gaztelera noiz hasi ikasten eta nola, ingelesa noiz hasi ikasten eta nola, aparteko errekurtsoak zeintzuk izango diren eta nola erabili, nola kudeatu aniztasuna… Horretarako klaustroek formazioa behar dute eta baita Hizkuntza Proiektuaren egokitzapena egiteko denbora. Hezkuntza Sailaren eskutan dago hori kudeatzea. Proiektuari begira, kontuan hartu behar da:

- Eskola bakoitzean ikasle bakoitzaren lehenengo hizkuntzak zeintzuk diren.
- Ikastetxeko talde kulturalen ezaugarriak eta informazio kultural nagusiak.
- Zentroan ikasleen kultura eta hizkuntzen gaineko informazio nagusia.
- Gazteleraren tratamendu egokitua ikasle alogloten beharrei aurre egiteko. Horretarako zenbait bide berri jorratu eta saiatu beharko lirateke (ikastaro trinkoak etorri berriekin eta nerabe aldeko ikasleekin, e.a.).

3) Esan gabe doa, prestakuntzari etekina ateratzeko, funtsezkoa dela eskola **klaustroa hein handi batean finkoa izatea** eta ez urtero aldatu. Etorkinak dauzkaten eskoletan gutxieneko finkotasuna bermatu beharko litzateke (%60?), zerbitzu komisioak, adibidez, horretarako erabiliz.

4) Hizkuntza errefortzua emateko irakasleek bigarren **hizkuntzen irakaskuntza oinarriez eta teknikez jabetzeko prestakuntza** egokia jaso behar dute, behar bezain luzea eta haien praktikarekin lotua. Hezkuntza Sailak kudeatu eta berritze-guneetan diseinatu behar da.

5) Eskola ikasgai oinarrizkoak **irakasteko materialak**, edukiez eta hizkuntzaz egokitzen ari dira, baina horretan zeregina luzerako da. Beharrezkoa da:

a) Egiten ari den euskarazko materiala bildu Hezkuntza Saileko orri batean, edozein irakasleren eskuetara hel dadin.
b) Helburu berberarekin gaztelerazko materiala ere aukeratu eta prestatu.

6) Lanean dabiltzan **irakasleen arteko komunikazioa areagotu eta erraztu**, jardunaldiak eta hausnarketa saioak eta uneak sustatu, esperientziak trukatu eta ikerkuntzaren emaitzak ezagutarazi.

7) Etorkinen eskolatzean esperientzia duten **beste herrialdeetako irakasle eta ikerleekin komunikazioa** sustatu eta erraztu.

8) Elkarren arteko ulerkuntza errazteko, kanpotik **etorritako komunitateen ordezkariekin ezagutzak, iritziak, dudak eta iradokizunak trukatu**. Hori errazteko testuinguruak atondu eta erraztu.

9) Eskualde bakoitzean institutu bat egon beharko litzateke non **lerro batek gaztelera izango lukeen ikas/irakaskuntzako hizkuntza**.

10) **Familiei euskal hezkuntza sistemaz informazio zabal eta zehatza** eman behar zaie; Hezkuntza Sailak horren ardura hartuko du. Eredua hautatzeko aukera izan ala ez, komeni da umeak euskal eskolara eramaten dituztenek jakin eta uler dezaten beraren antolamenduaren zergatia. Informazio hau, noski, beraien hizkuntzaz emango zaie.

11) Hezkuntza sailak eskaintzen dituen **interpretatzaileen zerbitzuak** urteetan iraun behar du, eskolak eta gurasoek elkarren arteko komunikazioan erraztasuna izan dezaten. Gaurko interpretatzaileen zerrenda osatu behar da familiek hitz egiten duten hizkuntzekin.

Aipatutako arlo batzuk jorratzen ari dira hein batean, baina garapen askoz handiagoa beharko lukete. Beste arlo batzutan, berriz, ia zerotik abiatu beharko da.
Egindako proposamen gehienak, azkenik, modu batez edo bestez esanda dauzkagu hainbat leku eta dokumentu publikotan. Gure kezka da hezkuntza autoritateek mota honetako proposamenak zein puntutaraino hartzen dituzten kontuan. Aurrera pausoak behar dira hemen defendatzen ditugun elkarren arteko begirune eta ulerkuntzaren zerbitzuan eta geroko gizarte bateratuago baten alde.





# Euskara, immigrazioa eta hizkuntza-eskubideak

**Mario Zapata, Soziolinguistika eta immigrazio gaietan aditua**

Komunikazio honetan eginen dugun planteamendua hiru maila ezberdinetan jorratuko dugu, betiere hirurak uztargarriak direlarik
1. Hizkuntza-eskubideen maila
2. Immigrazioarekin loturiko politiken maila
3. Egoera maila

## 1. Hizkuntza-eskubideak

Hizkuntza-eskubideen inguruko hausnarketari ekin aurretik, nahitaezkoa da oinarrizko/giza eskubideen inguruko zenbait elementu aztertzea. Gure ustez, hiru dira aztertu beharreko elementuak:
- Oinarrizko/giza eskubideen definizioa
- Hizkuntza-eskubideen babeserako subjektuen identifikazioa
- Administrazioek eskubideen bermerako duten erantzukizuna

Giza eskubidea duintasunaren ondorioz gizakiari dagozkion berezko ezaugarrien multzoa da. Gizakien duintasuna bera gunea izanik, ezin dira urratu; beraz, ezinbestekoa da Estatuek eta legeek eskubide horiek aitortzea, zabaltzea, babestea eta bermatzea.
Alabaina, historiak erakutsi izan du giza eskubideen definizioa ez dela itxia. Hartara, giza eskubideek zein ezaugarri izan behar dituzten definiturik, errealitatearen araberako garapena eta bilakaera izan ohi dituzte. 1948ko Giza Eskubideen Deklarazio Unibertsala jarri izan ohi da erreferentzia dokumentu edo abiapuntu gisa, baina giza eskubideen definizioan “belaunaldi” desberdinak izan dira. Horrek, baina, ez du esan nahi eskubideen artean halako mailaketa dagoenik. Hartara, eskubideen garapena eta bilakaera historikoa nolakoa izan den azaltzea besterik ez da belaunaldien araberako sailkapena.
Giza eskubideen ezaugarriak eta propietateak azterturik, hizkuntza-eskubideek multzo horretan sartzerik duten hausnartzea litzateke hurrengo eginkizuna.
70. hamarkadatik aurrera *Linguistic Human Rights* kontzeptua sortu zen. Hainbat adituk beren lanetan aipatu kontzeptua erabiltzen hasi ziren, hain zuzen ere, hizkuntza-eskubideei giza eskubideen propietateak aplika baitakizkieke.
Egun, oraindik hizkuntza-eskubideak ez daude behar bezala definiturik, eta tamalez giza eskubideen hiru belaunalditan ez dira jaso izan. Hartara, ondoren ikusiko dugun moduan azken hamarkadetan giza eskubideak babesteko eta bermatzeko indarrean jarritako nazioarteko ordenamenduak ere alboratu ditu.
Hala eta guztiz ere, nolabaiteko definizioak egin izan dira:

**1. Oinarrizko hizkuntza-eskubideak**, Giza Hizkuntza-eskubideak. Eskubide horiek oinarrizko eskubideen ezaugarriak dituzte: besterezintasuna, unibertsala, ezin urra daitezke, etab. Alegia, edonon edonori aitortu beharrekoak eta inongo boterek murriztu ezin ditzakeenak.

**2. Hizkuntza-eskubide arruntak**. Hain zuzen ere, eremu geografiko jakin batean hizkuntza bateko hiztunei aitortu beharrekoak.
Kontuan izan behar dugu oinarrizko eskubide horiek bermatu ezean, horiei lotutako beste giza eskubideak ere urratu egingo dira: babes judizial eraginkorrerako eskubidea, defentsa eskubidea, hezkuntza eskubidea... Horrela, hainbat eskubidetan zehar-lerroa litzateke oinarrizko hizkuntza-eskubidea, eta ez da eskubidea bermatuko baldin eta eskubide horren alde linguistikoa urratzen bada.
*Language Human Rights* direlakoak, beraz, gizaki guztiei aitortu beharrekoak dira, baina zein da Agintarien erantzukizuna horiekiko?
Bestalde, hizkuntza-eskubide arrunten subjektua zein den identifikatu beharko genuke.
Horretarako, eremu juridikotik kanpo sortu diren kontzeptu soziopolitikoak ditugu, esaterako, hizkuntza-komunitatea, talde etnolinguistikoa.
Nazioartean garatu diren hitzarmen eta itunetan hizkuntzen arteko desberdintasunak edo mailaketak agertu izan dira: lurraldeko hizkuntzak, ofizialak, gutxiengoen hizkuntzak, nazioen hizkuntzak eta abar. Hizkuntza-komunitate kontzeptuak horrekin guztiarekin apurtu eta muga politiko-administratibo-ekonomikoetatik at dagoen babeserako subjektua definitzeko ahalegina egiten du.

> Oinarrizko hizkuntza-eskubideak bermatu ezean, horiei lotutako beste giza eskubideak ere urratu egingo dira.

Baina lurralde batean bestelako hizkuntza-kolektiboak ere egon daitezke. Talde horiek historikotasun txikiagoa dute eta haien hizkuntza ez da berezkoa edo lurralde baten hizkuntza propioa. Kolektibo berriak sor-





tzeko aukera hori bereziki immigrazioarekin lotutako fenomenoa dugu. Nazioarteko hainbat hitzarmenetan horri erreparatzen zaio eta, esaterako, Europako Kontseiluak sustatutako Erregio edo Gutxiengoen Hizkuntzen Europako Itunak berak propio jasotzen du zein hizkuntza izan daitekeen babeserako subjektu, lurraldetasuna oinarritzat harturik.

Gutxiagotua izatearen esperientzia duen talde etnokultural baten aldetik sentsibilitate berezia egon beharko luke beste gutxiengo baten kultura errekonozitzeko.

Horren arabera, talde horietako hiztunek eskubide murritzagoak dituzte, nahiz eta bien arteko elkarbizitza errespetu osoz eta printzipio demokratikoak errespetatuz egin beharko diren. Talde linguistiko horiek gutxiengoa era dezakete, edo ez. Hainbatetan gutxiengo exoglosikoak osatzen dituzte, hau da, hizkuntza-komunitate izaera duen lurraldean hizkuntza nagusia izatea, etab.

Izan ere, *gutxiengoa* taldearen barruan hainbat multzo egin ditzakegu, eta ondorioz, bereizketa horrek eragin zuzena izango du, geure kasuan, hizkuntza-eskubide arruntak aitortzeko unean.

Eta hizkuntza-eskubideaz ari garenean, zer gertatzen da gutxiengoa den talde etnokulturalari hizkuntza-eskubiderik onartzen ez zaionean, Euskal Herrian gertatzen den moduan?

**2. Immigrazioarekin loturiko politikak**

Zuzenbide mailan oinarrizko giza hizkuntza-eskubidetik haratago errekonozimendua izan ala ez, horrek ez du esan nahi maila politikoan ezin daitezkeela artikulatu etorkinen kulturak eta hizkuntzak aintzat hartzeko bideak.

Maila horretan, hain zuzen ere, immigrazioarekin loturiko politikek, gizartearen kohesioa helburua, gure ustez, ezinbestekoa dute kultura aniztasunaren trataera egokia egitea.

Gure ustez, kulturaren aniztasunaren politikak pluralismo kulturalean oinarritu beharko lirateke. Pluralismo kulturalaren inguruko eztabaidetan sartu gabe, abiapuntu eta zutabe moduan kultura aniztasunaren errekonozimendua izanen genuke.

Maila praktikoan, kultura integrazioaz mintzo garenean, bi ardatz ditugu kontuan:

1. Etorkinek *helduera-gizartearen* identitate kulturala bereganatzea.
2. Etorkinentzako *helduera-gizartea* den horrek beraien berezko identitate kultura errekonozitzea

Oro har, eskema honetan kezka iturri bakarra bigarren elementua izaten da, nola eta noraino eramaten da etorkinen identitate kulturalen errekonozimendua, zertan gauzatzen den errekonozimendua. Eta horretaz aurrerago mintzatuko gara.

Izan ere, gure bezalako errealitateen kasuan, aurreko eskema zailtzen da *helduera- gizarte* delako horretan identitate kulturalaren inguruan dagoen gatazkagatik: berezko talde etnokulturala eta nazio-estatuaren artean dagoen identitate-gatazka, identitate kulturaletako baten egoera gutxiagotua… aipatu gabe aurreko immigrazio prozesuen eragina.

Euskara mintzagaia izanik, euskararen eremu historikoaren zati handi batean hizkuntzak ere ez du berezko errekonozimendurik (ofizialtasun-statusik ez). Eta bestean, errekonozimendua izanik ere, berezko hizkuntza egoera gutxiagotuan dago, diglosia egoera batean.

Hortaz, ikuspuntu linguistiko hertsi batetik, gizartearen gehiengoarentzat konbergentzia hizkuntza nagusitutako hizkuntza –gaztelania edo frantsesa— den moduan, etorkinentzako ere kasu gehienetan hori da konbergentzia hizkuntza.

Hala ere, gurean bezala, egoera gutxiagotua dagoen talde etnokulturalaren kasuan hizkuntzak duen funtzio sinbolikoa ezagutzatik hara doa. Esan nahi baita, hizkuntzarekiko atxikimendua ez da mugatzen definitzen ohi den hizkuntza-komunitatearen definizio hertsian.

Horren arabera, gizartearen gehiengoak euskara ezagutu ez arren, gehiengoak horrekiko atxikimenduak adierazten du, hizkuntzak konbergentzia eta kohesio sozialaren funtzioa duelarik. Hori, esaterako, modu argi batean islatzen da azken hamarkadetan bere haurrak matrikulatzeko orduan, gurasoek egiten duten hizkuntza-ereduaren hautuan.

Etorkinek euskarak duen konbergentzia eta kohesio funtzio horren jabe izan beharko lukete, bereziki bere seme-alaben etorkizunari begira. Eta integrazio elementu moduan ulertu beharko lukete. Hau da, integrazioa definitzerakoan lehengo ardatzean sartzen ditugun elementuen artean.

Euskararen gutxiagopen prozesu historikoa oinarria harturik, batzuetan normalizazio eta berreskurapenaren aldarria ezagupena zein atxikipenaren muga ere gailentzen du, horren legitimazioa lurraldetasun eta historian datzala. Euskal Herrian egun dagoen heterogenotasuna kontuan izanik, maila praktikoan, euskarak duen kohesio funtzioak betiere loturik egonen da etorkina kokaturik dagoen ingurunearen errealitate etnokulturalarekin.

Integrazioaren bigarren ardatz horretan, ez luke zertan arazorik egon behar etorkinen hizkuntzen errekonozimendua. Are gehiago, gutxiagotua izatearen esperientzia duen talde etnokultural baten aldetik sentsibilitate berezia egon beharko luke beste gutxiengo baten kultura errekonozitzeko. Arazorik ez luke izan behar, betiere bere kultura kaltetua suertatzen ez den bitartean, bederen. Aurreko honetan

datza, hain zuzen ere, elkarrekiko errekonozimendu eta errespetuaren politikak.
Etorkinen kulturen errekonozimendua garatzeko, maila teorikotik haratago joateko orduan hainbat galdera suertatzen zaizkigu: noiz? nola?

### 3. Egoera baten azterketa

Arlo praktikoan AMIA motako azterketa bat aurkeztu nahi dugu. Gaia, berez, euskara eta etorkinen integrazioa izanen litzateke, betiere euskalgintzaren ikuspuntua oinarritzat harturik.

Azterketa hau egiteko egiturazko hainbat oztopo izan dugu. Izan ere, Euskal Herria bizi den banaketa administratiboak Euskal Herria mailako diagnostiko bateratua egitea errotik zailtzen du: Estatu bakoitzak migrazioen kudeaketan duen politika ezberdina, datu eta diagnostiko-tresna eza… Eta hortik lehengo hausnarketa: euskararen ikuspuntutik immigrazioaren inguruan egin daitekeen azterketaren mugak.
Azterketa honetan, ardatz moduan honako faktore nagusi hauek hartu ditugu:

- Immigrazioa eta integrazioa
- Euskararen egoera
- Hezkuntza-sistema

**INDARRAK**

- Euskalgintzak duen osaera anitza eta proiekzio soziala
- Euskalgintzak izaten ahal duen sentiberatasuna etorkinen berezko kulturekiko
- Euskalgintzak duen dinamismoa eta tradizioa herri ekimenetan
- Horrelako dinamiken bidez etorkinekiko aliantzak sortzea
- Euskalgintzako hainbat eragileen eskarmentua:
  - Helduak euskalduntzeko egitura sendoa (EH mailako euskaltegien sarea)
  - Etorkinen seme-alaben hezkuntza formalean zein informalean…
  - Euskalgintzako hainbat pertsonen prestakuntza maila handia
- Eragile horietako batzuen hausnarketa sektorialak
- Egon dira eta dauden hainbat ekimen: euskara helduei irakasteko, topaketak
- Talde batzuen aldetik immigrazio arloan lan egiten duten eragile batzuekiko harremana
- Euskalgintzak egiten duen balorazio positiboa euskal diasporak izan duen kultura-fideltasunarekin: beraien kulturen errekonozimendurako oinarria

**AHULEZIAK**

- Euskalgintzatik beharreko ahalmenik ez kultura aniztasunaren kudeaketan eragiteko
- Euskalgintzako eragileen aldetik hausnarketa estrategiko eta teorizazio sakonik ez
- Gaiaren inguruko informazio eta prestakuntza falta
- Integrazioaren inguruan eragile batzuk erabiltzen duten diskurtsoa (etorkinentzako ulergaitza, bizi duten errealitatearekin inkoherentea)
- Euskalgintzaren ikuspuntutik fenomenoaren inguruko EH mailako diagnostiko orokorrik ez.
- Euskal Herri mailako dinamika orokor eta komunik eza.
- Egiturazko ezintasuna EH osoan eragiteko: egiturak, baliabide pertsonalak zein ekonomikoak
- Elkarrekiko errekonozimenduaren politika barneratu ez.
- Oro har, lotura iraunkor eta sendorik ez immigrazioaren inguruan lan egiten dute taldeekin.





**AUKERAK**

- Elkarrekiko errespetu eta errekonozimenduan oinarrituriko aliantza estrategiaren potentzialtasuna (maila kultural, sozial, politikoan…).
- Maila kulturalean:
  - Etorkinak euskal kulturarekiko atxikimendua
  - Etorkinen kulturen babesa
- Iritzi publikoan etorkinen integrazioaren alde dagoen aldarrikapena (diskurtso politikoki zuzena)
- Jendartearen sektore batzuetan immigrazioaren inguruko ikuspegi positiboak: etorkinak = aberastasuna
- Eragile erreferentzialak izan daitezkeen etorkinak: preskriptoreak
- Bere burua euskaldundu duten etorkinak
- Egoera soziala eta ekonomikoa egonkorrean dauden etorkinak
- Etorkin gehienen gogoa eta nahia integratuak sentitzeko:
- Euskarak integrazioan izan dezakeen funtzioa: integrazio-tresna (motibazio integratzailea)
- Etorkinen elkarteen existentzia (interlokuzioa eta erreferentzialtasuna)
- Administrazio (maila) batzuetan estatuz kanpoko etorkinen integrazioaren inguruan dauden irizpide positiboak
- Administrazio (maila) batzuetan euskara bultzatzeko dagoen jarrera
- Maila ezberdinetan dauden esperientzia positiboak: udalerrietan, elkarteak…
- Immigrazioaren inguruko diagnostiko partzialak (diagnostiko orokorra osatzeko lagungarriak izan daitezkeenak)
- Etorkinen harreman-sare sendoak (transmisio tresna izan daitezkeenak)
- Jatorri batzuetako etorkinak gutxiengo etnolinguistikoaren esperientzia bere herrietan (identifikazioa euskararen egoerarekin)
- Jatorri batzuetako etorkinen eleaniztasuna (eleaniztasunaren kultura)
- Estatuez kanpoko etorkinen talde eta etorkinen laguntzarako GKE batzuen jarrera positiboa (euskararekiko sentsibilitatea)
- Etorkin berezko kapitala (etorkin batzuek egiten ahal duten lana: itzultzaile, irakasle, bitartekari...)
- Euskal Herriko migrazio historia (elementu pedagogikoa)
- Euskararen normalizazioaren aldeko aldarrikapenaren indarra. Jendartearen gehiengoaren euskararekiko sentsibilitatea: euskararen aldeko jarrera
- Euskararen normalizazioaren aldeko taldeek etorkinen integrazioaren gaiarekin duten ardura eta sentsibilizazioa
- EHko zonalde batzuetan (zonalde euskaldunenetan), euskararen balio instrumentala (lana bilatzeko...). Motibazio instrumentala sortzeko aukera
- Ikasleen matrikulazioan, EH zonalde gehienetan euskarazko ereduen aldeko joera (joera soziala moduan ager daitekeena)
- Hezkuntza munduko eragile batzuen aldetik (irakaslea, gurasoak, sindikatuak…) etorkinen seme-alaben integrazioarekin dagoen sentsibilizazioa, kontzientziazioa eta inplikazioa
- Hezkuntzaren profesional batzuen prestakuntza ona (unibertsitateetako hainbat aditu, irakaskuntzako profesional batzuk…)
- Eragile hauetako batzuen artean dagoen hausnarketa dinamika
- Urteotan egin den materiala: etorkinen seme-alaben harreraren inguruan, kulturartekotasuna lantzeko...
- Integrazioa, elkarbizitza eta kulturartekotasuna lantzeko ikastetxe batzuetan dauden proiektuak
- Baliagarri izan daitekeen kanpoko hainbat esperientzia (Katalunia, Quebec…)
- Kanpoko eragile batzuen laguntza





**MEHATXUAK**

- EHko eremu batzuetan euskarak duen errekonozimendu eza (ofizialtasun-statusik ez)
- Euskara bizi duen egoera gutxituaren ondorioz, estatu-nazioen identitateek duten indarra: oro har, konbergentzia identitate nagusiak
- Administrazio (maila) batzuen hizkuntza-politikak: euskara normalizatzeko eta berreskuratzeko politikarik ez
- Administrazio (maila) batzuen immigrazio-politikak: aldarrikatu kulturaniztasunean euskal kulturan kontuan hartzen ez dutenak
- Administrazioan eta hainbat eragileetan dagoen integrazio (soziokulturala) eta immigrazioaren inguruko ikuspegi partziala: immigrazioa = estatuez kanpoko immigrazioa
- Immigrazioaren inguruko planifikazio estrategiko eza maila ezberdinetan (EH mailan, baita bestelako mailetan ere)
- Immigrazio politikaren inguruko alderdikeria (kohesio eza)
- Estatuetako etorkinak euskal kulturan integratzeko politika eza
- Estatuetako etorkin askok ez dute integratzeko beharrik ikusten ere
- Etorkin kontzeptuaren inguruko konnotazio negatiboa
- Immigrazioaren inguruan gizartean dauden ikuspegi negatiboak: etorkinak = arazoak (euskararen erabileran, hezkuntzaren kalitatean…)
- Immigrazioaren inguruko diagnostiko orokor eza
- Diagnostiko partzialekin egoera desitxuratzeko arriskua
- Ikerketa-politika eza
- Administrazio guztien aldetik datuak ezkutatzeko politika
- Egoera prekarioan dauden etorkin bizimodua: legala, ekonomikoa, soziala...
- Etorkinen migrazio-proiektuaren mitoak. Itzultzeko asmoa: ezegonkortasuna, behin-behinekotasuna
- Kasu batzuetan etorkin-komunitateen isolamendua (harremanik eza)
- Taldeen arteko komunikazioa eza (autoktonoak eta etorkinen artean)
- Komunitateen arteko harreman-gune eza
- Estatuetako etorkinen taldeekin dagoen komunikazioa eza
- Estatuez kanpoko etorkinen kokapena espaziala: lana –hiriak, ingurune industrialak, nekazaritza estentsiboa (kasu askotan eremu ez-euskaldunetan)
- Etorkinen taldeen artean sakabanaketa (interlokuzioa lagunduko lukeena)
- Etorkin eta etorkinen laguntzarako GKE batzuen euskararen aldeko jarrera eza
- Estatuez kanpoko etorkin berrien artean, euskal kultura eta euskararen inguruko aldez aurretiko informazio eza
- Latinoamerikako etorkinen kasuan: Espainiarekiko lotura historikoa eta kulturala (beraientzat EH = Espainia")
- Euskara beraren egoera soziolinguistikoa: diglosia…
- Euskarak EHko toki askotan duen presentzia eskasa (leku batzuetan hutsaren hurrengoa)
- Euskararen baliagarritasun eta funtzionaltasunaren inguruko pertzepzio negatiboak (EHn bizitzeko erdararekin aski da)
- EH mailan, bereziki helduen artean dagoen euskararen ezagutza eta erabilera maila baxua.
- Gazteen artean euskararen erabilera eskasa: ikastetxeetan duen isla
- Euskararen inguruko erabateko kohesio sozial eza
- Euskararen estigmatizazio negatiboa (euskara = arazoak, arriskua)
- Administrazio (maila) batzuetan euskararen inguruko jarrera: axolagabekeria edo kontra
- Helduen euskalduntzearen alde administrazio (maila) gehienetan dagoen erabateko konpromiso eza (doakotasun eza)
- Lan munduaren berezko egoera soziolinguistikoa (erabilera maila baxua): lana integrazio-eremua.
- Euskalgintza eta etorkinen aldeko talde batzuen arteko sintonia falta
- Irakaskuntzan, hizkuntz eredu ezberdinen existentzia bera nahasteko faktorea moduan
- Guraso etorkinengana beharreko informazioa helarazteko gaitasun eza
- Sozialki baztertuak izateko arriskua duten sektoreen ghettoak A ereduko zentro edota gela batzuetan –euskara ez jakitea klase edo sektore sozial baten ezaugarria
- Hezkuntza-Komunitatearen baitako sektore batzuetan (irakasleak, gurasoak) estatuz kanpoko immigrazioaren inguruan dagoen sentsibilitate eza eta gertatzen diren joera baztertzaileak





- Bazterketa joerak beste gurasoen aldetik: beraien seme-alabak atera estatuez kanpoko etorkinen seme-alabak dauden gela edo ikastetxeetatik
- Ikastetxeetako arduradunen aldetik: estatuez kanpoko etorkinen seme-alabak A ereduko ikastetxe edo geletara bidaltzea, beste geletako kalitatea ez jaisteko.
- Irakaskuntzako profesional batzuen aldetik integrazioaren inguruan dagoen ikuspegia (integrazioa=asimilazioa)
- Ikastetxeen autonomia vs jendartearen interes orokorren aurka:
- Ikastetxeen arteko lehiakortasuna (ikastetxearen interesa interes sozialaren gainetik)
- Euskaldundu ez diren irakasleen “poltsa”. Horien interes korporatibista A ereduak iraun dezan
- Irakaskuntzan etorkinen seme-alaba guztiak behar bezala artatzeko baliabide eza
- Berariazko laguntza emateko irakasleak
- Bigarren Hizkuntzak irakasteko profesionalak (irakasleak), baliabide teoriko eta didaktikoak
- Materialgintzan dauden gabeziak. Dagoen material eta proiektuak ezagutzeko eta elkartrukatzeko gune eza
- Irakaskuntzako profesionalen artean, erosotasunagatik edo batzuen aldetik dagoen joera: estatuez kanpoko etorkinen seme-alabak B/D ereduko ikastetxe edo geletatik A ereduetara bideratzeko (irakasleentzat lan gutxiago) [batzuetan baliabide ezarekin lot daitekeena]
- Irakaskuntzako profesional gehienen immigrazioaren inguruko formazio eza
- Irakaskuntzan etorkinen kulturen tratamendua eta eskaintza eza (estatus eza).





# Kolektiboen eta nazioen hizkuntza eskubideak

**Julen Zabalo eta Iker Iraola (UPV - EHU)**

Euskararen eta etorkinen hizkuntza eskubideak aztertzean, inplizituki saihesten ari gara eztabaidatik gaztelaniarenak edo frantsesarenak. Izan ere, bi hizkuntza hauekin ez da, normalean, eztabaida gehiegirik sortzen gai hau dela eta, azken batean biek estatu baten euskarria dutelako, eta estatuaren hizkuntza kolokan ez dagoela pentsatzen delako.
Arazoa, aldiz, estatu baten sostengua ez dutenena da. Hor sartzen dira euskara eta etorkinen hizkuntzak, baina ezin dugu, noski, maila berean aztertu horiek denak. Euskararen alde, mugimendu sendo bat dago aspalditik, gizartean zabalduago eta eraginkorrago nahi dutenen aldetik. Horrez gain, euskara hizkuntza ofiziala da Euskal Herriko hainbat lurralde eta eskualdetan. Nolabaiteko erdibidea osatuko luke, beraz: ez du estatu baten sostengurik, baina bai estatuko administrazio batzuena.
Etorkinen hizkuntzek, azkenik, ez dute ezelako aitortza ofizialik Euskal Herriko administrazio desberdinetan. Hori abiapuntu hartuta, eztabaidan dago ia nola eta zein punturaino bermatu, lagundu, edo gutxienez, ezagutu behar diren etorkinen hizkuntzak.
Ikus ditzagun hobeto hiru aldeak.

### 1. Estatu erdirakoiak, estatu autonomikoak, estatu polietnikoak

**Estatuek** planteamendu argia egiten dute: eskubide pertsonalez gain (eta hor edozein pertsonak maila pribatuan nahi duen hizkuntza erabiltzeko duen eskubidea sartuko litzateke), lurraldeko biztanleen arteko komunikazioa errazteko, eta euren artean diskriminaziorik saihesteko, lotura lana egingo duen hizkuntza bat beharbeharrezkoa dela diote. Horrela begiratuta, estatuko hizkuntza denek ikastea eta erabiltzea zerbait positibotzat jotzen da, biztanleak berdindu egiten ditu eta. Are gehiago, kontrako alderditik begiratuta, etorkinek etorrerako herriaren hizkuntza ikasteko eskubidea dutela aldarrikatu beharko litzateke, inolako diskriminaziorik gabe.
Baina diskriminazio eza aldarrika daitekeen modu berberean, egia da inposaketa gisa uler daitekeela hizkuntza ikasi beharra. Batzuek 'nazio zibikoaren' izenean, halakoetan ez sartzea proposatzen dute, eta eskubide demokratiko klasikoak bermatzearekin konformatzen dira. Baina, errealismoz jokatuz, saihestu daiteke estatu batek kultura eta hizkuntza kontuetan eskurik ez hartzea? Ildo horretan, gogora dezagun Kymlickak dioena, alegia, nazio zibiko eta etnikoen arteko bereizketaren mamia ez dela, nazio identitatea eraikitzeko, nazio zibikoek ezelako osagarri kulturalik ez erabiltzea, baizik eta estatuko kultura horretan integratzeko edozein pertsonari ahalmena aitortzea, inolako diskriminaziorik gabe (1996: 42).

**Euskararen kasuan,** egoera eta errealitate desberdinak bizi dira. Kasurik txarrenean ez da hizkuntza ofiziala, eta hiztunen kopuruari erreparaturik, eskualde batzuetan posible da etorkinen hizkuntza batzuek beste hiztun baino ez edukitzea ere. Hezkuntza eta administrazioan aitortzarik gabe, maila pribatura mugatzen dira (hezkuntzan, ikastetxe pribatuak bultzatzen dira). Egoera hobexeagoa da, ofiziala izan ez arren, hiztunen kopurua handia denean, bere presentzia nabariagoa baita gizartean.
Beste zenbaitetan, ordea, euskara hizkuntza ofiziala da, baina ofizialtasun hori gaztelaniarekin partekatu behar da. Estatuetako hizkuntzen kasuan ez bezala, ofizialtasunak ez du esan nahi biztanle guztiek dakitenik euskaraz, eta horrek izugarrizko eztabaida eta gatazka sortzen ditu, estatuen kasuan gertatzen ez zirenak. Izan ere, eztabaidan dago koofizialtasunak esan nahi duen nahikoa dela hizkuntza bietatik bat jakitea edo erabiltzea; ala biak jakin behar diren, nahiz eta gero bat erabili. Estatuen kasuan, diskriminazioaz hitz egiten da biztanleren bati estatuko hizkuntza irakasten ez bazaio, baina hemen, berriz, diskriminazioa jotzen da batzuetan euskara ikasi beharra.
Egoera horretan, euskararen aldeko mugimenduek euskara errebindikatzen dute, eta errebindikapen horretan lehiakide eduki litzakete etorkinen bestelako hizkuntzak.

Eztabaidan dago ko-ofizialtasunak esan nahi duen nahikoa dela hizkuntza bietatik bat jakitea edo erabiltzea; ala biak jakin behar diren, nahiz eta gero bat erabili.

**Etorkinen hizkuntzei** dagokienez, argipen eta zehaztapen bana egin beharko lirateke. Argipena hizkuntzen erabilera pribatuari dagokio. Esan gabe doa, eskubideez ari garenean, ez gaudela pentsatzen ia onar daitekeen hizkuntza bat maila pribatuan erabiltzea. Eta bestalde, erabilera pribatua onartzeak ez daroa halabeharrez eskubiderik berarekin.

Zehaztapena soziologiak ematen digu etorkinen garapena eta joerak ikertzean. Gauza ezaguna da kanpotik datorren lehenengo belaunaldiak atxikimendu handia (edo osoa, adinekoen artean) diola jatorrizko hizkuntzari, normalean etorrerako herriko hizkuntza nahiko ondo ikasten den arren. Bigarren belaunaldiak, aldiz, atxikimendu txikiagoa dio bere gurasoen hizkuntzari, eta erraztasun handiagoa erakusten du, askotan, etorrerako herriko hizkuntzan. Eta hirugarren belaunaldian, azkenik, oso ohikoa izaten da aitite-amamen hizkuntza ahaztea.

> Herrialde batean denbora bat eramanda, eta kide kopuru esanguratsua batzen denean, zenbait eskubide errebindika daiteke.

Etorkinen jarrerekin jarraituz, nabaria da kanpotik datorrenak integratzeko asmoa dakarrela normalean. Baina herrialde batean denbora bat eramanda, eta kide kopuru esanguratsua batzen denean, zenbait eskubide errebindika daiteke. Kymlickak dioen moduan, ez dute estatu nazioanitzik eskatzen, eurek etorrerako herriaren nazioan integratu nahi dute eta. Baina estatu hori polietniko izenda dadila nahi dute, euren ohiturak bermatzeko helburuz. Ez dute eskatzen autonomia politikorik, baizik eta, euren ohiturak errespetatuz, talde nagusian integratzea. Berdintasuna eskatzen dute, eta ez desberdintzea (1996: 52).

## 2. Hizkuntzen pertsona eta lurralde eskubideak

Aurrekoa jakinik, etorkinen hizkuntzekiko begirunea izatea nahikotzat jo beharko genuke, hizkuntza hori epe ez luze batean ahaztuko dutelakoan. Integrazioa, hortaz, etorrerako herriaren hizkuntzan egingo dute, baina hor eztabaida sor daiteke, ezen integrazioa eginik dagoela esaten bada, eta eskubide beteko herritartzat jotzen baditugu, ez ote lukete eskubiderik edukiko jatorrizko hizkuntzetako bati goi status bat emateko, nahikoa hiztun egongo balitz? Ezetz erantzuteak ez ote luke kolokan ipiniko “integrazio” helburua? Zein kasutan eman lekioke hizkuntza bati, edo hiztun multzo bati, ofizialtasun mailaren bat?

Laponcek (1980, 1984) pertsona eta lurralde irtenbideez hitz egiten digu:

**Pertsona irtenbidea** pertsonari esleitzen zaizkion eskubideetan oinarritzen da. Pertsona baten hizkuntza babestu behar da, baldintza batzuk betetzen badira, edonon kokatzen direla hiztun eta hizkuntza horiek. Letonian, 1925ean, 3.000 biztanletik gorako komunitateek nazio gutxiengo izateko eskubidea jasotzen zuten, eta horrekin erraztasunak euren hizkuntza garatzeko eta babesteko. Multzoa osatzea da kasu honetan inportanteena, kopuru handiago batek, baina sakabanaturik, ezin baitu halako ezagutzarik eduki. Halako irtenbideak austromarxismoak ere proposatu eta teorizatu zituen, Otto Bauer (1979) buru, Austriar-Hungariar Inperioko egoera eleanitzari irtenbidea emateko asmoz

**Lurralde irtenbidean,** berriz, mugak ezartzen dira herrialde batean, eta lurralde bakoitzari hizkuntza baten nagusitasuna onartzen zaio, bestelako hizkuntzen kaltean. Kasu honetan, hizkuntza eskubidea ez dagokio pertsonari, lurraldeari baizik. Suitza edo Belgika adibide argiak dira, hizkuntza bat baino gehiago egonik, bakoitzari eragin esparru bat onartzen zaio eta.

Kasu batean zein bestean, hizkuntza eskubideak lehia politikoan sartzen dira. Are gehiago Euskal Herrian, nazio arazoak sorturiko gatazka politikoak hizkuntzari buruzko eztabaida kutsatzen baitu. Interesgarria izango da, hortaz, Euskal Herrian diharduten nazionalismoek gai honekiko zelan jokatzen duten begiratzea. Bi sektore zabal aztertuko ditugu: euskal nazionalismoa eta espainiar nazionalismoa.

## 3. Euskal eta espainiar nazionalismoak etorkinen hizkuntza eskubideen aurrean

Euskal Herrian diharduten bi nazionalismo esanguratsuenek afera honi buruz dituzten posizioez gako batzuk emango ditugu jarraian. Horretarako, euskal nazionalismoaren jarrera ezagutzeko, orain dela gutxi egindako ikerketa batean oinarrituko gara. Euskal nazionalismotik at kokatzen direnak, berriz, era orokorrago batean aztertuko ditugu.

**Euskal nazionalismoak**, immigrazioa eta hizkuntzen auzia harremanetan jartzean, ondoko diskurtso teorikoa garatzen du: Euskarak eremu publikoko hizkuntza izan beharko luke; hortaz, komunitate desberdinen arteko zubia litzateke, nazio hizkuntzaren papera betez. Euskal nazionalismoarentzat “estatuaren hizkuntza” euskarak izan behar luke, beti ere mugimendu horren planteamendu teorikoaz ari garela. Hala ere, euskal nazionalismoaren ildo desberdinek ikuspegi desberdinak dituzte, euskararekin batera, gaztelaniak zein frantsesak bete beharreko paperaz.

Euskal nazionalismoaren planteamendu teorikoarekin jarraituz, abertzaleak etorkinen hizkuntzei buruz ere diskurtsoak garatzen hasi dira. Zentzu honetan, etorkinen identitatearen aitortza denek onartzen badute ere, zehaztapen gehiago ematerakoan euskal mugimendu nazionalistaren baitan definizio maila desberdinak antzematen dira. Aztertu ditugunen artean, EAJk zein ELAk, arrazoi desberdinak tarteko, errekonozimendu





hau ez dute gehiago zehazten (EAJrentzat, esaterako, etorkinen lege eta gizarte egoera kontuan hartuz, hizkuntzaren afera hau ez da premiazkoa). Batasuna da alor honetan zehaztapen handiagoa erakusten duena: euren ustez, etorkinen identitate etnolinguistikoa *maila publikoan ere* aitortu behar litzateke.

Euskal nazionalismoaren planteamendu teoriko orokor honek, hala ere, arazoa du bere hasieratik, eta hala azpimarratzen dute euskal nazionalistek beraiek. Euskara, egun, ez da eremu publikoko hizkuntza nagusia eta, beraz, ezin du bete nazio hizkuntzaren funtzio hori. Toki zehatz batzuetan agian betetzen du (Ondarroa), eta hori aipatzen dute euskal nazionalistek eredu gisa.

Bestalde, euskal nazionalistak, oro har, kontziente dira beraien gizarte oinarrian immigrazioa euskararentzako arrisku gisa har daitekeela. Hortaz, arrisku hori gainditzeko planteamenduak garatzen dituzte eta barne pedagogia egitearen beharra azaltzen dute (beste kontu bat da ideiok errealitatean garatzen diren). Hala ere, arazo honen larritasuna erlatibizaturik geratzen da euskararentzat handiagoa den beste arazo batek estalirik, ez baitira etorkinak euskararik ez dakiten bakarrak, bertako biztanleria bera baizik. Era berean, ezin dugu ahaztu etorkinen kopurua txikia dela Euskal Herrian, leku batzuetan esanguratsua bada ere.

Euskal nazionalismoak gai honetan planteatzen dituen teoriaren eta errealitatearen arteko aldea handia da, hortaz. Euskarak ez du beti integrazio hizkuntzaren papera betetzen. Bai, ordea, gaztelaniak edota frantsesak. Egoera konplexu honetan etorkinen hizkuntzak sartzerakoan, teorian, etorkinen hizkuntzak aitortzearen alde egiten du euskal nazionalismoak. Baina ideia horretan sakonduz gero, aitortzak erabilera publikoa esan nahi badu, zein hizkuntzari (euskarari ala gaztelania/frantsesari) kendu beharko litzaioke “tartea” aitortza hori garatzeko?

Egoera hori oraindik ez da gertatu Euskal Herriko gizartean, besteak beste, etorkinen kopurua txikia delako. Horrela, euskal nazionalismoa definizio maila horretara oraindik ez da iritsi. Hala ere, pentsatzekoa litzateke etorkizun ez hurbil batean halako egoera batera helduko bagina, eta etorkinek euren hizkuntza eskubideak errebindikatuko balituzte, euskal nazionalismoak (espainiar eta frantziar nazionalismoak bezala) euskararen eremuak defendatzera joko lukeela, eta horrek gatazka sortzeko aukera ekar lezakeela.

Euskal nazionalismoaren posizioa azaldu ondoren, begira dezagun, hain zuzen ere, euren burua **euskal nazionalismotik at** kokatzen duten alderdi politiko batzuen jarrera, oso labur bada ere. Horretarako, Euskadiko PPren, PSEren eta Ezker Batuaren dokumentu batzuetan oinarritu gara.

Euskadiko Alderdi Popularrak, horrela, ez du etorkinen hizkuntzen onarpenari buruzko posiziorik plazaratzen. Hau da, alderdi honek immigrazioari buruz planteatzen duen ikuspegia alde batera utzita, badirudi PPk gai hau ez duela kontuan hartzen. Hizkuntza zein kulturari eginiko aipuetan, bertako hizkuntza jakitearen beharra azpimarratzen du, etorkinenenari erreferentziarik egin gabe. Beste maila batean, PSEk etorkinen kulturari erreferentzia batzuk egiten dizkie, etorkinen hizkuntzak eta kulturak maila publikoan onarpenik izan beharko lukeen argitu gabe. Bestetik, Ezker Batuak etorkinen kultura eta hizkuntzen nolabaiteko aitortza jasotzen du bere idatzietan. EBk integrazioaz hitz egiterakoan, integrazio horrek aldebikoa izan behar duela defendatzen du eta, beraz, bertako biztanleriak ere etorkinei gerturatzeko ahalegina egin beharko lukeela.

Orokorrean, beraz, etorkinen hizkuntza eskubideei dagokienez, euskal nazionalismoak besteak baino jarrera ezkorragoa duenik ezin da esan, gizarte pertzepzioak kontrakoa dioela dirudien arren. Bereizketarik egotekotan, ezker-eskuin ardatzean egon daitezkeela ematen du, ezkerreko alderdiek aipagai ditugun eskubide horiek aitortzeko joera baitute. Horrela egiten dute, esaterako, Batasunak zein Ezker Batuak. Eta jarrera itxiagoak, edo isilagoak zenbaitetan, ikusten ditugu eskuineko indarren artean

Zergatik euskal nazionalismoaren kontrako iritzi hori, ordea? Egia esanda, iritzi hori ez da oinarritzen euskal nazionalismoaren planteamendu teorikoan eta egungo praktikan. Baina gogoratu behar dugu euskal nazionalismoa euskararen aldeko jarrerarekin lotu ohi dela, eta batzuetan, gizartean euskara zailtasunak dakartzan ezaugarri gisa ikusia dela askotan. Hala ikusten dute batzuek lan munduko hizkuntza eskakizunetan, adibidez. Horrela, euskara integrazioarekin lotu baino, eskakizun eta “arazoekin” lotzen da maiz. Hortik etor daiteke, besteak beste, euskal nazionalismoa etorkinen auzirako galgatzat hartzearen pertzepzio hori. Espainiar nazionalismoaren kasuan ez da berdin gertatzen, aitzitik, hizkuntzaren eta kulturaren arloan ez baita euskal nazionalismoa bezain aldarrikatzaile agertzen, helburu horiek lortzeko estatuaren bitarteak erabiltzen ditu eta.

Etorkinen hizkuntza eskubideen onarpenaren auzian, nazioari buruzko ikuspegi politikoa ez da funtsezko elementua jarrerak alde batera edo bestera mugitzerakoan.

Hala ere, aipatutako euskal nazionalismoaren aurkako iritzi horrek hartu-eman estua du Euskal Herriko eztabaida politikoekin. Dinamika horretan, ezker-eskuin ardatza ezkutaturik geratzen da hainbatetan, eta etorkinen hizkuntza eskubideen onarpenarekiko desberdintasunak zehazterakoan, ardatz horixe da esanguratsua.





Finean, etorkinen hizkuntza eskubideen onarpenaren auzian, nazioari buruzko ikuspegi politikoa ez da funtsezko elementua jarrerak alde batera (etorkinen hizkuntza eskubideen onarpena eremu publikoan) edo bestera (eskubideak maila pribatura mugatzea) mugitzerakoan. Jarrera horretan, askoz ere eragin handiagoa du gizarte ereduari buruzko ikuspegiak eta, beraz, ezker-eskuin ardatz politikoak.

**Egoera laburtuz**

Normalean pentsa ezina izaten da hizkuntza bat ofiziala izatea eta lurralde horretako biztanle guztiek ez jakitea. Euskal Herrian, euskara ofiziala den eskualdeetan horixe gertatzen da, eta horrek etorkinen interesa gutxitzeaz gain, gatazka sor dezake euskara eta etorkinen hizkuntzen artean. Izan ere, ofizialtasuna biztanle guztien ezagutzari loturik ez badoa, pentsa daiteke etorkinen hizkuntzaren bat ofizial bihurtzea hiztun kopuru esanguratsu bat baduelako? Eta horren harira, hizkuntza eskubideak hiztun kopuruari loturik joan behar dira, irtenbide pertsonal batek proposatuko lukeen bezala? Non ipini muga, bestalde?

Erantzuna ezezkoa izan liteke, ofizialtasuna, hiztun kopuruari baino, historian justifikatutako eskubideei loturik doalako. Hau da, euskara ofiziala izatea, Euskal Herria, teorikoki, euskararen herria delako. Kasu horretan, oraingo etorkinen hizkuntza bat inoiz ere ezin liteke ofizial bihurtu, hiztun kopuru oso handia edukiko balu ere?

> Nazio ikuspegiak baino, gizarte ikuspegiak eragiten du balorazioan, eta ezkerraren ikuspegia eskuzabalago agertzen da eskuinarena baino.

Eta hortik, hirugarren arazo bat planteatu nahi dugu. Etorkinen eskubideez etengabe hitz egiten den arren, 'integratu' beharra ere etengabe agertzen da. Pentsa liteke, beraz, etorkinen hizkuntza eskubideez hitz egiten denean, helburua gehiago dela integrazioa bera eskubideak bermatzea baino. Nolabait esateko, eskubideak 'integrazio' eroso eta lasaia egiteko formula izango litzateke, egoera traumatikorik sortu behar izan gabe. Baina azken helburua integratzea izanik. Hortik sortzen den galdera da, ia hizkuntza eskubideak eskubide diren, edo etorkinen hizkuntza eta kulturarekiko hurbilketa bilatzen den integrazioa errazteko. Bigarren kasu honetan, etorkinen kultura eta hizkuntzarekiko nolabaiteko keinuak egingo lirateke, baina euren biziraupenerako neurri errealak hartu gabe. Etorkinek euren hizkuntza garatzeko eskubidea dutela aitortuko balitz, ordea, hizkuntza horiek espazio publikoan nolabaiteko isla izan beharko lukete.

Horren harira, eta **etorkinen aldetik begiratuta,** uste dugu hizkuntza eskubideak onartu behar zaizkiela, baldin eta zehaztea zailak diren bi baldintza betetzen badira: etorkinen beraien eskaera izatea, eta kopuru nahikoa izatea. Zailtasuna, noski, baldintzen balorazioan datza, ezen zer da etorkinek eurek eskaera egitea, edo kopuru nahikoa izatea?

Balorazio horretan zer esan handia dauka, zalantzarik ez, eragile politikoen ideologiak, baina gizarte ereduari dagokion aldetik, eta ez nazio ereduari dagokionetik. Hots, nazio ikuspegiak baino, gizarte ikuspegiak eragiten du balorazioan, eta ezkerraren ikuspegia eskuzabalago agertzen da eskuinarena baino.

Desberdintasunak desberdintasun, eragile horiek, politiko diren neurrian, politikoki zuzentasunez jokatzen dute, eta hortaz, pertsona gisako etorkinen eskubideak onartzeko joera dago gure gizartean. Aztertzen ari garen gaian, ordea, arazo kulturala agertzen da, eta kasu horretan nazio ikuspegitik errezeluz jokatu ohi da. Izan ere, agertzen den kezka da zein punturaino babestu behar diren bestearen hizkuntza eskubideak norberarenak kolokan ipini gabe.

Horren harira, eta **harrerako herriaren aldetik begiratuta** oraingoan (hots, **Euskal Herriaren aldetik** kasu honetan)**,** uste dugu integrazio egoki batek etorkinak euskaraz eta frantsesez edo euskaraz eta gaztelaniaz heztea eskatzen duela. Horrek, gure ustez, etorkinen gaia gaur egun Euskal Herrian frantziar edo espainiar nazionalismoa eta euskal nazionalismoaren artean dagoen lehia politikotik ateratzea ekarriko luke, eta etorkinak arrisku gisa ez ikusteko modua izan liteke.

**Bibliografia aipamenak**


**Bauer, Otto (1979): *La cuestión de las nacionalidades y la socialdemocracia,* Mexiko: Siglo XXI (jatorrizkoa alemanez, 1907an)**

**Ezker Batua (2001): *Política migratoria justa***

Kymlicka, Will (1996): *Ciudadanía multicultural,* Bartzelona: Paidós

Laponce, Jean A. (1980): 'Le comportement spatial des groupes linguistiques. Solutions Personnelles et Solutions Territoriales aux Problèmes des Minorités', *International Political Science Review* 1: 4, 478-494 orr.

Laponce, Jean A. (1984): *Langue et Territoire,* Québec: Les Presses de l'Université Laval

**Partido Popular (2007): *Nuestro compromiso con todos los vascos***

PSE-EE (2007): *Programa electoral. Elecciones forales y municipales*





# Immigrazioa eta eskubide linguistikoak

**Xabier Zabaltza (UPV - EHU)**

Lehenik eta behin, nola ez, eskerrak eman nahi dizkiot Immigrazioaren Behatokiari nigan izan duen konfiantzagatik, solasaldi honetan parte hartzeko gonbidatu bainau. Espero dut konfiantza hori ez zapuztea. Tamalez, bestelako kontuengatik ezin izan naiz gaur Bilbon egon. Barkamena eskatzen dizuet.

Kontu abstraktuez hitz egitea hainbeste atsegin duen Herri honetan, eskertzekoa da zinez behingoz kontu errealez hitz egiteko aukera izatea. Immigrazioa egiazko, ez alegiazko, erronka bat baita. Etorkinendako lehenago, noski. Baina guretako ere bai.

Bizi naizen auzotik atera gabe, mundu osoa ikusten ahal dut: txinatar jatetxe bat, eslaviar produktuen denda bat, Saharaz hegoaldeko familia baten telefono-mintzaleku bat, turkiar elikagai-postu bat… Ez du zerikusirik haurtzaroan ezagutu nuenarekin. Egun batzuetan maizago entzuten ditut etorkin horien hizkuntzak (batzuk guztiz ezezagunak dira enetako) euskara baino. Nafarroako herri askotan gehiago dira arabieraz edo errumanieraz mintzatzen direnak euskaraz mintzatzen direnak baino. Gustatu edo ez, errealitate berri hau saihestezina da eta nazioak eta estatuak gainditzen ditu.

Euskal Herriko gaur egungo egoera Sabino Aranak edo ETAren sortzaileek ezagutu eta aurreikusi zutenetik oso bereizia da. Mundua aldatu da, eta gero eta lasterrago aldatzen segituko du. Batzuek pentsatzen dugu XIX. mendeko eta XX. mendearen lehen erdialdeko dogma batzuk, “independentzia”, “subiranotasuna”, baita “elebakartasuna” ere… zaharkiturik daudela XXI. mendean, baina apaltasunez aitortu behar dugu oraindik ez dugula haien ordezkorik asmatu. Orain “globalizazioak” edo “Europaren eraikuntzak” dute sapa handiagoa. Politikariek hainbestetan dituzte hizpide kontzeptu horiek ezen erabat asperturik baikauzkate. Hala ere, behingoz, politikariek arrazoi dute. Globalizazioarekin eta Europaren eraikuntzarekin batera, immigrazioa da hirugarren gakoa mundu berrian. Hirurek ezbaian jarriko dituzte sarri, jarriak ez badituzte, “euskaldun”, “espainol” eta “frantses” nortasunak ulertzeko moduak.

Nola begiratu behar diogu immigrazio uhin berriari? Ez dago erantzun sinplerik. Esan dezakedan ia gauza bakarra da konponbide errazek ez dutela balio. Multikulturalismoak –herrialde anglosaxoietako ereduak– eta integrazioak, biek, dituzte mugak. Alde onak eta alde txarrak. Jarrera ireki bat eduki behar dugu fenomeno honen aurrean. Beldurrak, katastrofismoak edo ez-ikusiarena egiteak ez dute onik eginen.

Solasaldi honetan, Europar Batasunetik kanpoko immigrazioaz arituko naiz gehienbat. Egia esan, fenomeno hori hasi berria da eta, beraz, oso zaila da asmatzen geroan izan ditzakeen nondik norakoak. Ortega y Gassetek zioenez, historialari bat atzera begira dagoen profeta bat da. Hura parafraseatuz, esan dezakegu profeta bat gerora begira dagoen historialari bat dela. Hemen gehiago mintzatuko bainaiz geroaz, iraganaz edo orainaz baino eta, noski, ez da batere erraza iragartzen zer gertatzen ahal den. Barkatu ene atrebentzia.

Ez dago gaizki gogoraraztea gure arbasoak ere emigranteak izan zirela eta ez zirela sobera kezkatu beren helmugako herrietako jatorrizko bizilagunen eskubide linguistikoez, Ameriketan eta Filipinetan, adibidez. “Immigrazioa eta eskubide linguistikoak” aipatzen ditudanean argitu nahi nuke hiztunen eskubideez ari naizela. Hiztun horiek hemen jaioak izaten ahal dira edo kanpotik etorriak. Batzuek eta besteek dituzte eskubideak, pertsonak diren aldetik, hizkuntzek ez baitute eskubiderik. Nola bateratu guztion eskubideak, askotan elkarrekin konfliktoan izanen baitira. Hortxe dago koxka.

Erresuma Batua edo Estatu Batuak ez bezala, Espainia-Frantziak, Euskal Herria barne, gehiago dagozkio tradizio jakobinoari multikulturalistari baino. Hego Euskal Herrian beste autonomia erkidegoetako etorkinak arrakasta handi samarraz integratu ditugu (ez, ordea, ijitoak, bostehun urtez gure artean bizi izan direnak, ijito asko, “motxaileak”, euskaldunak badira ere) eta pentsatzekoa da gure joera dela etorkin berriak edo etorkin berrien seme-alabak behintzat gure kulturara erakartzeko eta ez multikulturalismoa (geroko utziko dut zein den gure “kultura” hori). Dena dela, eztabaida ireki bat da eta eredu bata bestea bezain demokratikoa eta bata bestea bezain mugatua izaten ahal da.

> Konponbide errazek ez dute balio. Jarrera ireki bat eduki behar dugu fenomeno honen aurrean.

Ez dago errezeta magikorik immigrazioaren aurrean. Alde batetik, etorkinak behar ditugu gure ongizateari eutsiko badiogu (beste konponbide bat gure alimaleko kontsumoa jaistea izanen litzateke, baina, berriki arte hori ia inori ez zaio bururatu). Bestetik, etorkin asko urrun daude gure pentsamoldeetatik eta konfliktoak sortzen ari dira kanpotik etorri direnen eta hemen jaio





Gaur mendebaldeko herrialdeetan *jus linguae* sortzen ari da, nazionalismo “etnikoaren” eta nazionalismo “zibikoaren” arteko sintesi moduan.

direnen artean. Gizarte demokratiko batean konfliktoak modu baketsuan bideratu beharko lirateke eta halaxe gertatuko dela espero dut.

Legezko immigrazioaren inguruan eta zer esanik ez legez kanpoko immigrazioaren inguruan, sortzen diren problemek Lehen Mundu osoa astintzen dute. Ez eskuinak eta ez ezkerrak, ez nazionalismo estatudunak eta ez nazionalismo estatugabeak, ez dute panazearik. Jakobinismoaren eta herritarren arteko berdintasunaren paradigma aipatzeagatik, gaur ez da aski Frantzian jaioa izatea frantses herritarra izateko. Eta gero eta gehiago eskatzen da frantsesez jakitea Frantziara legezko modu batean emigratu ahal izateko. Europar Batasunetik kanpoko immigrazioaren indarrak Frantziako *jus soli* kontzeptu ustez aurrerakoia eta Alemaniako *jus sanguinis* kontzeptu ustez atzerakoia hurbildu ditu. Gaur mendebaleko herrialdeetan *jus linguae* sortzen ari da, nazionalismo “etnikoaren” eta nazionalismo “zibikoaren” arteko sintesi moduan (zer esanik ez, bi nazionalismo mota horien artean bereiztea oso erosoa bada ere, paperean baizik ez dira egoera puruan agertzen, nazionalismo guztiek osagai “etnikoak” eta “zibikoak” nahasten dituzte eta). Protestanteen eta katolikoen arteko 1555eko Augsburgeko Bakea *“cuius regio, eius religio”* printzipioan oinarritu bazen (lurralde bateko bizilagun guztiek lurralde horretako erlijioa praktikatu behar zuten nahitaez), badirudi nazionalismo guztiak bat etorri direla *“cuius regio, eius lingua”* printzipioa onartzerakoan. Printzipio hori berdin aplikatzen ahal da tradizio jakobinoko eta tradizio germaniarreko herrialdeetan, tokian tokiko hizkuntza ofiziala eta bizilagun gehienek hitz egiten dutena bat direlako. Zazpiak-Baten, ordea, lau eremu linguistiko daude (euskararena, gaztelaniarena, frantsesarena eta, oraindik ere, gaskoiarena) eta horrek ikaragarri baldintzatzen gaitu. Zorionez edo zoritxarrez, Euskal Herriko egoera soziolinguistikoak ez du zerikusirik Kataluniakoarekin.

Euskal Herriak badu beste begibistako problema bat, Espainiak eta Frantziak ez dutena. Estaturik eza, jakina. Hala bizi izan gara ehunka urtez eta oso litekeena da horrela segitzea luzaz. Galdera da nola uztartzen ahal ditugun euskararen iraupena erdal herrietatik datozen pertsonen eskubideekin. Nola uztartzen ahal ditugun ikuspegi aurrerakoi batetik, jakina, *apartheida* eta *ghettoak* ez baititut batere atsegin. Baztertzekoa iruditzen zait Letonian edo Estonian indarrean jarri duten eredua, alegia, Errusiako etorkinei ez ezik (Rigako eta Tallingo gobernuek “kolonoak” deitzen diete), kasu batzuetan haien seme-alabei edo haien ilobei ere herritartasuna ukatu baitiete letonieraz edo estonieraz dakitela frogatu arte. Edo Katalunian ustezko ezker muturreko independentista batzuek proposatu dutena, alegia: Latinamerikako etorkinak baztertzea, gaztelaniaz dakitenez, ez dutelako katalana ikasi nahi izaten. Euskal Herrian suizida izanen litzateke eredu hori. Hasteko euskaldunak gutxiengo bat direlako toki askotan eta ezin zaielako eskatu kanpotik datozenei hemen jaio direnei eskatzen ez zaiena. Euskaraz jakin gabe (edo oso gaizki jakinda) lehendakaria izaten ahal bada, bidegabekeria iruditzen zait berriki etorri diren langileak euskalduntzera behartzea. Bidegabekeria, eta biderik hoberena haiek uxatzeko.

Ezin da iragarpen zehatzik egin immigrazioak hizkuntzen bilakaeraz duen eraginaz. Ameriketako lehen bizilagunen mintzaira asko desagertu ziren europar kolonizazioaren eraginez, baina, gaur egun Paraguaiko bizilagun gehienek hitz egiten dute guaraniz eta hiztun horietariko asko zuriak dira, Espainiako etorkinen ondorengoak. Immigrazio handia hartu duten nazioetan, estatudun zein estatugabe, gauza bitxiak gertatzen ahal dira. Maiz etorkinen seme-alabak sorterri berriko nazionalista sutsuak bihurtzen dira. Denok ezagutzen ditugu gaztelaniazko edo frantsesezko deiturak dituzten abertzale porrokatuak eta, zergatik ez, sarri ketxuazkoak edo errusierazkoak dituztenak ezagutuko ditugu. Nazionalismo linguistikoak, batzuetan oso esentzialistak eta intoleranteak izanik ere, elkarganatzaileak izaten dira, edo, formalismo politikoki zuzenik gabe, asimilazionistak. Berez, ustezko nazionalismo “zibiko” asko ere nazionalismo linguistikoak izaten dira, kontrolatzen duten lurraldean hizkuntza bakar bat ezartzeko joera baitute. Euskal Herriaren berezitasuna da hemen nazionalismo linguistikoa ahula dela, eskakizun politikoen mende izaten baita, arrazoi soziolinguistikoengatik (lau herritarretik batek bakarrik daki euskaraz) eta historikoengatik (Zazpiak-Bateko toki askotan euskara oso gutxi, edo bat ere ez, mintzatua izan da beti).

Mundu bitxia gurea. Lau haizeetako produktuak salgai daude gure dendetan, baina produktu horiek egiten dituzten langileek ez dute askatasunez gurera etortzerik. Kontraesan galanta gure sistemarena eta sistema honen barruan, gogoz edo kontra, bizi garen guztiona. Merkatuak agintzen du eta gobernuek, maiz, haren aginduak kudeatu baizik ez dute egiten.

Segitu baino lehen esan behar dut ez dudala batere sinesten diskurtso politikoki zuzenetan. Asmo oneko pertsona eta erakunde batzuek esaten dute estatuek ez lioketela inolako eragozpenik jarri beharko immigrazioari eta, beraz, nahi duten guztiek eskubidea izan beharko luketela Lehen Mundura etortzeko. Eskuzabaltasun hori eskertzekoa da eta primeran legoke gizakiok Rousseauk pentsatu bezalakoak bagina, baina, tamalez, Hobbesek zuen arrazoi. Esaera





zaharrak dioen bezala, infernuko bidea asmo onez beterik dago.

"Laissez faire" politika onartezina da. Estatuek arautu egin behar dute immigrazioa, arautzen ez badute, oihaneko legea izanen baita nagusi herrialde hartzaileetan, lehenik eta behin etorkinendako berendako. Ez da justua, badakit, baina hobea onaren etsaia izaten da. Etorkinak inolako murrizketarik gabe etorriko balira hemengo probokatzaile eta demagogo profesionalek sekulako arrakasta izanen lukete. Denok, agintari publikoak eta herritar soilak, ahaleginak egin behar ditugu arrazakeriari eta faxismoari aitzakiak kentzeko. Bertold Brechtek –uste dut– aspaldi iragarri zuen bezala eta azken asteetako gertakariek frogatu duten bezala, "zakurremea ernari dago" eta. Immigrazioan politika arduratsu baten beharra daukagu, etorkinak berak izanen baitira lehen onuradunak.

Immigrazioa kontrolatu egin behar dela diot, baina, hemen bizi diren etorkinei oinarrizko eskubide guztiak aitortu beharko litzaizkiekeela ere bai: osasungintza, hezkuntza, gizarte segurantza, etxebizitza eta abar. Nire ustez, eskubide linguistikoak ez dira oinarrizko eskubideak. Gure eskubide linguistikoak eta etorkinen oinarrizko eskubideak bateragarriak direnean ez dago problemarik, baina inoiz bateraezinak izanen balira, haien oinarrizko eskubideek lehentasuna izan beharko lukete gure eskubide linguistikoen aldean. Aitzitik, lehia gure eta haien eskubide linguistikoen artekoa balitz, gureak lehenetsi beharko lirateke, *"cuius regio, eius lingua"* printzipioa oinarri. Hala ere, printzipio hori ez da absolutua. Etorkinek, dirudienez, oraindik ez dute aldarrikatzen beren ama-hizkuntzen onarpen ofizialik, baina, eskari bat balego erantzun bat eman beharko litzaioke. Estatu anglosaxoietan ez dago eragozpenik horretarako eta Ingalaterran adibidez punjabizko eskolek arrakasta handiz dihardute, maiz bertako ingelesezko eskola publikoek baino hobeki.

"Eskubide linguistikoak" hizpide ditugunean, nork bere eskubideak izaten ditu gogoan eta besteenak ahanzten. Immigrazioarekin, euskaldunen eta gaztelaniadunen arteko liskarrak beste modu batean azaleratuko dira. Dialektika berri batean murgildu gara. Euskal Herria ez da beste Maroko bat edo beste Ekuador bat izanen, beste Gaztela bat ez den bezala, baina orain arte ezagutu dugun Euskal Herria ere bukatu da (tira, orain arte ezagutu ditugun Maroko, Ekuador eta Gaztela ere bukatu dira). "Estatua" eta "nazioa" kontzeptuak berak daude ezbaian. Iraultza Frantsesarekin batera zabaldu zen leloak, nazio guztietan, estatudun edo ez, gauzatzen saiatu diren horrek, "*hizkuntza bat, lurralde bat, lege bat*", ez du balio (inoiz balio izan badu), baina oraindik ez dugu eskura horren ordezkorik. Orain arteko diglosia tipikoa –gaztelania eta frantsesa goian eta euskara bakarrik behean– agortu da. Orain maila berriak agertu dira, etorkinen hizkuntzak –ehun baino gehiago Euskal Herrian– euskararen azpitik eta ingeles guztiahalduna gaztelaniaren eta frantsesaren gainetik. Egoera berri hau, berez, ez da txarra euskararendako, gaztelaniak eta frantsesak euskararen aldean izan duten prestigioa galdu eginen baitute ingelesaren aldean. Europan gaztelaniaz dakitenak ukraineraz edo polonieraz dakitenak adina dira, ez gehiago. Europan gaztelania eta frantsesa ez dira jadanik A mailako hizkuntzak. Nazionalista espainolak ez dira oraindik konturatu gaztelaniaren nagusigoaren etsaia ingelesa dela eta ez katalana, galegoa edo euskara.

Nafarroako errealitatea hobeki ezagutzen dut Euskal Herriko beste herrialdeetakoa baino, beraz Erresuma Zaharra izanen dut hizpide, laburki bada ere. Nafarroan bizi diren etorkin gehienek ez dute inolako interesik erakutsi euskalduntzeko. Azken datuen arabera ehun etorkinetik batek bakarrik aukeratzen du D eredua bere seme-alabendako. Egia esan, eta hau ere ez da politikoki zuzena, Nafarroan jaiotako askok oraindik orain ez zuten aparteko interesik euskararekiko. Guraso batzuek ikastetxe publikoetako D adarrera edo ikastola pribatuetara eramaten dituzte beren seme-alabak ez dutelako nahi etorkinen seme-alabekin nahas daitezen. Euskara, batzuendako, ez bide da komunikabide bat, bereizgarri bat baizik. Etorkinak hasiko balira beren seme-alabei euskara irakasten, nafar guraso batzuek beren haurrei ingelesa, alemana edo errusiera irakatsiko liekete. UPNk ongi daki hori eta horregatik abiarazi du ingelesezko adarra Iruñerrian.

Gehiegikeriarik gabe, baikorra naiz. Uste dut euskarak ehunka urtez erakutsi digula bizitzeko gaitasuna duela, inolako onarpen administratiborik gabe eta maiz bi estatu eta bi estatu horietako eliteak (Euskal Herrikoak barne) kontra izan dituela. Etorkinek entzuten dutena ikasiko dute. Kalean euskara entzuten bada, euskara ikasiko dute. Erdara entzuten badute, erdara ikasiko dute. Ez zait errealista iruditzen, baina, erdara baizik hitz egiten ez den tokietan etorkinek euskaraz hitz eginen dutela pentsatzea. *"Cuis regio, eius lingua"* printzipioa egiazki hitz egiten den hizkuntzaren arabera burutzen ahal da, ez ofizala den hizkuntzaren arabera.

> Etorkinek oraindik ez dute aldarrikatzen beren ama-hizkuntzen onarpen ofizialik, baina, eskari bat balego, erantzun bat eman beharko litzaioke.

Euskarak aurrera egiteko lehen baldintza ametsak eta errealitatea bereizten jakitea da. Orain Josu Mezoren tesi mamitsua aipatu nahi nuke. Haren arabera, ez da egia Irlandako Gobernuak gaelikoa baztertu zuela ingelesaren onerako independentzia lortzean. Aitzitik, ahalegin guztiak egin zituen hizkuntzak irauteko. Mezok dioenez, espektatiba handiegia piztu zen Liga Gaelikoaren sorrerari jarraitu zion le-





hen pizkundearen ondoren (1893an), oinarri sendorik gabe. Irlandar askok pentsatu zuten independentzia eta ofizialtasuna aski izan zitezkeela gaelikoa uharte osoan berreskuratzeko (artean bost irlandarretik batek zekien gaelikoz). Helburu handimandien ondoren frustrazioa sortu zen hiztunen beren artean eta frustrazioaren ondoren denok ezagutzen dugun egoera tamalgarria. Hori bai: Irlandako Errepublika independentea da eta gaelikoa, oraindik ere, bertako lehen hizkuntza nazionala da ofizialki.

Oraindik agertzeke dagoen paradigma baten beharra daukagu. Gizabakoen eta giza taldeen aukera nazional eta linguistikoak errespetatzen dituen paradigma baten beharra.

Nire ustez Irlanda kontraeredu bat da Euskal Herriarendako. Errealismoa behar dugu. Gure muga eta eragozpenez konturatu behar dugu, behingoz. Nafarroan ez dugu problema hori (beste problema larri batzuk, ordea, bai), ofizialtasuna errealitate sozialaren atzetik baitoa, baina Hirurak-Baten, asmoak asmo, egoera ofiziala eta errealitate linguistikoa maiz ez dira bat etortzen.

Immigrazioa geldiezina da. Gustatu edo ez, abagune honetan, etorkinak gero eta gehiago izanen dira. Nazionalismo politikoak XIX. mendean sortu ziren eta ez dute balio egoera honetarako. Oraindik agertzeke dagoen paradigma baten beharra daukagu. Gizabanakoen eta giza taldeen aukera nazional eta linguistikoak errespetatzen dituen paradigma baten beharra. Euskal Herria Europaren hegoaldeko pasabide batean dago. Ezin ditugu gure mugak itxi. Independienteak izanen bagina ere, estatu bat bagenu ere, ezin genitzake itxi. Euskara eta balio demokratikoak bateragarri egin behar ditugu, are bateragarriago etorkinak erakarriko baditugu (horrek ez du esan nahi, noski, lanpostu edo egoera batzuetan euskarak ez duela nahitaezkoa izan behar, baina pentsatzen dut politikari abertzaleek etsenplua eman beharko luketela).

Nazionalismo politikoak gainditauk badira, estatu-nazionalismoak ere bai, noski. Aski da Europatik ateratzea konturatzeko gaur egun ez dagoela diferentzia handirik Espaniaren eta Italiaren artean, edo Frantziaren eta Alemaniaren artean. Nortasun nazional guztiak kili-kolo daude eta, batzuetan, autodefentsa mekanismo baten bidez, nazionalismo baztertzaileak sortu dira, faxismotik oso gertu daudenak, Flandesen, Suitzan eta beste hainbat tokitan. Ez nuke nahi Euskal Herrian horrela gerta ledin. Hizkuntza gorabehera, Lehen Munduko herrien artean ez dago alde handirik. Nik, behintzat, ez dut ikusten. Alde nagusia Lehen Munduaren eta Hirugarren Munduaren artekoa da, "eskubide linguistikoak" eta abar aldarrikatzen ditugunon eta eskubide horiek amets ere ez dituztenen artekoa, alegia.

Lehen esan dudan bezala: bizitza ez da justua.





# Begiratu bat, orbitatik

**David Anaut, idazlea**

“Immigrazioa, euskara eta hizkuntza eskubideak”. Gai horri begira jarrita, ezin gainetik kendu orbitatik ikusten ari naizelako sentsazioa. Alegia, inguruan bueltaka, baina sekula erdiguneraino iritsi gabe. Batzuetan hurbilago, urrunago besteetan, baina beti inguruan jira-biraka. Ez dakit noiz entzun nuen lehendabiziko aldiz “etorkin” hitza euskalgintzako bilera batean. Urte batzuk joan izan dira, ziur asko. Harez geroztik, askotan aditutako esaldia da: “…eta etorkinak”. Langaiak eta lehentasunak identifikatzeko garaian, izanen zen beti “…eta etorkinak” esaldia esanen zuena. Baietz denok, hori ere landu behar zela, baina orbitatik begira jarraitu dugu gutako askok. Ez denok, zorionez.

## Ekuazio berria

Errealitatea aztertzeko, errealitate hori edozein dela ere, lagungarri gertatzen da aztergaiak banatzea eta sailkatzea, begirada zorrozteko. Euskalgintzan ere horrela egiten dugu askotan, eta “hezkuntza eta euskara”, “administrazioa eta euskara”, “hedabideak eta euskara”, “lan-mundua eta euskara” gisako ekuazioak sortzen ditugu. “Etorkinak eta euskara” ekuazioa ere aipagai eta aztergai izan dugu, baina badu horrek besteek ez duten zerbait. Izan ere, aurretik aipatutako horietan, ekuazioaren bi elementuak oso ezagunak egiten zaizkigu. Denok dastatu, gozatu, sufritu edo ezagutu dugu administrazioa, edo hezkuntza, edo lan-mundua… Baditugu, gutxi- asko, alor horietako bizipenak.
“Euskara eta etorkinak” ekuazioan, ordea, bigarren elementua askori arrotza egiten zaigulakoan nago. Alegia, ez diogu aurpegirik, izen-abizenik, bizipenik jartzen.
Izan ere, nolakoak gara euskalgintzako kideak? Ez gara, zorionez, uniformeak eta homogeneoak. Baina iruditzen zait, hala ere, oro har, gure harreman-sarea oso “bertakoa” eta oso “hemengoa” dela, eta, konparaziora, etorkinekin harreman eskasa dugula. Ñabardura bat egin dezagun: gure auzo-estatuetatik etorri ez diren etorkinez ari naiz gehienbat.
Nolako hurbiltasuna eta lotura dugu haiekin? Jar gaitezke haien tokian? Batzen eta banatzen gaituena identifika dezakegu? Gai horri begiratzeko, eta are gehiago lantzeko, ezinbestekoa dirudi ezagutza hori, baina eskas samar ez ote gabiltzan… Tira, akaso nirea den hutsunea beste guztiengan proiektatzen ari naiz eta gauzak ez dira horrela.

## Letraduak badaki, probatuak hobeki

Egia da —norbaitek akaso gogoraraziko baitit— euskalgintzako kideok euskara eta immigrazioaren arteko harremana aztertzeko hitzaldiak, jardunaldiak, mintegiak antolatu ditugula, eta baita hainbat txosten eta artikulu irakurri ere.
Gutxi-asko, ahalegintxo horren ondorioz immigrazioari buruzko zenbait kontzeptu teoriko ezagutu dugu, itsaso teoriko horretan igeri egiten hasteko moduan, sarri itotzeko arriskuan bagaude ere. Batzuetan, etorkinen ahotan ere jakin dugu egoeraren berri: etorkin kontzienteak izan ohi dira, egoeraz jabetuak eta hausnarketa esplizitua egin dutenak, bertakotuak...
Azalpen eta deskribaketa teoriko horiei, ordea, aurpegia jarri behar diegu, izena, bizipenak, bihotza… eta hori zailagoa gertatzen zait niri behintzat. Eta sentsazio hori deskribatzeko, Leitzan jasotako esaera etorri zait gogora: *Letraduak badaki, probatuak hobeki*. Alegia, irakurri dugu, hitzaldiak eta komunikazioak entzun, ezagutza teoriko minimo bat jaso, baina ez dugu probatu etorkina izatea zer den. Hedabideak, eskola edo lan-mundua ez bezala, ez dugu dastatu, gozatu, sufritu edo ezagutu etorkina izatea zer den. Gehienok bederen.
Tira, honaino “immigrazioa, euskara eta hizkuntza eskubidea” gaia aztertzeak eragiten didan sentsazioa, nire ustez gogoan izan beharreko abiapuntua. “Orbitatik” egiten dudala aldez aurretik aitortuta, saiatuko naiz begiratu bat ematen. “Immigrazioa, euskara eta hizkuntza eskubideak” ekuazioko hiru elementuei begiratuko diegu, ordena horretan.

> Euskara eta balio demokratikoak bateragarri egin behar ditugu, are bateragarriago etorkinak erakarriko baditugu.

## Immigrazioa: etorkinak. 110 mundu?

“Etorkinak” esaten dugu askotan, baina ez dut uste subjektu bat eta bakarra direnik, subjektu asko baizik. Etorkinei buruz hitz egin dezakegu? Gazteei buruz hitz egin dezakegu? Eta emakumeei buruz? Edo euskaldunei buruz? Gorde ditzakegu izen baten azpian hainbeste errealitate, hain errealitate konplexua?
Dirudienez, 110 hizkuntza entzun litezke Euskal Herrian. Esan ohi da, nahiz eta nik gero eta zalantza han-





diagoak ditudan horren inguruan, hizkuntza bakoitzak mundua ikusteko era bat ematen duela. Hala bada, “etorkinak” deitzen dugun kolektibo horretan gutxienez 110 mundu-ikuskera ditugu. Ez da, dudarik ez dena, kategoria homogeneo bat. Akaso informazio edo ezagutza eskasagatik, baina uste dut etorkinekiko daukagun joera berdintzailea izaten dela sarritan, eta joera hori saihestu egin beharko genuke, eta heterogeneotasun hori kontuan izan.

“Etorkinak” deitzen dugun kolektibo horretan gutxienez 110 mundu-ikuskera ditugu. Ez da, dudarik ez dena, kategoria homogeneo bat.

**Euskara: berreskurapenaren 0 kilometroa**

Ekuazioaren bigarren elementua: euskara. Ezin aztertuko dugu “immigrazioa, euskara eta hizkuntza eskubideak” gaia euskararen egoera orokorraren abstrakzioa eginez. Testuinguru jakin bat daukagu, ahaztu ezin duguna:

- Euskal Herrian bertako hizkuntza minorizatu bat dago: euskara.
- Abian dago, argilun handiekin bada ere, berreskurapen-prozesu bat.
- Berreskurapen-prozesua abian bada ere, etorkizuna bermatuta ez duen hizkuntza da euskara.
- Hizkuntza eskubideez ari garela, eskubide horien subjektua zein den ere ez dago legez inon jasoa, eta ez dago hizkuntza eskubide horiek aitortuko eta bermatuko dituen botere politiko bateratu edo bakarrik.

Idatzi eta jardunaldi honen gaia, beraz, testuinguru horretan kokatzen da eta ez dut uste gaia saihestu daitekeenik, eta era isolatuan plantea daitekeenik. Bi hitz, beraz, horretaz.

Egoera hori dela, zer egin behar dugu? Bada, nire ustez, berreskurapena 0 kilometroan jarri eta jauzi kualitatibo bat egin. Inflexio puntu bat behar da, neurri eraginkor batzuk hartu, eta epeak jarri. Besteak beste, noski.

Hizkuntza Politika osoak (euskara ikasteko eta erabiltzeko aukerak eta arrazoiak emanen lituzkeena) euskaldunduko gaitu denak (etorkinak eta etorkinak ez garenak). Izan ere, etorkinei, bertakoei bezala, hizkuntza eskubideak eskaintzeaz gainera, euskara ikasi eta erabiltzeko arrazoiak eskaini behar zaizkie.

Identitatea, beharra eta plazerra: hizkuntza erabiltzeko 3 arrazoi-multzo. Etorkinak Euskal Herriratzen direnean, hauetako zeinek erakartzen ditu? Nola sortu beharra, nola sortu emozioa etorkinengan euskararekin? Galdera horiei erantzuna bilatzen hasi beharko dugu, baina, nolanahi ere, uste dut konbentzionalki bertakotzat jotzen ditugun horiek euskarara ekartzen dituen politika berberak ekarriko dituela etorkinak ere euskarara. Eta hizkuntza politikaz ari garenean, ez gara dinamika normatibo eta egiturazko politika hutsaz ari, alderdi emozionalak eta afektiboak ere hartzen dituen prozesu batez baizik.

Eta, horrekin lotuta, ez zait iruditzen, hizkuntzari dagokionez, bertakoei eskatzen ez dieguna etorkinei eskatzen hasi behar dugunik. Edo, alderantziz esanda, bertakoei eskatzen dieguna eskatu beharko diegu etorkinei, eta horretarako bertakoei ematen zaien laguntza —edo gehiago— eskaini.

**Hizkuntza eskubideak I: ba ote?**

Eta hirugarren elementua: hizkuntza eskubideak. Hausnarketarako hiru ideia, abiapuntu gisa:

1. Ba ote dago hizkuntza eskubiderik? Badira horren inguruko zalantza handiak dituztenak. Gu baiezkoan geldituko gara. Era esplizituan aitortuak edo ez, beste eskubide batzuen itzalaren azpian akaso, baina egon badaudela pentsatuko dugu.
2. Euskaldunak, nago, ez ditu bere hizkuntza eskubideak ezagutzen. Ez gara horretaz oso kontziente. Eta etorkinak? Ezagutzen al dituzte beren hizkuntza eskubideak? Ez dakit hizkuntza eskubideak izatea zer den badakiten, baina ziur nago askok ongi aski dakitela hizkuntza eskubiderik ez izatea zer den.
3. Hizkuntza eskubideak bai. Eta hizkuntza betebeharrak? Euskara jakitea, esaterako. Hori ere planteatu behar al da? Bai nire ustez, baina hizkuntza eskubideen kasuan bezalaxe, ez soilik bertakoentzat edo ez soilik etorkinentzat, denontzat baizik.

**Hizkuntza eskubideak II: HEDU**

Tira, hizkuntza eskubideen gaineko zalantzak gorabehera, kudeatu beharreko gaia da. Eta orain arte gure ikuspegia bertako hizkuntza minorizatuko hiztun komunitatearena izan bada ere (euskaldunona, alegia), gaurko egoeran bi hizkuntza nagusi ditugu (gaztelania eta frantsesa), bertako hizkuntza minorizatua (euskara), eta beste 110 bat hizkuntza.

Etorkinek badute espazioa gurean, eta izan behar dute. Eta etorkinek bezala, baita etorkinen hizkuntzek ere. Hizkuntza dibertsitate horren kudeaketarako planteamendu bat behar da, ordea, batere “arautu” gabe utziz gero jakina baita zer gertatuko den: hizkuntza nagusiak nagusiago, eta gainerakoak gero eta murritzago.

Eta planteamendu hori zer oinarriren gainean eraiki? Bada, nire ustez, bi ideia oso gogoan hartzekoak dira. Batetik, eta hizkuntza ekologiaren filosofiarekin bat etorrita, hizkuntza dibertsitatea aberasgarria eta are beharrezkoa da. Eta euskara, inon biziko bada, Euskal





Herrian biziko da. Bai bi hizkuntza nagusiek eta bai etorkinen hizkuntzek, beren lurraldea dute. Euskararen lurraldea hauxe da, eta hemen bizi beharko du euskarak.

Bestetik, eta lurraldetasunaren eta bertakotasunaren ideiarekin lotuta, hizkuntza eskubideen kudeaketan bertako hizkuntza izateak, lurraldetasunak, historikotasunak… balio erantsi bat ematen diote hizkuntzari, eta bere estatusean beste maila bat.

Filosofia hori, bertako hizkuntzari aitortzen zaion estatus berezi hori, 1996an Bartzelonan onartutako Hizkuntza Eskubideen Deklarazio Unibertsalean (HEDU) jasotzen da. Deklarazio horrek hizkuntza komunitatea eta hiztun taldea bereizten ditu.

**Hizkuntza komunitatea**: "*edozein gizarte, historian zehar lur-eremu zehatz batean – eremua errekonozitua izan ala ez- finkatua, bere burua herritzat daukana, eta hizkuntza komun bat garatu duena kideen arteko komunikazio naturalaren eta kultur kohesioaren bidetzat*".

**Hizkuntza taldea**: "*edozein giza talde, hizkuntza bera duena, eta beste hizkuntza komunitatearen lur eremuan kokatua dagoena, azken honen adinako historikotasunik gabe; halakoak baitira immigratuak, errefuxiatuak, deportatuak eta diasporetako kideak*".

HEDUren arabera, hizkuntza eskubideen maximum edo gehiengoa hizkuntza komunitateak bere lurralde historikoan dauka. Euskaldunok, esaterako, hizkuntza komunitate bat osatzen dugu Euskal Herrian.

Deklarazioak dioenez, hizkuntza taldeek ere eskubideak dituzte, baina haiena lurraldeko hizkuntza propioa ez denez, ez lituzkete bertako hiztunen eskubide berberak. Nolanahi ere, gaur egun nazioartean aitortzen zaizkion eskubideek baino maila altuagoa dute HEDUk hizkuntza taldeei aitortutakoek.

HEDUk egiten duen planteamendua, zehaztapenean hasita korapilatsua izan daitekeen arren, abiapuntu egokia izan daitekeela iruditzen zait.

**Hizkuntza eskubideak III: idatzi gabeko hori**

Hizkuntzak, egoera minorizatuan dagoenean batez ere, estatus juridiko bat behar du, eta aitortza ofiziala. Ezinbestean, nire ustez. Horren osagarri, nolanahi ere, idatzi gabeko hizkuntza eskubidek ditugu, eguneroko bizitzan, egoeretan eta harremanetan denok kudeatu behar ditugunak. Artikuluekin eta legeekin baino gehiago, zentzuarekin alde batetik, harremanekin bestetik, eta hizkuntza politika esplizituarekin nahiz inplizituarekin lotu ditzakegunak.

Eta etorkinekiko harremanetan, hizkuntza eskubideez aritu behar badugu esaterako, une jakin batzuetan interesgarriagoa izan liteke hizkuntza eskubideen alderdi ez-formal eta idatzi gabeko horietaz hitz egitea eta bizipenak konpartitzea, lege edo dekretu bateko artikuluak azaltzea baino. Marko eta estatus legal horren balioa eta beharra batere ukatu gabe, aliantzak eraiki behar badira —ideia oso interesgarria iruditzen baitzait—, hasieran aipatu dudan urruntasuna gainditu, eta ikuspegiak eta bizipenak partekatzen hasi beharko dugu, diskurtso ederretan baino gehiago aldebiko enpatia batean oinarrituta. Hizkuntza gizakion gaitasun eta elementu komuna eta unibertsala den neurrian, bai baititugu konexiorako eta kohesiorako bideak.

Hizkuntza gizakion gaitasun eta elementu komuna eta unibertsala den neurrian, konexiorako eta kohesiorako bideak ditugu.



# Material gordin bat hizkuntzen ukipenerako

## Hondoari begiratu bat

**Jon Sarasua (HUHEZI. Mondragon Unibertsitatea)**

Modernitatea josi ezinik ibili da beti, ustez berak ekoiztu dituen baloreak josi ezinik. Seguruasko, besteak beste, balore horiek bildu zitueneko paradigmak apurtu zituelako, gainditu nahian, edo gainditu ustean, eta baloreen eustazpitik deskonektaturik are zeregin titanikoagoa zelako jostea gizakiaren izate-egiturak elkarren kontra errez jartzen dituen balore-bulkadak.

Tasunak ipar jartzen hasita, askatasuna eta berdintasuna jarri zituen goiburu, haurridetasunari emanez biok lotzearen ardura. Beste tasun batzuk labaindu egin zitzaizkion. Horien arten, nortasunarena. Nortasunaren gramatikarik ez dute ekoiztu ideologia modernoek, eta progresistak hala dabiltza oraindik, eskema zaharretatik gauza berriak ulertzeko malabarismo ideologikoak egiten.

Hizkuntzak zaintzeari, maitatzeari buruzko bagaje propioa dauka euskaldunen esperientzia hurbilak. Hori, migratzaileen hizkuntzei harrera egiteko elementu eragile bat da.

Halako antz bat hartzen diet eleaniztasunaren inguruko planteamenduei. Berdintasunaren kontzeptu modernoari oraindik atxikirik, hor ari dira nortasunaren eta aniztasunaren emergentzia ideologikoki kudeatu nahirik. Gauza berriak planteatu nahian, baina oraindik progresiaren eskemei loturik, eta ideario zaharraren oinarriak ukitzen dituen orori edozein *-ismo* leporatzeko prest.

Uste dut ideologia progresisten hondarrek ez dutela ekoizten nortasunaren inguruko paradigma bizigarririk, eta hizkuntza komunitateen bizi garapenerako oinarri egokirik ez dutela proposatzen. Nortasunaren gramatikan apur bat sakondu gabe, adibidez hizkuntza-komunitateen bizi dinamiken oinarriak ezagutu edo landu gabe, uste dut gai honetan gutxi aurreratu daitekeela. Planteamendu akademiko eta ideologikoen putzua hondo gabekoa da, askorako ematen du, eta beti eduki dezakegu sentsazioa proposamen interesgarriak egiten ari garela, baina galdera da ia benetan sakontzen dugun sakondu behar den lekuraino, eta ia etorkizun-ikuspegi bizigarririk marrazten dugun.

### Minduraren bagajea

Migrazio fluxuen ondorioz gertatzen diren hizkuntza-egoeren aurrean, euskararen komunitateak badu begiratu propio bat izateko arrazoirik.

Hizkuntza indoeuropear handiak hedazaleak izan dira, hedapena izan dute amets, eta hedapena izan dute praktika. Hobeto zehaztuz, hizkuntza, nolabait, pentsamolde eta praktika hedatzaile honen dimentsio bat gehiago izan da, jardun militar, politiko eta gainerakoen baitan. Hedakortasuna (besteak beste mitologia eta pentsamolde indoeuropearren hermeneutek egoki deskribatzen dutena) biziki eragilea izan da, eta horren korronte zabalean egon ez diren hizkuntza komunitateetako bat da euskara, beste jatorri historiko batetik eratorria eta beste ibilbide bat egina.

*Hedapena* amets izan beharrean *iraupena* amets izan duen hizkuntza-komunitatea dirudi gureak, eta horrek baditu bere inplikazioak. Hedapena bide izan dute hizkuntzek ondare ukaezina dute, zabala eta aberatsa. Euskararen komunitateak ondare desberdina dauka. Ondare honek (iraupenezko ondarea, erresistentziazko ondarea, porrotezko ondarea, nahasketazko ondarea, liseriketazko ondarea) beste emozionalitate batetik begiratzen ditu hizkuntzak, edo aukera ematen digu behintzat beste emozionalitate-multzo bat aktibatzeko munduko hizkuntzen aurrean.

Ez da kasualitatea nolabait 'ekologia' nozioaren inguruan biltzen diren planteamendu etikoak mamitzea euskalgintzaren munduan. Ez bakarrik hizkuntzen ekologia esplizituki planteatu dutenen aldetik. Oro har diot, planteamendu politikoak gorabehera, komunitate honen aldarria bizitzen uztearen aldarria izan da, espazio minimoaren eskea, aniztasunerako aportazio moduan gure gunea ekosistema moduan zaintzeko eta garatzeko intuizioa. Ekologiak badu alde politikoki polit (*correct*) bat eta alde politikoki itsusi bat.

Has gaitezen alde politikoki politarekin. Aniztasunaren aldarria da euskararen eragileena. Hizkuntzei buruzko UNESCOren adierazpenaren muinean kokatuta, gizateriaren hizkuntza-aniztasunerako ekarpena egiteko borondatea. Hala, balore multzo horretatik, euskararentzako bizi-deia hizkuntza guztientzako bizi-deia da. Hizkuntza guztien garapen eskubidea. Hau teorian 'guay' guztiontzat da begi-bistakoa. Diferentzia da euskaldunon kasuan, esperientzia existentzial kolektiboak berak hori horrela bizitzetik gertu jartzen gaituela.

Hizkuntzak *zaintzeari*, maitatzeari buruzko bagaje propioa dauka euskaldunen esperientzia hurbilak. Hori motxilan darama komunitate honen erdiguneak. Hori, migratzaileen hizkuntzei harrera egiteko elementu eragile bat da. Eta ondorioak ditu, aberatsak.





**Badugu hortik zerbait**

Bai, badu hizkuntza txikien bizinahiak halako begiratu etiko baterako joera, halako *satyagraha* gandhiano bat. Hizkuntza handien praktika hedatzaile eta itotzailearen gainetik (azpitik, egia esan, ondo azpitik), lurzoru etiko bat jartzen diote hizkuntzen artekotasunari:

> Aunque el pasado esté lleno
> de afrentas, pone freno
> al recibido desprecio
> convirtiéndolo en aprecio
> por lo propio y lo ajeno.

Gutxituaren ibilbidean, 'aprecio por lo propio' hori da pausorik zailena, autoestima eskuratzea, gizabanakoaren psikologia minduetan gertatzen den bezala. Bide hori egitea lortzen duenarentzat, ordea, norberarena (lo propio) eta besterena (lo ajeno) balioesteak elkarri eskua ematen diote, autoestima prozesuak aurrera egin ahala. Badugu hortik zerbait. Migratzaileari etxeko salan harrera egin behar badiogu, gure egoera existentzialak erraztutako begiratu etiko hori da guk jar dezakegun alfonbraren koloreetako bat.
Jakina, gure alfonbrak kolore gehiago ere baditu, eta marrazki konplexua du.

**Etxe gabeko anfitrioia**

Uste dut, denarekin, anfitrioi berezia dela euskara etorkinentzat. Etxe gabeko anfitrioia. Etxeko sukaldea eta sala jadanik bereak ez direnez, ez dauka kafea eta pastak nahi duen moduan salan eskaintzeko aukerarik. Gainera etorkinak zerbitzari datoz, ez gonbidatuta. Eskilarapean banatu behar ditu bisitarientzat goxokiak. Baina bere goxokiak desberdinak dira. Eta konplizitate berezi bat badauka eskilarapeko tratuak.
Integrazio sozialerako potentzial bereziak ditu euskararen mundu txikian sartzeak, beste emozionalitate batzuetatik hartua izango da aukera hori hartzen duen etorkina. Eta, bestetik, besteen hizkuntzen lokarri izateko ere gogo-aldarte berezia izan dezake euskararen komunitateak, berari dagokion espazioa ziurtatzearen truke, bizi izan duen esperientziagatik.

**Ez da berdina**

Borrokan edo -termino kutsatu hori saihestearren- *bizi-lehian* dabilenaren etika, ez da hegemonia duenaren etika bera. Eta ze zerikusi du honek eleaniztasunari buruzko produkzio intelektualarekin? Handia.
Modu beretsuan, bizi-lehian dabilenaren emozionalitate-multzoa eta hegemonia duenaren emozionalitate-multzoa ere ez da berdina. Eta bi desberdintasun horiekin, euskararen komunitateak harreramodu desberdinak garatu ditzake etorkinen aurrean. Aldi berean, alarmamodu desberdinak ere piztu ditzake beste zenbait arriskuren aurrean.
Harreramoduaren adibidea. Duela urte batzuk, euskararen inguruko ekitaldi batean, sorpresaz ume talde handi bat kantatzera ateratzen zen eskenatokira. Haietako bat kasualitatez beltza zen, eta entzule batzuen artean malkoak sortu zituen detaile hark. Ez zaio hori gertatuko frantses edo espainiar bati: etorkin batek bere hizkuntza ikasi duelako hunkitzea.
Alarmamoduaren adibidea. Gure herrian urte askotako ahaleginarekin lortu dugu tabernetan euskaraz eskatzea normaltzea, barrakoa erdalduna bazen ere ohartaraziz *'bi garagardo'* ulertu beharra zeukala. Lehengo astean zerbitzari latinoamerikar bati '*bi garagardo'* eskatu nizkion, *'no entiendo'* erantzun zidanean berriro poliki esan nion, eta zapuztu egin zen. Uste dut nire jarrera xenofobotzat hartu zuela. Interesgarria da anekdota. *'Dos cervezas'* jakin behar duela garbi dago, hori eskatzea ez da xenofobia. Baina *'bi garagardo'* jakin behar duela esatea… eta hasarretu egin zen, eta nolabait bera atera zen 'garaile', ofenditu aurpegiarekin bukatu zuen, eta nik espainieraz eskatu nion, bestela ez nuen zerbezarik, eta gainera ez nuen bera mindu nahi. Neska hark indigena aurpegia zeukan eta bere arbasoei espainiera inposatuko zioten. Orain hemen 'baztertu' bat da ekonomikoki, baina kulturalki niri nire udalerrian gazteleraz eskatu beharra inposatzeko gai da. Azkenean, *sumisio linguistikoa* deitzen dena, nerea izan zen, eta ez berea. Bera, etorkin etorriberria izanik ere, linguistikoki egoera hegemonikoan zegoen nirekiko. Non, eta Aretxabaletan, euskararen garapenean soziolinguistikoki aurreratuenetakoa dagoen herrian.

> Bizi-lehian dabilenaren etika ez da hegemonia duenaren etika bera, eta horrek zerikusi handia du eleaniztasunari buruzko produkzio intelektualarekin.

Nora noa guzti honekin? Eleaniztasunari buruz ingurune akademiko anglosaxoi, europear eta abarretan produzitzen ari den kontzeptualizazioak gutxi balio digula. Hizkuntzen garapenaren oinarriak, esparruak, funtzioak, eskubideak eta gainerakoak ulertzeko paradigma bat ez badaukagu, jai daukagu. Errigore apur bat eskatu behar da hizkuntzari buruz hitz egitean.

**Nondik sortu**

Bizi-kinka kezkagarrian dagoen hizkuntza baten oihutik, eta estatu-hegemonia edo ia kontinente hegemonia duen hizkuntzaren egoeratik, ezin zaio begira-





tu berdina egin migrazioen ondoriozko eleaniztasun egoerari. Tentuz ibili behar dugu teoriekin eta eleaniztasunari buruzko produkzio intelektualarekin.
Hegemonia erabatekoa ziurtatua duten hizkuntza-komunitate erraldoietan, toleragarria da *eleaniztasuna, multikulturalismoa, kulturartekotasuna* eta horrelako teorizazioak produzitzen uztea talde akademikoei. Horretarako daude akademikoak, argitaratzeko, kongresuak egiteko, eta gizarteaz gauzak esateko. Nahiko inofensiboa da teorizazioa. Gero eragile politiko, ekonomiko eta mediatikoek beren erara erabiliko dute produkzio horretatik doinu polita duena.
Ondo. Eta gauza interesgarriak badaude dudarik gabe. Gure kasurako, nire ustez ezer gutxi. Hizkuntzen bizi-espazioen eta bizi-dinamiken gramatika bat ez dagoelako. Berriz esango dut, bere larritasunean: hizkuntzen bizi-dinamiken gramatika bat ez gara ari erabiltzen gai honetan. Eta hortik bakarrik pentsatu dezakegu eleaniztasun-egoerez modu bizigarri batean. Baina zergatik ez dute paradigma hori? Ez dutelako behar! Gu gara behar dugunak. Eta guretzat, behar dugunontzat, ez da ideia ona behar horretatik abiatzen ez diren teoria progresistak irenstea.

Ez dago errigore soziolinguistiko minimoa erakusten duten egileen artean ikuspegi bakar bat, egungo ereduarekin hizkuntzaren garapen osora begira etorkizun-ikuspegi bizigarri batera goazela erakusten duenik.

**Gauden egoeratik**

Politikariek badute hizkuntzen bizi-egoera beraien diskurtsoen arabera interpretatzeko jarrera, baina ezagutzaren arloan gabiltzanok ez dezagun gal nozioen errigorea. Ez diogu diagnostikoari itzuri egin behar: euskararen bizitza-konstanteak, parametro bitalak, egoera kezkagarrian daude.
Hau ez doa ondo. Gutxi dira gure artean hizkuntzaren eta kultura-nortasun zabalagoaren bizi-posibilitateak errigorez formulatzen ari diren egileak. Eta ikuspegi desberdinak daude. Badira diotenak berandu dela, handiegia dela hizkuntza-komunitatearen egituraren arrakalamendua, sakonegia egindako kaltea. Badira ikuspegi eraikitzaileagoarekin formulatzen dutenak ere. Ez dago, ordea, errigore soziolinguistiko minimoa erakusten duten egileen artean ikuspegi bakar bat, egungo ereduarekin hizkuntzaren garapen osora begira etorkizun-ikuspegi bizigarri batera goazela erakusten duenik.
Ze espazio dagozkio euskarari bere jatorri-lurraldean, bere lurralde bital txiki eta mugatu bakarrean? Ze espazio dagozkie bi albo-erdara handiei? Zertan eragiten dute migrazio prozesu berriek egoera diglosiko honetan? Ze espazio dagokie etorkinen jatorri hizkuntza askotarikoei? Zer eskaini eta zer eskatu dakieke etorkinei gure herriko hizkuntza-gatazka desorekatu honetan?

**Galdera deserosoak**

Diskurtso *'viva la gente'* bat egiten dugu askotan eleaniztasunaren eta kulturartekotasunaren gaian, diskurtso *'flower power'* bat, lehengoan bati entzun nion espresioa erabiliz.
Etorkinak errealitate soziolinguistiko jakin batera datoz (gure kasuan errealitate nahiko larri batera), eta hor eragile da beraien praktika. Hortik pentsatu behar dugu hizkuntzen espazioa.
Une honetan etorkinek dakartzaten hizkuntzak bizirik badaude, eta bizirik iraungo badute, izango da badutelako munduan nonbait hegemonia-lurralde bat. Eta hegemonia-lurralde horietan, hizkuntza horiek funtzio mailakatuak ziurtatuta izan dituztelako. Eta hala ez den kasuan (etorkin batzuk amerindio ezkutu bat daukate barruan), herio-kolapsotik gertu dituzte hizkuntzak, Ameriketako jatorrizko hizkuntza ia guztiekin une honetan gertatzen ari den moduan.
*Hegemonia* kontzeptua erabili dugunez… horri buruzko galdera bi sortzen zaizkit, adibide moduan. Hizkuntza bati badagokio lurralde-esparru batean, beste hizkuntza batzuekin ukipenean egonik, funtzio hegemonikoak izatea? Funtzio hegemonikoak ziurtatzen dituen lurralde-esparru batean funtziook garatzeko aukerarik gabe hizkuntza batek bere konstante bitalak erreproduzitu ditzake?
Horrelako galderetan hasten gara ikusten etika ekologikoaren dimentsio *politikoki ez hain polita*.
Aholku bat. Ez erantzun galderari. Erantzun sinplista litzateke ziurrenik, asko aztertu behar baitira hizkuntzen historia eta dinamikak galdera honi erantzuteko. Gainera, zera gerta liteke beharbada hizkuntza baten lurralde-hegemonien gaiarekin: intelektualki saihestezina izatea, eta politikoki une honetan planteaezina, soziologia politikoa eta arretak beste parametro batzutan daudelako.
Zer egin, orduan? Intelektualki saihestu, hori da ohikoena. Bestelako bidetan ausartuz gero, euskararen komunitateak dantzan egin behar du 'lurralde' kontzeptuarekin. Batetik, lurralderik gabeko sare izaten asmatuz. Bigarrenik, lurralde-hegemonien jokoei buruzko debatea mahai gainean jartzeko pausoak emanez, eta mahai gainean jartzeko gordinegi dagoenez, galdaran egosten ipiniz. Hirugarrenik, 'lurralde' kontzeptuari adiera zabalagoak atxikiz, hegemonia-lurraldeak (pluralean) zainduz eta sortuz, 'lurralde'aren





adiera metaforikoetan, espazio fisiko, organiko, tematiko, birtual eta abarretan.

Kezkaz ikusten dut gure eragile politiko, hizkuntzari buruzko agintari, akademiko eta abarrek soziolinguistikaz duten solbentzia urria. Zer dakigu hizkuntzen heriotzaz eta errekuperazioen historiaz? Elebitasun sozial orekatua existitzen da? Existitu ezin bada, zein da euskal hizkuntza politikaren paradigmaren zorua? Munduan inoiz egon da eleaniztasun egoera ez-hegemonikorik?

Galdera hauei erantzun gabe hitz egin daiteke kulturartekotasunaz Euskal Herrian? Ez dakit aski errigorerekin ari garen hizkuntzen dinamikei buruz hitz egiten. Formazio soziologikotik, filologikotik eta abarretatik abiaturik hizkuntzaren dinamikei buruz ‘gauzak esatea’ ez da nahikoa. Hizkuntzaren bizi-dinamikena diziplina konplexu bat da. Eta ikasi egin behar da. Diagnostikoa gripea den ala minbizia den alegeraki eztabaidatzen ezin da hasi medikuntzan. Badaude parametro batzuk medikuntzan, bai hizkuntzen dinamiketan ere, eta diagnostikoa ezin da egin politikoki komenigarria den korrektotasun-irizpideen arabera.

Ez nuen euskararen komunitatearen geroari buruzko gakoetan sartu nahi. Gauza batera ekarri nahi nuen gogoeta: ikuspegi *osoago* eta sendoago batekin aztertu behar dugula hizkuntza-ukipenen gaia, hizkuntzen bizitzaren paradigma bermedun batetik bakarrik egin dezakegula erdi-ondo. Horretan, funtsezko hutsuneak ikusi izan ditut azken urteotako gogoetetan. Eta gauza batzuk azpimarratu edo karikaturizatu nahi izan ditut, horietara arreta ekartzeko.

Ikuspegi osoago eta sendoago batekin aztertu behar dugu hizkuntza-ukipenen gaia, hizkuntzen bizitzaren paradigma bermedun batetik bakarrik egin dezakegula erdi-ondo.

unesco etxea

centro unesco euskal herria
centre unesco pays basque
unesco centre basque country

*IKUSPEGI Immigrazioaren Euskal Behatokia* eta *Amarauna-UNESCO Etxea* erakundeek gaur egun Euskal Herrian immigrazioaren ondorioz hitz egiten diren hizkuntzei buruzko ikerlan bat burutu dute. Ekimenaren lehen helburua hizkuntza horiek zenbat eta zeintzuk diren jakitea izan da, egungo aniztasunaren lekukotasuna emateko asmoz. Eta hurbileko aniztasuna egiazkoa da, gure lurraldean ehun hizkuntza baino gehixeago mintzatzen baitira dagoeneko. Ikerlanaren emaitza *Hizkuntzak eta Immigrazioa* liburuan argitara eman dira, jatorrizko herrialdeei buruzko zenbait datu soziolinguistikoz hornituirk.

Ikerketaren haritik, *Ikuspegik* eta *Amaraunak* antolatuta, "Euskara, Immigrazioa eta Hizkuntza Eskubideak" lan jardunaldia ospatu zen, Bilbon. Bertan, Euskal Herri mailan gai horietan dihardun 45 pertsona bildu ziren, horien artean unibertsitateko adituak, administrazioetako euskara eta immigrazio teknikariak, irakasleak, idazleak eta oro har, hizkuntza aniztasunaren kudeaketaren alorrean dihardun pertsonak. Liburu honek lan jardunaldi horren isla izan nahi du, hizlarietako bakoitzak bere berbaldian esandakoaren harira eginiko iruzkin sorta emanez. Azkenik, eranskin modura hitzaldi guztiak eskaintzen dira.

EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO
KULTURA SAILA
DEPARTAMENTO DE CULTURA

*Hizkuntza Politikarako Sailburuordetza*
*Viceconsejería de Política Lingüística*

EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO
ETXEBIZITZA ETA GIZARTE GAIETAKO SAILA
DEPARTAMENTO DE VIVIENDA Y ASUNTOS SOCIALES

*Immigrazio Zuzendaritza*
*Dirección de inmigración*

eman ta zabal zazu
Universidad del País Vasco
Euskal Herriko Unibertsitatea